


# ZIBERBULLYING-KASUETAN IKASTETXEETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA



emici



# ZIBERBULLYING-KASUETAN IKASTETXEETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA



Argitaratzailea:

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Copyright 2011 EMICI, Equipo Multidisciplinar de Investigación sobre Cyberbullying ([www.emici.net](http://www.emici.net)). Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Egileak:** Rosario Del Rey, Jorge Flores, Maialen Garmendia, Gemma Martínez, Rosario Ortega eta Ofelia Tejerina.

ISBN: 978-84-9726-XXX-X

LG: BI-XXX-2011

Gida honen edukiari buruzko informazio gehiago:  
[www.protocolo-ciberbullying.com](http://www.protocolo-ciberbullying.com)

**Legezko oharra:** Egileek eta argitaratzaileek uko egiten diote argitalpen honetako edukien erabilera edo interpretazio arbitrarioa egitetik erator daitekeen erantzukizun orori. Orientatzeko gida da; ez da inolaz ere gida sakona, ez eta zehatza ere, landutako gaiak dituen konplexutasuna eta ñabardurak direla-eta. Nolanahi ere, aditu profesional baten aholkularitza pertsonala jasotzea gomendatzen dugu.

## **Behar bati erantzutea**

Honako protokolo hau profesional talde baten lanaren emaitza da. Talde horrek EMICI du izena, eta saiatu dira egunetik egunera gizar-tean eta, hortaz, ikasgeletan ikus daitekeen arazo bati erantzuna ematen; hain zuzen, ziberbullying-egoerei erantzuten.

Baliabide teknologikoak –besteak beste, Internet eta telefono mugikorrak– behar-beharrezkoak dira haur eta nerabeen prestakuntzarako, sozializatorako, aisialdirako eta garapen osorako. Era berean, baliabide teknologikoen indar izugarria kaltea eragiteko asmoa duten pertsonak edo erabiltzeko gaitasun handirik ez dutenek erabiltzeko moduan jartzen bada, zenbait egoera sor daitezke, non, batzuen edo besteen ekintzen ondorioz, adingabeak kalte baitaitezke.

Azkenaldian, askotariko faktoreek gero eta ziberbullying-kasu gehiago sorrarazi dituzte ikastetxeetan. Bizikidetzaz zibernetikoko arazoen katalizatzailetzat jo daitezke, besteak beste, honako hauek: haurrak gero eta gazteago hastea Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiltzen, pribatutasun-neurri proportzionalik ez duten sozializazio trinkoko ingurune berrien erabilera masiboa, ikus-entzuzko edukien gero eta garrantzi handiagoa, eta irisgarritasun- eta portabilitate-aukera handiagoak.

Ziberbullyinga ezkutuko fenomeno da, eta ondorio larriak ditu. Oro har, behaketa tradizionalaren irismenetik kanpo gertatzen da, baina, hala izan arren, ez du bullying tradizionalak baino kalte txikiagoa eragiten. Erantzun irmoa, proportzionala eta egokia eman behar zaio arazo horri. Gida honi protokolo itxura eman diogu, eta helburu du arauak eta jardunbideak ematea, era horretako gertaeretan arreta eraginkorra eman dadin ikastetxeetan.

## **EMICI, Equipo Multidisciplinar de Investigación sobre Cyberbullying**

EMICI lantalde bat da, eta bere eginkizuna da balio erantsi handiko ekarpenak eta ekarpen sozialak egitea, IKTen erabilerari uztarturiko eta haurren eta nerabeen artean gertatzen den ziberbullyingari loturiko fenomenoetarako. Lantaldeak hurbilketa zehatz eta diziplin anitzekoa egin du.

Hona hemen EMICI taldea osatzen duten adituak:

- **Rosario Del Rey**, Sevillako Unibertsitateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saileko doktore eta irakasle kontratatua, eta LAECOViko kidea.
- **Jorge Flores**, PantallasAmigas proiektuaren sortzaile eta zuzendaria.
- **Maialen Garmendia**, EU Kids Online proiektuko Espainiako taldearen zuzendaria. Soziologian doktore eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Soziologia Saileko irakasle titularra.
- **Gemma Martínez**, Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile (UPV/EHU) eta EU Kids Online proiektuko Espainiako taldeko kidea. Egoaldia egin zuen LSEn, Sonia Livingstone katedradunak ikuskatuta.
- **Rosario Ortega**, Kordobako Unibertsitateko Psikologiako katedraduna. LAECOViko zuzendaria.
- **Ofelia Tejerina**, Asociación de Internautas elkarteko abokatua.

EMICI taldeak honako hauen laguntza eta babesa du:

- LAECOVI, Laboratorio de Estudios sobre Convivencia y Prevención de la Violencia ([www.laecovi.es](http://www.laecovi.es)).
- EU Kids Online proiektuko Espainiako taldea ([www.ehu.es/eukidsonline](http://www.ehu.es/eukidsonline)).
- PantallasAmigas ([www.pantallasamigas.net](http://www.pantallasamigas.net)).
- Asociación de Internautas ([www.internautas.org](http://www.internautas.org)).

Gaur egun (2010eko abendua), bai LAECOVI lantaldea bai EU Kids Online España taldea lotuta daude unibertsitateko ikerketa-jarduerarekin. Ziberbullyingari buruzko proiektuak egiten ari dira Europan, eta horrek balio handia ematen die talde horien ekarpenei.

### **Esker ona**

EMICI taldeak berriaz eskerrak eman nahi dizkie honako hauei, lan honetarako eman duten babes eta laguntzagatik: Carmelo Garitanoandia, Miguel Ángel Casado, Joaquín Mora -Merchán, Manuel Casal eta Marcos Monje.

### **Esker on berezia**

EMICIk bereziki eskertu nahi dizkio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, proiektu hau zehaztu, bideratu eta balioesteko lanean emandako babesa eta laguntza. Halaber, Arartekoari ere eskerrak eman nahi dizkio, egin dituen ekarpenengatik.

Sarrera.....	7
<b>I. KAPITULUA. Ziberbullyinga, arazo konplexua .....</b>	<b>9</b>
1. Ziberbullyingari buruzko gogoeta garrantzitsuak .....	11
<b>II. KAPITULUA. Nola antzeman ziberbullying-egoerei .....</b>	<b>17</b>
2. Arrisku-adierazleak.....	18
<b>III. KAPITULUA. Nola jokatu ziberbullyinga gertatzen den susmoa dugunean .....</b>	<b>21</b>
3. Balioztatzea .....	24
4. Jakinaraztea .....	27
5. Babes-ekintzak .....	28
<b>IV. KAPITULUA. Nola jokatu ziberbullying-kasuetan.....</b>	<b>33</b>
6. Ikasle guztiekin batera hartu beharreko neurriak .....	35
7. Biktimarekin hartu beharreko neurriak .....	37
8. Zer egin dezake familiak? .....	38
9. Erasotzailea identifikatzen bada hartu beharreko neurriak .....	41
<b>V. Kapituluua. Sistema penalaren esku-hartzea .....</b>	<b>43</b>
10. Prozesuaren eskema.....	46
<b>VI. KAPITULUA. Ziberbullying-ekintzak identifikatu eta egiaztatzea.....</b>	<b>47</b>
11. Frogak lortzea.....	50
12. Berariazko froga-sistemak.....	53
13. Frogen eraginkortasuna.....	63

<b>VII. KAPITULUA. Lege-erantzuna .....</b>	<b>67</b>
14. Erantzukizuna .....	68
15. Delitu-pilaketa .....	71
16. Legearen erantzuna .....	76
<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>81</b>
A1. Ohar orokorrak .....	82
A2. Beste inoren nortasuna erabiltzea eta ziberbullyinga .....	88
A3. Sare sozialetarako Netiketa Gaztea .....	91
A4. Nola utzi TUENTIn egoteari .....	94
A5. Informazioa biltzeko orientabideak.....	99
<b>GLOSARIOA .....</b>	<b>117</b>
<b>DOKUMENTU-ITURRIAK.....</b>	<b>121</b>



Interneten erabilera hedatu egin da gizartean, bizitzako hainbat alderditara askotariko abantailak dakartzalako. Hala gertatu da haur eta nerabeen artean ere; haiek, gainera, teknologia berriak modu naturalean erabiltzen dituzte. Internetek hainbat eta hainbat aukera eskaintzen dizkie aisialdirako, kulturarako, ikaskuntzarako... ezagutzarako, oro har. Haur eta nerabeentzat, bai eta gero eta heldu gehiagorentzat ere, sozializatorako ingurunea da eta, hortaz, garapen pertsonalerako lagungarri zaie.


Hala ere, aldaketa handi orok bezala, Internetek ere zalantzak sorrazten ditu eta, aukera handi guztiek bezala, berekin dakartza zenbait mehatxu ere. Gure zeregina da lan egitea onurak maximizatzeko eta sor daitezkeen eragin negatiboak ahalik eta gehien murrizteko; izan ere, Internetek oso emaitza positiboak ekarri ditu eta, beraz, ukazina da horren alde egitea. Hainbat dira gizartean, oro har, eta hezkuntzan, zehazki, eragiten duten arazoak; horietako bat da ziberbullyinga.

Garrantzi handiko fenomeno da, iraupen luzekoa izaten delako, ondorio larriak dituelako eta zaila delako prebenitzea eta arazoari heltzea. Horregatik, leku nabarmena hartzen du arazo horren tratamenduak mundu osoko herrialde askotako erakundeen lehentasunen artean eta, bereziki, Europako erakundeenetan. Ziberbullyinga haur eta nerabeen artean gertatzen denean, horren ondorioak suntsitzailak izan daitezke; izan ere, ondorioak eratortzen dira teknologia boteretsu eta egunerokoak –besteak beste, Internet eta telefono mugikorrak– behar ez bezala erabiltzetik.

Eskola-ingurunean agertu zein ez, eskola-elkarteak jakin behar du zein den erarik hoberena fenomeno horri antzemateko, aurre egiteko eta errotik kentzeko. Horri esker, ikasleei lagunduko diegu Internet behar bezala erabiltzen eta haiek modurik hoberenean gara daitezen. Hori ez da lan erraza, teknologia berrien bidezko jazarpenak ezaugarri bereziak dituelako: anonimotasuna, berehalakotasuna, eragina katean, erabilgarritasun handia, eta askotariko kanal eta prozedurak, besteak beste.

Ziberbullyinga parekoen arteko tratatu txartzat jotzen den arren, nabarmendu nahi dugu, alde batetik, badirela beste fenomeno batzuk ere –hala nola, sexuagatiko jazarpena eta sexu-jazarpena– eta fenomeno horiek sareko jazarpenarekin gurutzatzen direla, batzuetan; eta, bestetik, fenomeno horiei adi egotea komeni dela hezkuntzarloan, hori baita era bat genero-indarkeria eta sexu-erasoak goiz detektatzen laguntzeko.

Pedagogian, soziologian, psikologian, teknologia berrietan eta zuzenbidean aditu direnen diziplina anitzeko taldea da EMICI. Talde horrek egindako protokolo hau jarduteko gida bat izango da ikastetxeetarako, horrelako egoeretan nola jardun jakin dezaten; era berean, bizikidetzazibernetikoko arazoak ulertzen ere lagunduko die.



I. KAPITULUA

# Ziberbullyinga, arazo konplexua

Internet abiadura izugarrian sartu da gure eguneroko bizitzan, esan bezala, aukera bikainak eskaintzen dizkigulako. Hala ere, eraldaketa azkar horren ondorioz zenbait arazo sortu dira, eta zaila da horietako batzuk identifikatzea eta haien ezaugarriak ikustea; halaxe gertatzen da ziberbullyingarekin ere.

Ziberbullyinga fenomeno konplexua denez, askotariko definizioak egin dira ziberbullyinga zer den azaltzeko, bai eta askotariko iritziak eman ere, ziberbullyingtzat zer jo daitekeen eta zer ez zehazteko orduan. Protokolo honetan definizio orokorra hautatu dugu. Horrek aukera eman digu askotariko egoerak barnean hartzeko, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) bidez zenbait eskola-umek beste batzuei behin eta berriz egin diezazkiekeen zirikatzeei loturikoak. Halako egoeretan, biktinek hainbat ondorio jasaten dituzte, eta horrek beren bizi-kalitatea murriz dezake.

Ziberbullyinga, bereziki eskola-ingurunetik aztertu izan denean, bullying-motatzat hartu izan da (eskola-umeen arteko tratu txarra); bien arteko alde nagusia da, batean —ziberbullyingean— IKTak erabiltzen direla jazarpena egiteko. Dena den, IKTen bidez egindako jazarpen-kasuak parekoen artean gertatu ez badira ere, nahiz eta zehazki ziberbullyinga ez izan, protokolo hau erreferentziatzat hartuta trata daitezke, protokoloan eman diren jarraibide, orientabide eta baliabideak erabilgarri izan baitaitezke ikasleen arteko mota horretako jokabideei aurre egiteko. Horrelako kasuen adibide bat izan daiteke ikasle batek edo talde batek irakasle bat barregarri uztea Interneten; hori da IKTak erabiliz egindako zirikatze-kasu bat.

## **1.1 Agertoki birtualek tradizionalen lekua hartu dute**

Definizioz, ziberbullyinga IKTen bitartez egiten da; hortaz, edozein tokitatik eta edozein unetan egin, jasan eta ikus daiteke. Ziberbullyinga on-line edo telefono mugikorraren bidez egiten denean, biktimaren eremu pertsonala inbaditzen da, bai eta etxea ere. Arazo horrek gure bizitzako eta gure bizikidetzako arlo guztietan du eragina. Ziberbullyingaren irismena 24/7 dela esan ohi da; horrek esan nahi du erasotzeko edo biktima izateko aukera 7 egunez eta 24 orduz da goela.

## **1.2 Anonimotasuna**

Anonimotasunak, bullying-egoeretan bezala, larriagotu egiten du jazarpenaren eragina; ziberbullyingean, baina, nabarmenagoa da hori, teknologia berriek eskaintzen dituzten erraztasunak direla-eta. Erasotzaileek, biktimek zein tartean diren gainerako pertsonak batzuetan ez dute jakiten norekin sortu duten harreman edo lotura suntsitzaile hori. Hau da, jazarleak oso erraz du bere nortasuna ezkutatzeko, bai eta jazarpenaren egilea beste norbait dela sinestarazteko ere. Era berean, batzuetan, pertsona ezezagunei egiten die eraso erasotzaileak, eta erasoetan parte har dezakete gertakari jakin bat ikusi eta, gutxienez, entretenigarri edo dibertigarri iruditu eta haietan parte hartzea erabakitzen dutenek. Hala ere, ziberbullying-kasu gehienak elkar ezagutzen duten pertsonen artean gertatzen dira eta, eskuarki, nolabaiteko bizikidetzak izaten dute elkarren artean. Hain zuzen ere, kasu horietako asko neska-mutilen ikastetxeetako bizikidetzak zuzenean edo bestelako bizikidetzak-inguruneetan izaten diren kasuen jarraipena izan ohi dira. Dena den, kontrakoa ere gertatzen da; alegia, arazoa on-line sortzen da, eta off-line bizitza kutsatzen du. Alde horretatik, garrantzitsua da kontuan izatea halako egoeretan tartean diren pertsonak elkar ezagutzeak ez duela esan nahi identifikatuta daudenik, hau da, ez du esan nahi biktimak badakienik nor ari zaion zirikatzen.

### 1.3 Pribatua versus publikoa

Ziberbullying-fenomenoan bi egoera aurki daitezke: alde batetik, **eremu pribatuan** egiten diren erasoak, non soilik erasotzailea eta biktima baitira protagonista; eta, bestetik, **jazarpen publikoko egoerak**, non biktima eta jazarleaz gainera, jazarpena ikusten duen pertsona edo parte-hartzaile gehiago bai baitaude. Azken horren moduko egoerak izan ohi dira ohikoenak, jazarpen-ekintzak transmititzeko bitartekoaren ezaugarriak direla-eta (Internet edo telefono mugikorra).

Nolanahi ere, gerta daiteke tartean den pertsonaren batek uste izatea eremu pribatuan diharduela, baina, egiazki, publikoan edo publiko izan daitekeenean jardutea. Internetek eta telefono mugikorrek ezaugarri dute, gainera, edozein ekintza egiteko orduan era anonimoan jarduteko aukera ematen dutela, mezuak azkar eta berehala helarazten direlako, eta mezuak jasotzaile askok jaso ditzaketelako.

### 1.4 Errepikatzea

Guztiok bat gatoz ziberbullyinga behin baino gehiagotan egiten den edo denboran luze irauten duen jazarpena dela esatearekin. Hala ere, garrantzitsua da kontuan izatea erasotzailearen ekintza bakar batek biktimizazio-esperientzia luzea eragin diezaiokeela eraso jasaten duenari. IKTek aukera ematen dute fitxategi digitalak oso era errazean banatu eta kopiatzeko, eta erraztasun hori dela-eta, esate baterako, bideo edo irudi bakar bat Internetera igotzea ziberbullying-kasu jarraitua izan daiteke, jende askok izan dezakeelako informazio iraingarri horretarako sarbidea. Erasotzaileak ekintza behin bakarrik egin arren, biktimarentzat eraso jarraitua izango da, ingurunearen berezko ezaugarriak direla-eta. Beraz, eragina errepikatua da, baina erasotzailearen jokabideak ez du zertan errepikatua izan. Hau da, ziberbullyinga berezia da errepikatzei dagokienez; izan ere, asinkronia handia izan daiteke, ez soilik tartean diren alderdien artean, bai eta jazarleak ekintza kaltegarriak egitearen eta jazarriak ekintza horiek jasotzearen artean ere.

## 1.5 Asmoa

Asmoa ziberbullyingari buruzko ia definizio zientifiko guztietan agertu ohi da, baina hainbat eratan uler daiteke. Hau da, askotan, asmo txarrekoa ez den ekintza bat –txantxa bat, adibidez– oso gogaikarria izan daiteke, edo mingarria, ekintza jaso duenarentzat; horrelako egoerak eragin ditzakete honako hauek, besteak beste: ekintza egiten duenak egindakoa ez pentsatzeak eta egindakoa ez ebaluatzeak, edo ekintzaren benetako ondorioak edo izan ditzakeen ondorioak aurreikusteko gai ez izateak; edo jasotzaileak edo bestelakoek gertakariak nola hartuko dituzten gaizki interpretatzeak edo gutxiesteak.

Alde horretatik, asmo txarrik gabeko ziberbullyinga eragin dezake baliabide teknikoak ez ezagutzeak edo ez menperatzeak. Adibidez, halakoak gerta daitezke neska edo mutil batek, eremu pribatuan dagoela pentsatuz, sarean iruzkin negatiboren bat egiten duenean ikaskide edo lagun bati buruz, jakitun izan gabe iruzkin hori beste pertsona batzuek ikus dezaketela. Asmo txarrik egon ez arren, biktima minduko du eta, beraz, ikastetxeak arazo horri heldu behar dio, IKTen erabilera egokiari buruzko prestakuntzaren bidez.

Norbaitek zerbait ez ezagutzeak ez du erantzukizunetik salbuesten, baina erantzukizun txikiagoa duela jotzen da. Hortaz, ez dira neurri berdinak hartuko egiten ari diren kaltearen jakitun diren erasotzaileentzat (asmo txarra dago) eta kalte horren jakitun ez direnentzat (zuhurtziagabetasuna). Puntu honetan, aipatzekoa da “ausarkeria” terminoa, asmo txarrik gabeko ondorioak eragiten dituen zuhurtziagabetasun kontzienteari lotuta.

## 1.6 Ziberjazarpenean esku hartzen duten rolak

Ziberbullyinga eskola-umeen arteko tratu txarren modu berezitzat jotzen da. Fenomeno hori ez da ikasle baten jokabideztat aztertu behar, ez eta ziberbullyinga jasaten ari den neska edo mutilaren arazo indibidualtzat ere. Definizio gehienetan bereziki nabarmentzen da biktimak zailtasuna izaten duela mota horretako jazarpenetik babesteko (Smith et al., 2008), baina horrek ez du esan nahi arazo indibiduala denik. Hain zuzen ere, jakina da neska-mutil gehienak gertatzen diren ziberbullying-kasu askoren jakitun direla, eta haietako bakoitzak modu batean jokatzeko du halako egoeren aurrean. Salmivalli irakasleak bullying tradizionalari buruz egindako lan finkatu eta onartua erreferentziatzat hartzen badugu (Salmivalli et al., 2006), komeniga-

ria da prozesu horretan tartean diren pertsonen har ditzaketen rolei buruz hitz egitea, bereziki prebentzioari eta esku-hartzeari begira aztertzen denean. Mota horretako jazoerak gertatzen direnean neska-mutil guztien jarrerak eta jokabideek izan ditzaketen ñabardurez ari gara. Alde horretatik, honako rol hauek bereiz daitezke:

- **Erasotzailea**, eraso egiten duena.
- Erasotzailearen **indartzailea**, eraso bultzatzen duena.
- Erasotzailearen **laguntzailea**, eraso egiten duena babesten duena.
- Biktimaren **defendatzailea**, biktimari biktima-egoeratik irteten laguntzen diona edo irten dadin laguntzen saiatzen dena.
- **Kanpoko**a, dinamikan inola ere parte hartzen ez duena.
- **Biktima**, jazarpena jasaten duena.

Beraz, ziberbullying-kasu bat gertatzen denean, rolen arteko harremanak ulertzen saiatu behar da; harreman horiek, gehienetan, sarean duten tokitik espazio fisiko pertsonalera hedatzen dira. Esan liteke “ikus-entzuleak” deiturikoen zeregina oso garrantzitsua dela mota horretako gertakariak izaten direnean, ikus-entzuleak laguntzaile bihurtu baitaitezke berehala. Pertsona batzuk, erasotzaile edo biktima izan ez arren, arazoan inplikatu daitezke zeharka, dela erasotzailea laguntzen edo adoretzen dutelako, dela, alderantziz, biktimari laguntzen saiatzen direlako.

## 1.7 Ziberbullyingean erabiltzen diren bitartekoak

Oso zaila da jazarpena hedatzeko erabiltzen diren bitartekoak mugatzea, jazarpena zabaltzeko askotariko erak daudelako. Jazarpena zabaltzeko baliagarri izaten dira askotariko **gailuak** (finkoak edo eramangarriak; zehazki, telefono mugikorrak, mahai gaineko ordenagailuak edo ordenagailu eramangarriak, kontsolak, kontsola eramangarriak eta abar), askotariko **kanalak** (Internet eta telefono mugikorrak) eta askotariko **aplikazioak** (sare sozialak, berehalako mezularitza, txatak, posta elektronikoa, ikus-entzunezko edukiak dituzten webguneak, bideojokoak, SMSak, MMSak eta abar).

Gailu horiek eta haien aplikazioak oso azkar aldatzen direnez, egin diren ziberbullyingaren azken definizioetan oro har aipatu dira Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak (IKT) (Smith et al., 2006, besteak beste).



## 1.8 Ziberbullying-motak

Ziberbullyinga, funtsean, zeharkako bullyingtzat hartzen da; hiru motatako jazarpenaren bidez gauza daiteke: zirikatzea, bazterketa eta manipulazioa.

- **Zirikatzen** denean, pertsona bati buruzko irudi edo bideo iraingarriak bidaltzen dira; pertsona bati atzetik jarraitzen zaio software-espioen bitartez; birus informatikoak bidaltzen dira; on-line dauden bideojokoetan trebetasun gutxien duen jokalaria aukeratzen du beti beste jokalaria, hari etengabe irabazteko, umiliatzeko eta abar.
- **Bazterketa** gertatzen da, besteak beste, ingurune publikoetan behin eta berriz jazartzen denean edo mespretxuzko iruzkinak edo zurrumurru iraingarriak bidaltzen direnean horiek zabaltzeko helburuarekin; eta talde osoaren foro, txat edo plataformetarako sarbidea ukatzen zaionean biktimari.
- **Manipulazioa** deritzo plataformetan (sare sozialetan, adibidez) aurkitutako informazioa behar ez bezala hedatzeari plataformetako kideen artean, edo beste pertsona baten ezkutuko zenbakia erabiliz sartu eta haren izenean kalte eragin diezaioketen ekintzak egiteari, eta abar.

## 1.9 Aurreikusi ezin diren ondorioak

Ziberbullyingaren izaera berezitik oso ondorio txarrak erator daitezke tartean diren alderdi guztientzat, espero ez dugun bezain garrantzitsu bihur daitezkeelako ziberjazarpen-ekintzak, eragin potentzial handia baitute; batzuetan, jazartzen dutenei eskuetatik ihes ere egin diezaiokete ekintzok.

Mota horretako arazoetan, babesgabetasuna, sufrimendua eta erantzuteko gaitasun urria izatea eragiten dute honako hauek: jazarpen-mezu elektronikoak batetik bestera ibiltzen diren abiadura kontrolatzeko zail izateak; erasotzen duenaren nortasuna ezezaguna edo, batzuetan, faltsua izateko aukerak; webguneetan egiten diren ekintzen ondorioak ez ezagutzeak; eta etengabeko irisgarritasunak (24/7), besteak beste. Gainera, neska-mutilek, eta beren legezko erantzuleek, ez dute jakiten, eskuarki, mota horretako ekintzak delitu izan daitezkeenik. Era berean, batzuetan, ikus-entzuleek ez dute jakiten ziberbullying-ekintza batean laguntzaile direnik.

## 1.10 Arlo juridikoko erreferenteak

Oro har, ziberbullying-kasuak auzitaratzeko, epaitegiek zein Adingabeen Fiskaltzak aintzat hartzen dituzte honako hauek gertatu direla frogatzeko aukera ematen duten frogak:

- Jazarleak eta biktimak antzeko adina dutela.
- Indar-aldea dagoela. Alderdi hori ondoriozta daiteke tartean direnen baldintza psikikoak zein haien ezagutza teknikoa kontuan hartuta.
- Ingurune fisiko hurbilekoak direla; normalean, ikastetxea izaten da ingurune fisiko komuna.
- Biktima nahita baztertzea edo gizartean bakartzea helburu duten jokabideak. Hona hemen ohikoenak: irainak, kalumniak, mehatxuak, derrigortzeak, bere buruaz beste eginaraztea eta isekak, testu/irudi/ahots bidez elektronikoki eginak, bakarka edo guztiak batera.
- Ekintza kaltegarrien ondorioak, iraupen luzekoak eta oso hedatuak denboran eta espazioan. Gerta daiteke, gainera, ekintza bakar batek jazarpena dela esateko bezain ondorio larriak izatea (esate baterako, irudi laidogarri bat mugarik gabe zabaltzea). Hala ere, ohikoena izaten da modalitate horiek guztiak edo horietako zenbait batera erabiltzea.
- Jazartzen duenaren asmoa. Kalte eragin nahi dio, umiliatu nahi du, dela modu aktiboan (eraso emozionala edo psikologikoa), dela modu pasiboan (gizarte-bazterketa).
- Erasotzailearen jokabidea nortasun birtual baten pean, “mozorro” baten bidez.
- Banakoaren eraso edo taldean egindako eraso.
- Tartean diren adingabeak ezagutzen dituzten edo/eta haien zaintzaren arduradun diren hirugarrenen pasibotasuna.
- Jazarria den adingabearen bizi-esperientzia eta esperientzia subjektiboa; unean uneko kasu zehatzaren bestelako edozein inguruar bar subjektibo, pertsonal edo familiako.



## II. KAPITULUA

# **Nola antzeman ziberbullying-egoerei**

Ziberbullying-egoerei antzematen laguntzen duten gakoak izatea da mota horretako arazoetan esku hartzeko funtsezko oinarrietako bat. Horrelako arazoek ezaugarri izaten dute era esanguratsuan larriagotzen direla denbora igaro ahala. Beraz, arazoari **ahal bezain laster antzemateak** esan nahi du arazoari hasiberri denean eta, hedaduraz, tartean direnentzat ondorio txikiagoak dituenean heldu behar zaiola.

Hala ere, pentsa litekeenaren kontra, ziberbullyinga zer den jakitea ez da nahikoa gure inguruan gerta daitezkeen kasuei antzemango zaiela ziurtatzeko. Ziberbullyingaren beste ezaugarri bat **isiltasunaren legea** da. Beharrezkoa da **adierazleak** izatea. Izan ere, adierazleek isiltasunaren lege hori indargabetzen lagunduko digute, eta aukera emango digute ziberbullyinga gertatzeko arriskua ekar lezaketen egoerak ikusteko.

Horretarako, garrantzitsua da kontuan izatea ez dagoela pertsona, egoera edo inguruabarririk, berez, ziberbullyinga berekin ekartzera predestinatuta dagoenik; fenomeno horrekin **lotuta izateko aukera duten arrisku-faktoreen multzoa** da dagoena. Arrisku-faktoretzat jotzen ditugu nahi ez dugun egoera –kasu honetan, ziberbullyinga– agertzeko aukera, neurri handian edo txikian, iragartzen duten edo iragar dezaketen elementuak. Arrisku-faktoreak eta fenomenoaren **iragarle** gisa duten garrantzia aztertzeko, tartean diren subjektuek lortzen dituzten emaitzak eta tartean ez direnenak alderatzen dira eta, horri esker, bi kolektiboak bereizten dituzten aldagaiak edo dimentsioak (faktoreak) aurkitzen dira. Horrekin, jasota utzi nahi dugu faktore horiek arriskutaldeak identifikatzeko balio dutela, eta ez tartean daudela ziurtatzeko. Ziberbullying-egoera posible bat aurkitu eta gero, beharrezko izango dira balioztatze-prozesuak, hala dela egiaztatzeko.

## 2.1 Ziberbullyingean eragin zuzena izan dezaketen jokabide eta adierazleak

Badira jardunbide arriskutsu jakin batzuk eta zenbait seinale, pentsaraz diezaguketenak ziberbullying-kasuren batean norbait tartean dagoela, biktima edo erasotzaile dela; hona hemen zenbait:

- Ordu asko ematea Internetera konektatuta edo mugikorrarekin.
- Internet erabiltzen dutenean gurasoek ez gainbegiratzea.
- Interneten egiten duenaz edo gertatzen zaionaz ez hitz egitea.
- Sare sozial edo antzekoren batean (Facebook, Tuenti, Myspace, Fotolog, Metroflog eta abar) gutxienez kontu bat izatea.

- Ordenagailua edo Internetera konektatzeko gailua logelan bertan izatea, edo konektatzen denean gurasoek gainbegiratu ezin duten beste lekuren batean.
- Internetera konektatuta dagoenean edo mugikorra erabiltzen ari denean gertatutako eteteengatik haserretzea.
- Mugikorrean beti aurkitzeko moduan egoteko beharra izatea, lo dagoenean ere bai.
- Ikastetxean mugikorra erabiltzea.
- Jasan dezakeen zigor okerrenetakotzat mugikorra edo Internet erabiltzeko debekua dela pentsatzea.
- Gero eta gutxiago parte hartzea Internet edo telefono mugikorra ez erabiltzea eskatzen duten jardueretan.
- Indarkeriaren erabilera eta botere-abusua arrunt bihurtzea, “txan-txak dira” eta antzeko adierazpenak erabiliz.
- Isiltasunaren legea justifikatzea, “gure kontuak dira” esanez.
- Umorea aldatzea Internet eta telefono mugikorra erabili ezin duen egoeretan.
- Jarrera pasiboa izatea eta adierazpen gutxi egitea, zailtasunak izatea mugak jartzeko eta ezetz esateko.

## 2.2 Biktima izan daitekeenaren jokabideak eta adierazleak

Hona hemen ziberbullying-egoeretan biktima izateko jokabide eta jarrera arriskutsu batzuk:


- Posta elektronikoko edo Interneteko programaren bateko pasahitza ematea lagunen bati.
- Pasahitz bera erabiltzea Interneteko programa edo orri bat baino gehiagotarako.
- Datu pertsonalak Interneten ematea edo Interneten ikusgai jartzea.
- Internet leku segurua dela pentsatzea.
- Ikastetxean bullying tradizionalaren biktima izatea edo lehen izana.
- Internet bidez ezagututako pertsonekin elkartzan saiatu izana.
- Argazki edo bideo pertsonalak trukatu izana Internet bidez ezagututako pertsonekin.
- Ezezagunei posta elektronikoko edo Messengerreko helbidea ematea eta haiena hartzea, asko pentsatu gabe.

- Interneten laguntzat hartzea ezagutzen ez dituen pertsonak.
- Bat-bateko umore-aldaketak izatea.
- Tristura edo gogorik eza erakustea eguneroko jarduerak egitean.
- Bere interes eta eskubideak defendatzeko pixkanaka gizarte-trebetasunak galtzea, bereziki adierazpen-trebetasunak.
- Isolatzeko joera izatea.
- Autoestimu txikia izatea, edo ziurtasun-gabeziaren zantzuak erakustea.
- Uko egitea ziberbullying-egoerez hitz egiteari.
- Jarrera pasiboa izatea eta adierazpen gutxi egitea, zailtasunak izatea mugak jartzeko eta ezetz esateko.

### **2.3 Erasotzaile izan daitekeenaren jokabideak eta adierazleak**

Hona hemen ziberbullying-egoeretan erasotzaile izateko jokabide eta jarrera arriskutsu batzuk:

- Mugikorrean edo Interneten beste pertsona bat delako itxurak egin izana inoiz.
- Internet erabiltzeko araurik ez izatea.
- Argazkiak edo bideoak erakustea/bidaltzea, bideoaren protagonistarentzat umiliagarriak edo desatseginak izan arren barregarri iruditzen zaizkiolako.
- Ikastetxean ikaskideren bati beldurra eragin edo ikaskideren bat jazarri izana.
- Beste batzuek eragindako ziberbullying-egoerak justifikatzea.
- Indarkeria justifikatzea, bereziki zeharkakoa.
- Internet edo telefono mugikorra ez erabiltzea eskatzen duten jarduera gutxiago egitea.
- Frustrazioarekiko tolerantzia txikia izatea.
- Parekoekin nagusikeria-jokabidea, botere-abusua eta errespetu falta izatea.
- Agintariei, irakasleei edo gurasoei errespetua galtzea.
- Begien bistakoa izatea jarrera negatiboa duela bakoitzaren ezaguerriaren ezagutza eta lankidetzaren indartzeko lankidetzazko jarduerak egiteko orduan.



### III. KAPITULUA

# **Nola jokatu ziberbullyinga gertatzen den susmoa dugunean**

Ziberbullying-kasuetan ikastetxeek izan behar duten jokabideari buruzko eztabaida luzeetako bat da ea arazo hori eskola-arazotzat jo behar den ala ez. Alde horretatik, ikastetxeek onartu behar dute, gertaerak eskola-ingurunetik kanpo gertatu zein ez, beren ikasleen garapena sustatzeko betebeharra duten erakunde diren aldetik, esku hartu behar dutela ikastetxeko ikasleren bat ziberbullyin-egoera bat jasaten izan daitekeelako susmoa duen edo dakien bakoitzean, jurisprudentziak agerian utzi duen bezala.

Ondorioz, eskola-elkarteko edozein kidek (irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasle ez diren langileak) **susmoren bat** duenean, seinale arrazoizkoren bat dagoela uste duenean edo berariaz dakienean ziberbullying-egoera bat gertatzen ari dela, ikastetxeko Zuzendaritzari **jakinarazteko** betebeharra du. Hain zuzen ere, pertsona edo agintari ororen betebeharra da agintaritzari edo agenteei jakinaraztea adingaberen batengan eragina izan dezakeen arrisku-egoera oro eta, behar badu, berehala laguntza eman behar dio (Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua eta, koerlatiboki, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Eusko Legebiltzarraren 3/2005 Legeko III. kapitulua). Horren ondorioetarako, arrisku-egoeratzat jo behar dira jazarpen jarraituko egoerak, eta Adingabeen Fiskaltzan jakinarazi behar dira.

Ikastetxe edo hezkuntza-administrazio bakoitzak berariazko prozedurak ezar ditzake horretarako, baina gomendatzen da idatziz egin dadila, eta susmoa sortu diguten xehetasunak eman daitezela. **Konfidentzialtasun** zorrotzez jokatu behar da beti.

Susmoren bat izanez gero, tartean den ikaslearen tutoreak koordinatu behar ditu, irakasle-taldearekin batera, susmoa benetakoa den ala ez egiaztatzen lagunduko duten beharrezko ekintzak.

Tutoreak, irakasle-taldearekin batera, **koordinazio-lana** egingo du. Horrek, baina, ez du esan nahi soilik pertsona horiek inplikaturiko direnik prozesuan; hala ere, tutoreak antolatu behar ditu hartu beharreko neurriak, lehen ekinaldian, egoki jotzen badira (tartean den ikaslearen nortasuna konfidentzialtasunez tratatuko da). Prozesu horretan beti gogoan izan behar da oso garrantzitsua dela berehala jardutea, eta erreferente izan behar dira honako hauek: ikastetxeko orientatzailea edo aholkularia; Berritzeguneko (Hezkuntzaren berrikuntzan eta prestakuntzan laguntzeko zentroa) erreferentziazko aholkularia; Bizikidetzeta Plana; Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA) edo Barne Araudia; Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi osoa, ikasleen





eskubide eta betebeharrei buruzkoa; eta eskola-umeen arteko tratatu txarren kasuetan jarduteko protokoloa, kasuan kasu (ikus dokumentu-iturriak).

Behin ziberbullying-egoera posiblea egiaztatu denean, ikastetxeak lanean hasi beharko du berehala eta hiru jarduera-ildotan aldi berean; hona hemen hiru jarduera-ildook: balioztatzea, jakinaraztea eta babes-ekintzak.

Ziberbullying-susmoa jakinarazi duen pertsonak emandako abiapuntuko informazioa hartuta, tutoreak informazioa bildu eta triangelatzeko prozesua hasi behar du. Horrek, etorkizuneko ekintzetarako oinarritzat balioko du, baldin etorkizunean halakorik behar bada. Egiaztatze-prozesuan, garrantzitsua da kontuan izatea ustez biktima jasaten ari den beldurrarazte-ekintzen frogak lortzeko aukera (ikus VI. kapitulua).

Balioztatze-prozesu horren ezaugarri izan behar du honako honek: modu neurritzko eta patxadatsuan eta inguruabarretara egokituta jardun behar dela. Presak ez du prozesuaren ezaugarri izan behar, baina zolitasuna eta azkartasuna oso lagungarri dira prozesuan. Ziberbullying-kasuek ondorio larriak izan ditzakete eta, beraz, gure arreta osoa eta irmotasuna behar da egoera horietan. Hala ere, horrek ez du esan nahi bat-bateko erantzunak edo erantzun alarmistak eman behar direnik, ez baitira lagungarri. Behar bezalako oinarririk gabe egingo diren urrats guztiek oztopoak sorraraz ditzakete bidean, eta beharrezko izan ditzakegun aliatuek bizkar eman diezagukete, gauzak oinarririk gabe egiten baditugu.

Fase horretan, ustez tartean diren pertsonak eta haien familiak izan behar dira ezagutza-iturri, bai eta biktimizazioaren edo erasoaren frogen bitartez egiazta daitekeen informazio guztia ere. Oso lagungarri izan daiteke bai irakasle-taldea, bai ikastetxeko aholkularia edo orientatzailea, bai eta Berritzeguneko erreferentziazko aholkularia ere. Uneoro errespetatu behar da adingabearen pribatutasuna, eta saihestu egin behar dira alarmismoa eta adingabe ororen segurtasunean eta prozesua ahalik eta modurik hoberenean egitean eragin negatiboa izan dezakeen guztia. Horretarako, oso garrantzitsua da informazioa konfidentziasunez erabiltzea eta triangelatzea, egokitzen jo diren pertsonen egindako elkarrizketetatik lortutako datuak egiaztatzeko orduan.

Balioztatze-fase horrek ezaugarri izan behar du biktima izan daitekeena ulertzea. Horregatik, gomendatzen da informazioa biltzeko prozesua ustez biktimizatua den neska edo mutilarekin hastea. Gero, haien guraso edo legezko tutoreengana jo behar da eta, ondoren, gertakariak ezagut ditzaketen ikasleengana, biktimizazioa eragin ahal izan duen mutil, neska edo taldearengana, eta haien guraso edo legezko tutoreengana.

Uneoro ahalegindu behar da elkarrizketak egingo diren lekuan ez deztatela topo egin jazarriak eta jazarleak, ez eta jazarriak eta erasotzaileak direlako susmopean daudenen gurasoek ere.

Ustezko biktimarekin elkarrizketa egiten denean, honako hauek egin ditzan saiatu behar da, bereziki:

- Gertatu den guztia eta uneko egoerara iristeko zer gertatu den azter dezala.
- Jasaten ari den jazarpenaren edukia azter dezala, eta ikus dezala ea eduki horrek korrelaziorik duen nolabaiteko loturarekin, harreman sentimentalekin edo pertsonaren batekin izan duen maitasun-eta/edo sexu-harremanekin.
- Identifika dezala zein gertaera zehatz jasan duen, eta egoera eragin duen pertsona edo pertsonak ezagutzen dituen ala ez.
- Adieraz dezala ustezko jazarpena zein plataformaren bitartez gertatu den (finkoa edo mugikorra), zein bitarteko erabili diren (Internet, telefono mugikorra) eta zein aplikazioz baliatu diren (sare sozialak, berehalako mezularitza, webguneak –hala nola, youtube–, foroak, blogak, posta elektronikoa, testu- edo multimedia-mezuak telefono mugikorren bitartez eta abar).
- Lagun dezala ikusgai dauden edo aurki daitezkeen probak identifikatzen.

Ezinbestekoa da uneoro laguntza eskaintzea, behin eta berriz esatea bera ez dela gertatzen ari zaionaren errudun, eta galdetzea ea ekin-tza bereziren bat egiterik nahi duen, gertatutakoa argitu bitartean.

Era berean, gomendagarri da ustezko biktimaren familiarekin ere banakako elkarrizketa egitea. Elkarrizketan, honako hauek jakinarazi behar zaizkie senitartekoei: arazoa zein den eta zein gertaera ari diren ikertzen, hartu diren prebentzio-neurriak, jazarpen-egoera baieztatuko balitz zein hezkuntza- eta diziplina-prozesu hasiko litzatekeen eta, behar izanez gero, hezkuntzako zein neurri zuzentzaile hartuko liratekeen.

Denbora eman behar zaie dakitena eta dituzten kezkek kontu ditzaten, eta beraiek arazoa nola balioztatzen duten adieraz dezaten.

Ildo horretan egin behar dira gainerako elkarrizketak ere, baldin gehiago egin behar badira. Izan ere, batzuetan, hasiera batean ezin izaten da identifikatu zein neska-mutilek duen gertakarien berri edo nor dagoen ustezko erasoaren atzean.

Informazio-bilketa eta elkarrizketak amaitzen direnean, zuzendariak, edo hark izendatuko duen pertsonak (tutorea litzateke aukerarik hobereana), egoerari buruzko daturik garrantzitsuenei buruzko txosten laburra egingo du. Txosten horretan, balioztatu behar du ea nahiko

seinale dagoen ziberbullying-egoera badela edo halakorik ez dela ziurtatzeko, eta adierazi behar du berehalako zein ekintza gauzatu behar den. Aholkatzen da balioztatze-bilera horretan ikastetxeko aholkularia edo orientatzailea eta Berritzeguneko erreferentziazko aholkularia izatea.

Jazarpen sexista edo sexu-jazarpena izan delako aztarnarik badago, oso lagungarri izan daiteke genero, baterako hezkuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioan espezializatua den pertsonaren batengana jotzea, bai eta Eskola Kontseiluan edo Ordezkaritza Organo Gorenean gizon eta emakumeen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra sustatuko duten hezkuntza-neurriak hartzearen arduradun den pertsonarengana ere.

Orobat, jazarpenaren edukia argitu behar da, eta baldin tutoreak ikusten badu edukiek eta/edo mezuek jazarpen sexistarekin edo sexu-jazarpenarekin lotura izan dezaketela adierazten duten seinaleak daudela, gertaeren larritasuna balioztatu behar du. Eta, baldin gertaera horiek emakumeen aurkako indarkeria-kasuren bat eta/edo sexu-erasoren bat ekar badezakete, ikastetxeko zuzendaritza-taldea-ri jakinarazi behar dio. Hark, biktimaren segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu berehala, eta "Parekoen arteko tratatu txarrak izaten direnean ikastetxeetan jarduteko gida" eskuliburuan ezarritako protokoloari jarraituko dio. Halaber, Hezkuntzako Ikuskatzailetzari emango dio egoeraren berri.

Tutoreak egiaztatze-fasea bukatzen duenean, edo familiako kideren batek susmoren baten berri ematen duenean, ziberbullyinga gertatu delako susmo oro, gutxieneko oinarria baldin badu, zuzendariari jakinarazi behar zaio, eta hark ikuskatzaileari. Balioztatze-prozesuaren eta berehalako neurrien berri emango dio ikuskatzaileari. Era berean, oso garrantzitsua da gertatutakoan ustez tartean diren ikasleen familiei ere jakinaraztea, prozesuan koordinazioa eta komunikazioa izan daitezkeen familiaren eta ikastetxearen artean. Nolanahi ere, familiaren eta ikastetxearen artean lankidetzaz izatea da garrantzitsua, ikasleari lagun dakion, ustez rol bat zein beste bat izan.

Jakinarazpenak egiteko ardura pertsona batek edo beste batek izan dezake, informazio-hartzailearen arabera; baina zuzendariak koordinatu behar du prozesu hori guztia. Familiei jakinarazi behar bazaie, hobe da ikaslearen tutorea biltzea familiarekin, lehendik elkar eza gutzen dutelako eta harreman hori hari dagokiolako. Jakinarazpen hori eta balioztatze-prozesurako elkarrizketak aldi berean egin beharko lirateke. Ezinbestekoa da familiei laguntza ematea, eta beren burua gertatzen ari daitekeenaren erruduntzat jo ez dezaten saiatu behar da. Horretarako, zenbait orientabide eman daitezke; **IV. kapituluko 8. epigrafean (Zer egin dezake familiak?)** erantsi dira.

Jakinarazpen- eta balioztatze-prozesuan, beharrezkotzat jo da psikoheziketako zenbait orientabide aintzat hartzea, ziberbullying-kasuren bat gertatzen ari dela ikusten den unerako. Halako egoeretan, garrantzitsuena laguntza eskaintzea da, eta esku-hartzeko urratsak jartzea, bai eta ziberbullying-kasua izan badela baieztatu baino lehen ere.

Jarraian, zenbait orientazio-jarduera eskaini dira. Hala ere, honako hauek beti baldintzatuko dituzte jarduera horiek: Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko Dekretuak, Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo ikastetxe bakoitzeko Barne Araudiak eta Bizikidetzaren Planak, bai eta bestelako ekimenek ere, ikastetxearen kulturaren ezarritako izango direnek eta egin beharreko ekintzei zentzua emango dietenek.

### 5.1 Biktima izateko arriskuan izan daitezkeen adingabeekin

Egiaztatu ahal izan diren esperientzietan, zoritxarrez, oso maiz agertzen dira arazoa konpontzea zailtzen duten gaiak. Ezjakintasunaren eta urduritasunaren ondorioz azaleratzen diren ekintzak izaten dira, oro har. Zehazki, erasotzaile delakotzat jotzen ditugun aurkako indarkeriazko erantzunak izaten dira, edo haien inguruko kontrakoak. Batzuetan, ikastetxeko langileen aurkako erantzunak ere izaten dira, eta horrek, gainera, zenbaitetan eta bestelako kontuak alde batera utzita, helburu nagusiari arretarik ez jartzea dakar, alegia, biktima babestu eta hari arreta ematea.

Zirikatzearen ezaugarriak, jatorria eta intentsitatea alde batera utzita, eta bestelako neurri osagarriekin batera, kasu guztietan beharrezko da berehala desagerraraztea jazarpen-egoerak berriz gertatzeko arriskua.

Horretarako, honako neurri hauek ezar daitezke:

- Ez izan beldurrik gaiari buruz berarekin hitz egiteko; prest izan beti hitz egiteko.
- Esan beti entzuteko prest izango garela; adierazi guztion arazoa dela, eta ez harena bakarrik.
- Eduki sexista eta/edo sexualarekin jazarria bada, indartu konfiantza, jasaten ari den jazarpenaren edukiei loturik izan daitezkeen edozein esperientzia konta dezakeela jakin dezan, hala nola, arroparik gabeko argazkiak bidaltzea sarean, harreman intimo eta/edo

sexu-harremanetan egindako grabazioak eta abar. Oso argi utzi beti esperientzia horiek ez dutela justifikatzen jasaten ari den jazarpena.

- Jakinarazi ez duela ez arazo hori ez besterik ezkutatu behar, laguntzari esker guztia konpon baitaiteke.
- Azaldu gertatzen ari dena ez dela bere erruz gertatzen ari.
- Hitz egin eta planifikatu berarekin zer egin.
- Ebaluatu jazarleak behin eta berriz zirikatzeke oinarri har ditzakeen zaugarritasunak.
- Adoretu, irakasleekin eta gurasoekin hitz egin dezan.
- Azaldu inguruko laguntza beharrezkoa dela.
- Murriztu IKTen erabilera (maiztasuna eta intentsitatea); kasuaren arabera, gomendagarri izan daiteke testuinguru birtual hori aldi baterako edo behin betiko kentzea ere (jo dezagun mina sare sozial jakin batean ari dela egiten).
- Familiak eta ikastetxeak harremanetan jarrai dezatela, arazoaren jakitun izan daitezen eta arazoari errazago hel dakion.
- Saiatu prozesuaren lehenengo fasean zehar gauzak nola doazen azal dezan.
- Ahalegindu helduen kezka suma ez dezan; baina ikus dezala arazoarekiko interesa dutela.
- Indartu haren segurtasun pertsonala.
- Eragin bere dohainak hauteman ditzan.
- Esan behin eta berriz ez dezala mendeku har, eta ez diezaiela erasotzaileen mezuei erantzun.
- Gorde gertatzen ari denaren frogak (ikus 12. atala).
- Hasi eta mantendu eraso gehiagoren aurrean suebaki gisa balio dezaketela jo ditugun neurriak.

Unea iristen denean, mailaz maila egin daiteke babes- eta prebentzio-ekintza, baldin ikusten bada ekintza mantenduz gero erasotzailea identifikatzeko edo hari errua egozteko aukera dagoela.

## 5.2 Ziberrerasotzaile izateko arriskuan izan daitezkeen adingabeekin

Badakigu ziberespazio delakoan, gauza asko, beharbada, ez direla izango diruditen bezalakoak, eta gerta daiteke haien egilea ere ez izatea dirudien hori. Gertaera iraingarriek guregan eragina izan arren edo guri min eman arren, ez dugu aurreiritzirik egin behar, nahiz eta iruditu oso argi dagoela nondik datozen gertaera horiek. Hain zuzen ere, engainatzea da besteei kalte eragiteko on-line ezkututzen direnen espezialitatea. Esan daiteke, sarritan, “engainua dela lehendabiziko kaltea”. Izan ere, oso ohikoa da beste inoren nortasuna erabiltzea, dela erasotzailearen nortasuna ezkutatzeko, dela zirikatzetik bertatik eratorritako eragozpenak eta gehiago eragiteko, edo bietarako. On-line oso erraza da beste pertsona bat garela pentsaraztea. Horretarako, nahikoa da ordeztutako pertsonaren gakoak erabiltzea, aurrez eskatuta edo lapurtuta.

Oro har, ziurtzat jotzen dira bi kontu: alde batetik, nor diren irain-egileak, salbu anonimoa edo ustekabekoa bada eta ustezko errudunak nor diren adieraziko digun aurrekari edo aztarnarik ez badago; eta, bestetik, ekintza aurretiaz pentsatua dela, kalte eragiteko helburuarekin.

Era berean, gerta daiteke ekintza egin zuenak ez jakitea zer-nolako eragina izan zuen ekintzak, eta orain prest izatea bitarteko guztiak erabiltzeko egin zuena konpontzeko. Kasu hori ez genuke joko aurrez pentsatutako jazarpentzat, zoritzarreko gertaeratzat baizik. Ez dugu pentsatu behar, halaber, errealitate osoa ezagutzen dugunik. Ziberespazioan hainbat bide dago, eta elkarren segidan egin daitezke bideak; baina baita txandaka eta paraleloan ere. Beti da ona zuhurtzia-tarte bat uztea eta zalantza txiki bat izatea.

Horregatik, oso gomendagarria da, ahal bada, egiaztatzen saiatzea jazarleak badakiela kaltea eragin duela eta badakiela zein ekintzak sortu duen kaltea, eta ekintza kaltegarria nahita egin duela, hau da, ez dela oharkabetasun edo arduragabekeriaren ondorio izan.


Neska-mutil horiekin honako neurri hauek har daitezke, bestek beste:

- Jakinarazi halako egoerak eten behar direla.
- Ohartarazi oso garrantzitsua dela egoerari heltzea.
- Ez saihestu arazoa, eta hitz egin harekin, pentsatzen duenaren gainean.



- Eztabaida egin ziberbullying-egoerek biktimentzat zein erasotzailentzat dituzten ondorio kaltegarriei buruz.
- Jakinarazi garrantzitsua dela barkamena eskatzea eta egindako kaltea konpontzea.
- Familia eta ikastetxea harremanetan jarri, arazoa ezagut dezaten eta horri hel diezaioten.
- Hitz egin lagunei eta denbora librean egiten dutenari buruz.
- Esan lagunak izateko ez dela beharrezkoa etsairik izatea.
- Ez errudun sentiarazi, baina lagundu bere jokabidea aldatzen.
- Ulertarazi helduengan eta parekoengan islatzen dela bera.
- Era positiboan sendotu egiten dituen aldaketak, txikiak eta hutsalak direla eman arren.
- Gogoan izan une zailak igaroko dituela, konpromisoetako batek ohiturak aldatzea badakar berekin; eta lagundu.





#### IV. KAPITULUA

# **Nola jokatu ziberbullying- kasuetan**

Behin ziberbullying-kasua detektatu eta gero, zuzendariak ikuskatzai-leari baieztatu behar dio, eta bien artean erabakiko dute zer neurri hartu behar den. Horretarako, aholkularitza eska diezaiokete ikastetxeko aholkulariari edo orientatzaileari, eta Berritzeguneko erreferentziatzeko aholkulariari. Horiek laguntza eman diezaiokete, bereziki esku-hartze berariazko eta espezializatuagoa behar denean.

Hartu beharreko neurrien oinarriek honako helburu hauek izan behar dituzte: jazarpena amaitzea, biktima babestea, egindako kaltea konpontzea eta hezkuntza-neurri zuzentzaileak ezartzea erasotzaileei; neurri horien artean hezkuntzakoak gailendu behar dira. Nolanahi ere, beti zainduko da ikastetxeko kulturarekiko koherentzia eta ikastetxeko araudia beteko dela.

Ikastetxeren batean ziberbullying-kasuren bat gertatzen bada, honako ekintza hauetako zenbait sustatu beharko lirateke:

- Gogoeta orokorra, ikastetxeko bizikidetzaren kalitateari buruz; bizikidetzarako printzipio demokratikoen barruan, ez dira ahaztu behar oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzea, bai eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ere, eta sexuagatik inor ez diskriminatzea ere.
- Tutoretza Plana eta Bizikidetzeta Plana berraztertzea.
- Bitarteko elektronikoen bitartez (Internet edo telefono mugikorrak) sortutako gatazkak konpontzeari buruzko prestakuntza ematea irakasleei; eta nabarmendu zein diren adingabeek halako bitartekoak erabiltzen dituztenean sortu behar dituzten elkarrekintza sozial eta pertsonal egokiak.
- Ikasleei prestakuntza ematea IKTak modu positiboan erabil ditzaten, eta kritiko izan daitezen sexua eta/edo beste edozein izaera dela-eta duintasun txikiago edo handiagotzat jotzen dituzten edukiekiko, edo sexu-objektu soiltzat jotzen dituztenekiko; eta kritiko ager daitezen, halaber, pertsonen eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo indarkeria erabiltzera bultzatzen dutenekin.
- Ikasleen batzordeak sortzea, on-line eta off-line egiten duten bizikidetzeta hobetzeko inplika daitezten.
- Salaketak, erreklamazioak eta kexak jasotzeko egiturak eta baliabideak sortzea eta hedatzea: iradokizunen postontzia, posta elektronikoa, berariazko webgunea, telefono laguna, eta abar. Bitarteko elektronikoen ematen duten anonimo izateko aukera, orain, lagungarri izan daiteke.

Jazarpena bukaraztea bezain garrantzitsua da jazarpena aurreikus-  
tea. Horretarako, lagungarri dira Tutoretza Plana, Bizikidetza Plana,  
ikastetxeko antolakuntza eta esku-hartze aringarria, isiltasunaren  
legea betetzen duten edo ziberrerasoetan laguntzen duten ikasleen  
taldearen egitura morala berrezartzen laguntzeko. Beraz, honako  
ekintza hauetako zenbait egin beharko lirateke:

- Gaitu eta motibatu, ikaskide baten sufrimendua “txibatzea” eta sufrimendu hori “salatzea” bereiz dezaten.
- Ikasgelako harreman-giroaren jarraipenak egin, eta beti saiatu sartzan Interneten eta telefono mugikorren erabilera egokia, gai gisa.
- Trebetasun sozialei buruzko programak egin, eta nabarmendu Internet behar bezala erabiltzeak trebetasunak hobetzen lagun dezakeela.
- Giza-, gizarte- eta moralaren garapenerako programak abiarazi, Interneteko tresnen laguntzarekin.
- Elkarrizketak egin haur eta nerabeekin, lagunei buruz eta lagunekin egiten dituzten gauzei buruz.
- Interneten eta telefono mugikorren potentzialtasunen eta arriskuen azterketa egin.
- Internet eta telefono mugikorra nola erabiltzen dituzten aztertu.
- Elkarrizketa egin, ziberbullyingari loturiko arazoez duten iritzia eman dezaten.
- Azalpenak eman, ikus dezaten gertatzen ari diren gauzak ez direla beren erruz gertatzen ari, baina lagun daitekeela berriz gerta ez daitezen.
- Ingurukoei sufri ez dezaten laguntza emateak duen garrantziari buruzko gogoeta sustatu haur eta nerabeekin.
- Bullying- edo ziberbullying-kasu posibleren bat ezagutzen badu, gurasoei eta irakasleei jakinaraz diezaioten bultzatu.
- Beren autoestimua eta autokonfidantza indartu.
- Behar bezalako arreta eta ardura eskaini, ohiko ohiturak eta jokabideak aldatzeak une zailak igarotzea ekar baitiezaieke; beraz, laguntza eman behar zaie, aldaketa horiek sustatzeko.
- Egiten dituzten aldaketak balioetsi, baldin ziberbullyinga errotik kentzen laguntzen badute, txikiak eta hutsalak direla eman arren.

- Programak eta/edo jarduerak bultzatu, hain zuzen, ikasleak gaituko dituztenak emozioak eta pertsonen arteko harremanak gindatzeko, eta aukera emango dietenak gatazkak ebazteko indarke-riarik gabeko metodoak ezagutzeko eta aniztasun, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasun, tolerantzia, gizarteratze eta/edo heziketa afektibo sexualaren balioetan oinarritutako biziki-detza-ereduak ikasteko.
- Honako hauen aurrean jarrera kritikoa izan dezaten sustatu: jokabide oldarkorra, jazarpena, hizkuntza zakarra, eta pertsonak, bereziki emakumeak, umiliatzen dituzten irudiak sustatzen dituzten Interneteko espazioak eta edukiak; baita emakumeak objektu sexual huts gisa hartzen dituzten espazioak ere.

Gehienetan, neska edo mutil bat ziberbullyingaren biktima dela egiaztatzen denean, ordurako egiten arituko dira haurra babesteko eta ahalik modu hobereanean garatzeko zenbait ekintza. Halaxe egitea gomendatu dugu aurreko kapituluan, babes-ekintzei buruzko atalean, eta jarraitu beharreko ildoak zehaztu ditugu.

Hala ere, behin biktimizazio-egoera egiaztatzen denean, tutoreak (irakasle-taldearekin batera), zuzendaritza-taldeak eta komenigarri joko diren aholkulariek balioztatu behar dute ea egokia den ala ez berariazko zenbait neurri hartzea. Neurri horiek, ikasle guztiekin egindakoekin batera, indartu egingo dute ikastetxearen erantzuna, xedetzat hartuta jazarpen-egoera geldiaraztea, biktimari laguntza ematea, segurtasuna eta laguntza ematea eta lagungarri izan dakizkiokeen zenbait trebetasun lantzea, bai eta gainerako neska-mutilek berarekiko duten sentikortasuna eta enpatia indartzea ere. Neurri horien artean ezar daiteke, esate baterako, ziberaholkularien programa bat. Programa horretan, Internet eta telefono mugikorrek ondoen erabiltzen dituzten neska-mutilek biktimei irakatsiko diete nola funtzionatzen duten, nola prebenitu zenbait motatako ziberjazarpena, eta nola erabili modu positiboan.

Nolanahi ere, ikastetxeko aholkulariak eta orientatzaileak edo, halakorik ez badago, Berritzeguneko kideren batek, biktima den neska edo mutilaren jarraipena egingo du, eta profesional batengana eramatea egokia den ala ez ebaluatuko du.

Bestalde, biktimari eta haren familiari erabilgarri dituzten askotariko aukeren berri eman behar zaie (salaketa komisarian, salaketa fiskaltzan, kexa Arartekoari, kexa Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzan baldin genero-indarkeriarik badago, eta abar). Horrela, aukera izango dute beren inguruabarretarako egokientzat joko duten bidea hautatzeko.

### 8.1 Ziberbullying-egoeretan tartean izan daitezkeen neska-mutilen (erasotzailea-biktima) familiekin egin beharreko jarduerak

- Ezinbestekoa da nolabaiteko eragina jasan duten familia guztiekin harremanetan izatea, eta lankidetzan jardun dezaten eskatzea, beren seme-alabek gizartean eta hezkuntzan aurrerapen egokia izan dezaten.
- Seme-alabek on-line edo telefono mugikorren bitartez egiten duten jarduera ororen jakitun izan behar dute familiek. Zenbait gurasorentzat bi bitarteko horiek ezezagunak izan daitezkeenez, beharrezko bada, behar duten laguntza guztia emango zaie, guraso-bitartekotzarako estrategia egokiak ezartzeko.
- Laguntza dutela ikusi behar dute beti, aurrea har ez dezaten, horrek egoera larritu baitezake.
- Bilerak egingo dira seme-alaben portaerari eta ikastetxeak ezarriko dituen neurriei buruzko informazioa emateko. Bilerak banakakoak izango dira, eta inolaz ere ez da saiatuko errudunesten; familiei lankidetzat eskatuko zaie, Bizikidetzat Batzordeak egoki joko dituen konpromisoen bitartez.
- Familiek aukera izan behar dute egoerari buruz dituzten iritziak adierazteko. Horri esker, arazoa aztertzen lagunduko zaie; gertatutakoari garrantzirik ez kentzen ahalegindu behar da, baina ondorioak ere ez dira diren baino handiago egin behar.
- Adingabeak on-line zein off-line izan behar duen jokabideari loturiko jarraibideak eskainiko zaizkie, arazoari behar bezala hel diezaioten.
- Ahal bada, ez da familien bilera orokorrik egingo, eta ahalik eta diskrezio eta konfidentziasun handienaz jokatu da.
- Egokitzat jotzen bada, familiari orientazioa emango zaio kanpo-laguntza jasotzeko buruz, arazoari hel diezaion eta gaindi dezan.

### 8.2 Zirikatzea geldiarazteko dekalogoak. Biktimentzako aholkuak

Iseka egiten didate, mehatxatu egiten naute, hainbat modutan barrengarri uzten naute... Nola ahalegindu hori guztia saihesten? Zer urrats egin dezaket? Hona hemen kontuan izan ditzakezun hamar gomendio:



1. **Eskatu laguntza** zure gurasoei edo, hori ezinezkoa balitz, konfiantzazko pertsona heldu bati. Ziurtatu pertsona horrek ere jarraibide hauen berri duela eta ulertzen dituela, batera lan egin ahal izan dezazuen eta bere babesteko asmoa zuen aurka jar ez dadin. Egoera larria bada, kalte handiak eragiten dituelako, larriki mehatxatu zaituztelako edo sexu-eraso bilaka daitekeelako, besteak beste, salaketa jarri beharko litzateke.
2. **Ez erantzun inoiz ere probokazioei.** Hori egiteak ez dizu inolaz ere lagunduko, aitzitik, biktimizatzen ari zaituztenentzako pizgarri eta abantaila bat da. Lasaitasunari eutsi eta inoiz ere ez jokatu gehiegikeriaz edo modu oldarkorren.
3. **Ez izan ustekizunik.** Baliteke inplikaturik diruditen gorabeherak eta pertsonak, egiazki, diruditen hori ez izatea. Utzi tarte bat arrazoizko zalantzari, okerreko oinarrietatik abiatuta ekiteak arazoak larritu ditzake eta.
4. **Saiatu jazartzen zaituzten tokiak saihesten,** ahal duzun neurrian, egoera argitzen hasten den arte. Gizarte-sareak edo on-line komunitateak badira, ez da hain zaila izango. Erasoak mugikorretik iristen badira, berriz, zenbakia alda dezakezu.
5. **Babestu zure pribatutasuna.** Zenbat eta gehiago jakin zuri buruz, orduan eta askotarikoagoa eta larriagoa izan daiteke eragin diezazuketenean kaltea. Irudikatzen duzu zure benetako datu pribatuetan oinarritutako gezur bat, barregarri uzten zaituena, zure horman jarriko balute? Zer gertatuko litzateke norbaitek zure izenean zure lagunak irainduko balitu? Horrenbestez, konfiantza osokoak ez diren pertsonen zure on-line bizitzako ateak ixteko ordua da. Horretarako:
  - a. **Arrotzak ekidin.** Horretarako bi urrats hauek eman behar dituzu, ordena honetan:
    - a.1. Aztertu zure ordenagailua sakonki, software gaiztorik (troianoak, spywarea) ez duzula ziurtatzeko, mehatxatzen ari zaizkizunei abantailak eman diezazkieke eta. Horretarako tresnak doan lor ditzakezu [www.osi.es](http://www.osi.es) atarian. Garrantzitsua da.
    - a.2. Aldatu erabiltzen dituzun on-line zerbitzuetako sarbidegakoak. Egizu hori aldi-aldi, eta gogoan izan gako berriak asmatzen zailak izan behar dutela, zenbakiz eta hizkiz osatuak.
  - b. **Garbitu kontaktuen zerrenda.** Berrikusi eta murriztu gizarte-sareetako (edo beste on-line taldeetako) harremanen zerrenda.

- c. **Birkonfiguratu gizarte-sareetako** edo parte hartzen duzun antzeko taldeetako pribatutasun-aukerak, zorrotzagoak bilakatzeko. Baietsi aukera horiek nola dabilzan eta zein ondorio dituzten badakizula.
  - d. **Ikusi zer esaten duten zutaz sarean.** Bilatu beste pertsona batzuek zuri buruz plazaratutako informazioa, eta saiatu esandakoa ezabatzen, baldin eta zu mintzeko erabil dezaketela uste baduzu.
  - e. **Berrikusi zuk plazaratutako informazioa**, informazio hori nork irakurri eta, aldi berean, beste inoren eskuetan jar dezakeen jakiteko.
  - f. **Esan zure kontaktuei** zer informazio- edo irudi-mota ez duzun eremu kolektiboetan argitaratzerik nahi. Babestu irudi intimoenak, halakorik bazenu, biluzik edo sexu-jarreretan agertzen zaren argazkiak, esate baterako.
  - g. **Baliatu zure datu pertsonalak babesteko eskubidea.** Zuk erabakitzen duzu zer egin daitekeen datu horiekin, baita zure argazkiarekin ere.
6. **Gorde jazarpenaren frogak** une oro, jazarpena den motakoa dela ere, gerora lagungarriak izan daitezke eta. Saiatu jazartzen ari zaizkizunak nor diren jakiten edo beren nortasuna baieztatzen, inoren eskubideak urratu gabe, beti ere.
  7. **Esan edo esaten saiatu, jazartzen ari zaizkizunei, egiten ari direnak gogaitzen zaituela**, eta gelditzeko eskatu, oldarkortasunik eta mehatxurik gabe. Gogoan izan hitz egiteko orduan ez duzula gertaerei edo egileei buruzko ustekizunik adierazi behar; hortaz, oso ondo neurtu behar dituzu zure hitzak, jendaurrean inor salatu gabe, baina inplikaturata dauden pertsonak esandakoaren berri izango dutela ziurtatzen saiatuz.
  8. Beren jarduna gelditu ez badute, **egiten ari diren hori legearen aurkako izan daitekeela jakinarazten saiatu.** Beren begiekin ikus dezaten, ondoko atarietan sartzeko iradoki diezaiekezu: [www.e-legales.net](http://www.e-legales.net) edo [www.ciberbullying.net](http://www.ciberbullying.net).
  9. Aurreko urratsaren ondoren jazarpenak gelditzen ez badira, **salaketa egiteko moduan zaudela adierazi.** Esan salaketa jartzeko froga nahikoa bildu duzula, eta nola eta non aurkeztu badakizula. Jakinarazi, orobat, erasoek jarraitzen badute poliziarengana joan beharko duzula.
  10. Puntu honetara iritsitakoan jazarpenak bukatu ez badira, **hartu legez dagozkion neurriak.**


Beti erreferentziatzen arlo horretako araudia izanik (201/2008 Dekretua, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa; Antolakuntza eta Jarduera Araudia; eta Barne Araudia, besteak beste), honako neurri hauetako zenbait hartzea erabaki daiteke:

- Barkamena eskatzea, ahoz eta/edo idatziz.
- Tutorearen kargu-hartze pribatua.
- Ikasketaburuaren eta/edo zuzendariaren kargu-hartze pribatua.
- Irakasle-taldeak berariazko zaintza egitea.
- Bizikidetzara-arauek aplikatzea, kontuan izanik erasotzaileari ordaina jasotzea ekar diezaioketenak.
- Tutoreak neurriak hartzea, erasotzailea edo erasotzaileak taldean integra daitezkeen errazteko, gainerakoaren interesak eta eskubideak errespetatuz, eta aholkulari, orientatzaile edo Berritzeguneko aholkulari espezializatuaren aholkularitzarekin.
- Abian jartzea jokabidea aldatzeko, garapen pertsonalerako eta jokabide prosozialei buruzko ariketak eta bestelakoak lantzeko programak, eta bitarteko elektronikoak behar bezala erabiltzea.
- Aldatzeko konpromisoaren bidez esku hartzea, kontratu baten bitartez. Kontratu horretan, erasotzaileak konpromisoa hartu behar du zenbait jarduera eta estrategiatan parte hartzeko, Internet eta telefono mugikorra behar bezala erabiltzeko trebetasunak hobe ditzan.
- Tartean diren ikasleen gurasoei azaltzea Adingabeak Babesteko Zerbitzuei jakinaraziko zaizkiela tartean den haurren batek guraso-ahala ez gauzatzetik edo behar bezala ez gauzatzetik eratorritako egoeraren bat jasan duelako frogaren bat erakusten duten kasuak (egoera horiek jaso dira Adingabeak Babesteko Legean eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Euskadiko Legean).
- Kontuan izatea nerabe baten indarkeriazko jokabide jarraitua bera jasaten ari den familiako edo bestek eragindako indarkeria baten ondorio izan daitekeela; familia barruko tratu txarren eta/edo genero-indarkeriaren seinale izan daiteke.
- Baldin jazarpena sexuala bada, eta/edo eduki sexista, xenofobo edo homofoboa badu (hau da, emakume, gay edo lesbiana izateagatik, beste arraza eta/edo jatorri batekoa izateagatik edo antzekoengatik diskriminatzeari lotuta badago), azter liteke ea egoeria den ala ez berariazko lana egitea, besteak beste honako balio

hauek sustatzeko: aniztasuna, emakumeen eta gizonen aukeraberdintasuna, tolerantzia, integrazioa eta/edo heziketa afektibosexuala.

- Berriazko lanak egitea (Internet eta telefono mugikorra behar bezala erabiltzeari loturikoak), eragindako kaltearekin zerikusia dutenak, eskola-orduetatik kanpo eta familiaren baimenarekin.
  - Familiari lankidetzan jarduteko eskaera egitea, seme-alabek Internet eta telefono mugikorra erabiltzen dutenean erabilera zaindu eta kontrola dezaten.
  - Ikasketaburuaren aurrean agertzea, behar denean edo aldian-aldian.
  - Erasotzailea edo erasotzaileak taldez aldatzea, baldin talde fisiko berekoak badira. Bestela, jazarleari edo jazarleei eskatuko zaie ez daitezela ibili eraso duten ikaskidea ibiltzen den Interneteko espazioetan.
  - Jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea kentzea.
  - Ikastetxera joateko eskubidea kentzea, gehienez ere hiru egunez.
- Bizikidetzaren Behatokiak eta zuzendariak Eskola Kontseiluari edo Ordezkaritza Organo Gorenari prozesuaren hasieratik emango diote ikusitako egoeren eta egindako ekintzen berri, eta organo horrek baliotzatuko du hartutako neurri zuzentzaile eta orientatzaileen eraginkortasuna. Prozesua amaitzen denean, Bizikidetzaren Behatokiak salatutako egoerari eta egindako jarduerari buruzko txostena egingo du, eta Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuari emango dio.

Nolanahi ere, kontuan izan behar dira datu pertsonalak babesteari eta pribatutasuna errespetatzeari buruz indarrean dauden mugak.



V. KAPITULUA

# Sistema penalaren esku-hartzea

Azaldutako egoera eskola-ingurunean gertatzen bada, tartean diren adingabeen zaintza duten ikastetxeko edo erakundeko arduradunek ere abian jarri beharko dute hezkuntza-neurri zuzentzaileei dagokien administrazio-prozedura, lehen aipatu bezala. Izan ere, askotan, ikastetxe barruko erantzuna nahikoa izango da arazoa konpontzeko, eta ez da beharrezko ez den gizarte-alarrik sortuko. Zuzendariak izango du, Ordezkaritza Organo Gorenaren edo ikastetxeko Eskola Kontseiluaren begiradapean, gatazkak ebazteko eta hezkuntza-neurri zuzentzaileak ezartzeko eskumena. Horrez gain, ikasleen eskubide eta betebeharrak behar bezala gauzatuko direla ziurtatzeko esku hartu behar du, eta erantzun eraginkorrak eman behar ditu, honako hauek lortzeko:

- Jazarpena amaitzea.
- Biktima babestea.
- Gizarte- eta hezkuntza-lana.
- Kaltea konpontzea.

Ikastetxeetako Barne Araudian zein hezkuntza jasotzeko eskubideari buruzko berariazko legeetan jaso dira bizikidetzeta-gatazketan erabili behar diren hezkuntza-neurri zuzentzaileak. Dena den, judizioz kanpoko esku-hartzea ez da beti nahikoa izaten.

Legegileak beti arreta berezia eskatu izan die ikastetxeei, balioak transmititzean eta haur eta nerabeak sozializatzean garrantzi handia dutelako. Ikastetxeek, neurri handian edo txikian, betebeharra dute haurrengan eragina izan dezaketen ikasketak zein diren jakiteko, baina gurasoek, ez. Gurasoei, juridikoki ulertzen den bezala, ezin zaie eskatu hezkuntzako prestakuntza edo gaikuntza berezia izatea, ezin zaie eskatu hezkuntzako alderdi guztiak menderatzea eta, bereziki, semea edo alaba eskola-jazarpenaren biktima dela detektatzeko gai izatea. Hala ere, argi dago komenigarri dela gurasoen kontzientziazioa eta prestakuntza areagotzea, kontuan izatekoa baita, ziberbullyingaren kasuan bereziki, eraso gertatzen den leku fisikoak garrantzi apur bat galtzen duela.

Kasurik larrienetan, sistema penalaren esku-hartzea beharrezkoa denean, fiskalek eta Adingabeen Epaitegiek erabaki eta hartuko dituzte neurririk egokienak. Haiak izango dituzte bitartekorik egokienak azterketa-eginbideak egiteko, hala nola, aitorpena hartu eraginpekoei, biktima babesteko kautelazko neurriak hartu, edo frogak gordetzeko neurriak hartu.




3/2005 Legeak, Eusko Legebiltzarreko Haurrak eta Nerabeak Babes-  
tekoak, 50. artikuluan (eta, koerlatiboki, urtarrilaren 15eko 1/1996  
Lege Organikoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, 13. ar-  
tikuluan) xedatutakoaren arabera, pertsona edo agintari orok bete-  
behartzat du agintaritzari edo agintaritzako agenteei jakinaraztea  
adingaberen batengan eragina izan dezaketen arrisku-egoerak. Ho-  
rrez gain, berehalako laguntza eman beharko dio hala behar badu,  
jazarpen-jokabidearen ondorioak behin betiko errotik kentzeko eta  
denboran ez luzatzeko. Adingabeen eskubideak babesteari dagokio-  
nez, eskubide horiek (osotasun fisikorako eskubidea, libre izateko  
eskubidea, duintasunerako eskubidea eta abar) guztiz urratuta ba-  
daude, nahiz eta beste interes batzuk kolokan egon; tolerantziak ez  
du inolako lekurik izango, eta erabat ziurtatu beharko da ea jokabi-  
de kalte-eragilerik ba al den ala ez. Muturreko kasua bada ere, eta  
jazarria den adingabearen sufrimendua ikustea zaila izan arren (ea  
arazoren bat duen galdetzen zaionean, aitzakiak erabiltzen dituelako  
eta ez dela ezer gertatzen erantzuten duelako), jurisprudentziak es-  
katzen du arreta berezia jarri behar dela kasu horren zaintzan. Izan  
ere, ezer gertatzen ez dela erantzutea beldurraren edo jasaten ari  
den jazarpen- edo abusu-egoeraren beraren emaitza izan daiteke.  
(*Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 10/2005 Instrukzioa*).

Azaldu bezalako egoera eskola-ingurunetik kanpo ikusi bada, alegia,  
familiar ikusi bada, eta ez badakigu zehatz-mehatz nondik datozen  
erasoak, beste ezer baino lehen Fiskaltzara jo behar da, ia beti. Ko-  
misarian edo, zuzenean, Adingabeen Fiskaltzan salaketa jartzeak ger-  
tatzen denaz ohartaraziko du, eta abian jarriko dira mekanismorik  
egokienak, gertatzen ari denaren froga fede-emaileak biltzeko.


Beste bide alternatibo bat ere badago, alegia, Arartekoarengana jo-  
tzea. Hark kexaren gaineko ikerketa egin dezake, edo Justizia Admi-  
nistrazioari jakinaraz diezaioke.

Dena den, eta ziberbullying-kasua ikastetxean zein handik kanpo iku-  
si, argi dago biktimarekiko erantzukizuna ez dela soilik adingabe era-  
sotzailearena; helduek ere jardun beharko dute, “familiako guraso  
onek” izan behar duten ardura erakutsiz (ikus Kode Zibileko 1104. eta  
1903. artikulua, aipatutako lege-xedapenetan), eta ekintzen larritasunak  
eskatzen duen berehalakotasunez eta irmotasunez.

Logikoa da orain arteko epaiek helduei dagokien arretaz jardun behar  
dutela galdatzea, erantzukizunak eta mugak ezartzeko ikuspegitik,  
hezkuntzako edozein plangintzaren oinarriak baitira.








## VI. KAPITULUA

# Ziberbullying-ekintzak identifikatu eta egiaztatzea

Ustez ziberbullying-ekintza bat izan daitekeela ikusten denean, gertakarian tartean diren inguruabarrak eta agenteak identifikatu behar dira, eta haien ezaugarriak aztertu behar dira. Hori oso baliagarria izango da, batetik, gertatzen dena hobeto eta oso-osorik ezagutzeko, arazoari aurre egiteko helburuarekin; eta bestetik, gertakarien bali-zko ikerketa egiteko. Ikerketa agintariek egin dezakete, edo tartean diren pertsonak edo profesionalak.

Oro har, komeni da lor daitezkeen **frogen artxiboa** egitea eta, jarraian, zenbait **neurri tekniko eta administratibo hartzea**.

Kasu jakin batzuetan, **legezko neurriak** har daitezke. Halako prozedura hasteko, gertatutakoa frogatuko duen eta lor daitezkeen ahalik eta dokumentazio-oinarri sendoena izan behar da.





Aldez aurreko urratsa da gertakariaren frogak gordetzea, gure esku dauden froga guztiak. Baldin jotzen badugu kontua oso larria dela eta bide judizialari eta polizialari zuzenean hasiera eman behar zaiola, orduan gomendagarri da notario batek esku har dezan eskatzea, digitalki artxibatu dugunaren fede eman dezan notario-akta batean, auzitegiko peritua tartean delarik edo haren esku-hartzerik gabe. Bestela, hasiera batean ziberjazarpena egin den on-line foroko, blogeko edo sare sozialeko administrazioari kexa bat egitea nahikoa dela jotzen badugu, eduki iraingarria ken dezaten eskatuko diogu. Gero, edo horrekin batera, bide judizialera jotzea ere egoki izango da (adibidez, baldin abusua behin baino gehiagotan egin bada, gero eta larriagoa bada, edo abusua egin den webgunearen arduradun teknikoek laguntzen ez badute). Hortik aurrera, eskeman jasotako ildoetara jarraitu beharko zaie. Prozesu judizialean, ohikoa izaten da frogak eskatzea kasuarekin zerikusia duten zerbitzu teknikoaren edo webgunearen arduradunetara (telefonía mugikorraren konpainia, esate baterako). Gerta daiteke, halaber, zigor-epai judizial batek tartean diren edukien administratzaileak behartzea kautelazko neurri tekniko zehatzak hartzera (beheragoko lerro-ildoak).

Oro har, hiru modu daude mota horretako frogak lortu eta gordetzeko, eta modu bakoitzak baliozkotasun-maila edo gertatutakoa frogatzeko maila bat du:

- **Mekanismo zuzenak**, Interneten erabiltzen ditugun programetan edo ordenagailu pertsonal gehienetan erabilgarri dauden programetan sartuta daudenak. Programa eta aplikazio askok aukera ematen dute grabatzeko edo gordetzeko iristen zaigun edo Interneten izaten dugun on-line elkarrekintzan sortzen den informazioa. Hala ere, kontu izan behar da, programa guztiek ez baitute aukera ematen eta guztietan ezin baita mota guztietako informazioa grabatu. Beraz, kasu zehatz bakoitza aztertu behar da.
- **Berariazko softwarea erabiltzea**; funtzio horretarako pentsatutako softwarea erabiltzea, edo erabilera zabalagoa duten beste batzuk, aipatutako helbururako aukera bereziki interesgarriak eskaintzen dituztenak. Hor sartuko lirateke gero aipatuko ditugun programa kapturatzailerak edo monitorizazio edo guraso-kontrolerako programak.
- **Hardware eta softwaretik haratagoko jarduerak**; berme handiagoa emango digute lege-arloan eta arlo judizialean. Halako jardueretako bat izango litzateke, esate baterako, auzitegiko perituaeren txostena.

Adierazi behar da dela zuzeneko mekanismoen bidez, dela ad hoc softwarea erabiliz sistematik lortutako froga oro alda edo honda daitekeela, formatu digitalean jaso delako. Halakorik egiten bada, gerta daiteke froga gisa garrantzia galtzea eta judizialki "seinale"tzat jotzea eta, beraz, indartu egin beharko dira beste mota bateko frogak sendoagoekin.

Labur esanda, kontua da jazarpena izan dela eta jazarlea nor den erakusten duten datu ahalik eta gehien jasota gera daitezen lortzea. Erabakigarri izan daiteke, orobat, jakitea erasotzaileak zein prozedura erabili duen eta zein unetan egin duen ekintza.

Ziberjazarpenaren ebidentziak artxibatze askotariko euskarriak erabil daitezke; hala nola, fitxategiak, irudiak, argazkiak, kopia inprimatuak, notario-aktak, adituen txostenak, eta abar. Ziberjazarpena nork egin duen jakiteko, hasteko, bere ordenagailuaren IP helbidea aurki daiteke, edo telefono-zenbakia, baldin telefonoa erabili bada erasotzeko. Azterketa horiek egiteko, maiz, beste batzuegana jo behar izaten dugu (bide judizialek, normalean): esate baterako, beharbada, ordu jakin batean zerbitzari zehatz baten webgune ja-

kin batera zerbait idazteko zein IP helbide sartu zen azter dezakegu (ordenagailu bakoitza IP baten bidez identifikatzen da Internetera konektatzen denean). Halakoetan, zenbat eta lehenago jarri salaketa, orduan eta lehenago jo ahal izango du epaileak enpresa hornitzailearengana (Internetarako konexioa egiten duenera, web-enpresara, webmail enpresara, blog-enpresara, foroetakoetara, telefono-konpainiarenera eta abar), identifikatzeko aukera emango duen datua eskatzeko. Legean xedatutakoaren arabera, Internet-hornitzaileak ez daude behartuta zerbitzarietara sartzeko logak gordetzera hamabi hilabete baino gehiagoz. Beraz, ez da denborarik galdu behar, baldin urrats hori beharrezkotzat jotzen badugu. Dena den, kontuan izan behar da ekintza batean zein IP izan zen tartean jakiteak ez digula bermatzen ekintza egin duen pertsona zein den jakingo dugunik; zirikadak bidaltzeko Internetera zein ordenagailutatik konektatu zen baino ezingo dugu jakin.

Hona hemen adibide erraz bat: ziberjazarle batek mehatxuak bidali ditu posta elektronikoko helbide batetik (posta elektronikoko bidez egindako ziberbullyinga). Kasu horretan, epaileak jakin dezake jazarleak erabili duen ordenagailuaren IP zein den, haren posta-zerbitzaritik abiatuz, posta elektronikoko kontu horretako mezuak zein konexiotatik bidali eta jasotzen diren gordeko baititu zerbitzariak, bai eta, agian, posta elektronikoko kontu horri loturiko erabiltzailearen izen-abizenak ere. (ikus 1. eranskina: Ohar orokorrak).

Gainera, baldin eraso on-line ikusgai badago, eta nahiko larria dela uste badugu, agintari eta profesionalengana jo dezakegu, jazarpenaren helburua edo edukiak egiazta ditzaten:

- Komisariara jo eta salaketa jarri; salatu nahi ditugun edukiak dituen URL helbidea eman behar dugu, eta edukia erakusten duen pantailaren irudia edo kaptura inprimatuta erantsi. 2. eranskinean azaldu da salaketarekin batera zein dokumentu-mota ematea komeni den.
- Notarioarenera joan, jasota gera dadin web-orri jakin bateko edukia, egun eta ordu zehatz batean (notario-akta). Notariotzetan, ohitzen ari dira mota horretako zerbitzuetara, eta jarraitu beharreko prozeduraren berri eman diezagukete. Webguneetako informazioa aldakorra denez, oso gomendagarria da aipatutakoa egitea, larri samarrak diren kasuetan.
- Baldin informazioa ez badago edozein internautak publikoki ikus-teko moduan, notarioaren beraren aurrean sar gaitezke orrira (we-

bmailera, sare sozial bateko erabiltzailearen kontura, eta abar), eta datua erakuts diezaiokegu (esate baterako, administratzaile garenez, guk bakarrik ikus dezakegun gure blogean egindako iruzkin baten IP helbidea), edukia kaptura dezan eta akta egin dezan.

- Kaptura horiez gain, komenigarri da irainak (testua edo argazkia) zer eragin duen hitzez deskribatzea, bai eta salatu diren gertakarien kontaketa kronologikoa ere. Bereziki, zaila da multimedia edukiak edo eduki bizidunak kapturatzea eta paperean irudikatzea, ezinezkoa ez bada, eta horrek zaildu egiten du frogak dokumentatzea. Notariotzan bertan egin daiteke deskribapena. Peritu bati laguntza eska diezaiokegu, berak esan baitiezaguke zein den erarik hoberena edukia jasota gera dadin.
- Orobat, delitu teknologikoetan eskumena duen Estatuko segurtasun-zerbitzuren bati mezu elektronikoren bat bidal diezaiokegu (jaso izanaren agiriarekin), dela, kasu zehatza azaldu eta gero, aholku eskatzeko, dela salaketa jartzeko. Hala eginez gero, guk geuk bertara joan beharko dugu, salaketa sinatzeko.

## 12.1 Jazarpena posta elektronikoen bidez

Mehatxuak, irainak, derrigortzeak eta edozein motatako mezuak jaso ditzakegu.

### FROGAK ARTXIBATZEA

- POP programaren bat erabiltzen badugu (posta elektronikoko bezeroa edo cliente programa; Outlook, esate baterako), fitxategi independente bat sor dezakegu. Fitxategi horretan mezua gordeko da, goiburu guztiekin (Interneten, gureganaino iritsi arte, zerbitzariz zerbitzari jarraitu duen bidearen datu teknikoak; horrek aukera eman dezake bide judizialaren bidez ikerketa hasteko, eta ikerketaren bitartez jakin daiteke zein ordenagailutatik bidali den).
- Baldin webmail zerbitzuren bat erabiltzen badugu, guk zerbitzu horretan sortuko dugun karpeta batean ere gorde dezakegu edukia (gero, eskatzen badigute, agintari judizialei karpeta sartzeko aukera eman diezaikegu), edo sarrerako karpeta utz dezakegu. Webmailak, halaber, aukera eman diezaguke mezuen goiburu osoak ikusteko (zerbitzu guztiek ez dute aukera hori eskaintzen; dena den, gehien erabiltzen direnek eskaintzen dute).
- Nolanahi ere, komenigarriena da, mezua gordetzeaz gainera, paperean inprimatzea, kontuan izanik goiburu guztiak ikusten direla.
- Baldin kasua larritzat jotzen bada, eta delitua dela erabaki bada, aipatutakoez gain lege-balio handiagoko neurriak ere har daitezke: esate baterako, ordenagailua piztuta utzi eta auzitegiko informatika-zerbitzu baten edo notariotzaren premiazko laguntza eskatzea, froga modurik osoenean jasota gera dadin, ondorio juridikoetarako. Baldin mezu elektronikoa web-zerbitzuren baten bidez jaso bada (webmail) eta ez bada POP bidez erabiltzailearen ordenagailura jaitsi, ez da zertan ordenagailua piztuta utzi, mezua ez baita ordenagailura jaitsi; posta-zerbitzarian on-line egongo da.
- Baldin monitorizazio edo guraso-kontrolako programa edo zerbitzuren bat badugu, eta automatikoki gordetzen baditu jasotzen ditugun mezu elektronikoak, programa edo zerbitzu horretara jo dezakegu, mezua gorde dela egiaztatzeko.

### NEURRI TEKNIKOAK ETA ADMINISTRATIBOAK

- Birbidali mezua erasotzaileak jarduten duen lekuko erreferentziako domeinuko postmaster@..., abuse@... eta/edo support@...

helbidera. Helbide horietara bidaltzen dira posta-kontu horietako erabiltzaileekin izaten diren arazoak; nolabaiteko izatezko estandar dira. Adibidez: baldin killer666@yahoo.es helbide elektronikotik mezu bat iritsi bazaigu, eta mezu hori salatu nahi badugu, gure kexa bidal dezakegu abuse@yahoo.es, postmaster@yahoo.es edo support@yahoo.es helbideetara. Aipatzekoa da neurri horrek ez duela inolako eraginik izaten, normalki, foro, txat edo antzekoak ez badira.

- Beste bide bat da domeinu horri loturiko webgunera jotzea, eta harremanetan jartzea administratzaileekin, abusuei buruzko estekaren baten bidez. Laguntza (Ayuda) edo Harremanetarako (Contacto) ataletan izan ohi dira esteka horiek. Aurreko adibidean, <http://www.yahoo.es> webgunera sartu beharko genuke, eta harremanetarako orrialdea bilatu: Laguntza-> Posta-> Jarri gurekin harremanetan-> Jarri Bezeroaren arretarako zerbitzuarekin harremanetan (erantzuna eskatzen dut) [Ayuda -> Correo -> Contacta con nosotros -> Contacta con Atención al cliente (se requiere respuesta)].

## 12.2 Jazarpena webgunean

Baldin jazarpena web-orri batean badago eta jendeak, oro har, egiazta badezake, alegia, edozein internautak ikusteko moduan badago (edo atari batean erregistratuta dagoen erabiltzaile talde batek, adibidez; horrek esan nahi du hamar bat lagunek edo hainbat milioi erabiltzailek ikusteko moduan dagoela), hainbat gauza egin ditzakegu:

### FROGAK ARTXIBATU

- Web-orriak dinamikoak dira, eta segundo gutxitan alda daitezke. Beraz, web-orri batean gertatutako abusua jasota gera dadin, batez ere delitua dela jotzen badugu, abusuaren edukia inprimatu behar dugu berehala, edo edukiari buruzko informazioa bildu. Eta, kasuan kasu, notariotza batera joan, on-line dagoen edukiaren fede eman dezan une jakin batean, oro har, web-orria jendea-ikusteko modukoa bada, zein pribatua delako soilik gako edo login baten bidez ikus badaiteke. Aukera hori oso baliagarria da fitxategia entzutekoa edo ikus-entzunezkoa bada, eta artxibo digitala baino ezin bada gorde.
- Komeni da informazioa gure disko gogorrean gordetzea. Garrantzitsua da informazio osoa gordetzea, hau da, estiloak eta irudiak




barne, disko gogorretik irekitzen dugunean jatorrizkoaren (on-line) ahalik eta modurik berdintsuenean ikus dezagun; esate baterako, pantaila kapturatu eta irudi gisa gorde daiteke. Scroll aukerarekin kapturatzeko, hots, pantailan dagoen guztia kapturatzeko, nahiz eta guztia ikusteko pantaila beheara mugitu behar, hainbat programa erabil ditzakegu (2. eranskinean aipatu dira).

- Ahal den neurrian, garrantzitsua da gordeko diren frogetan jasota gera dadin nor den erasotzailea, ahalik eta informazio gehienarekin. Hau da, izen edo helbide elektronikoko batekin sinatutako iruzkina bada abusua, edo ezagutzen dugun IP batetik egin bada, saiatu behar dugu datu horiek ager daitezen inprimatutako frogan edo notarioak egiaztatutako frogan. Nolanahi ere, webguneko edo zerbitzuko administratzaileei edo, kasuan kasu, epaileari esku har dezan eskatzeko, interesgarria da egilearen nickname edo izena ezagutzea, horren atzean nor dagoen iker dezaten.
- Baldin abusua orri irekietan egin bada (beste internauta batzuek ere ikus dezaketen orrietan), orri horretako parte-hartzaileei ere eska diezaiekegu aipatutako edukiaren lekukotasuna eman dezatela, eta edukia ageri den orriaren kapturak edo papereko kopiak egin ditzatela.

#### NEURRI TEKNIKOAK ETA ADMINISTRATIBOAK

- Baldin ziberjazarpena hirugarrenen ardurapeko webgune batean gertatu bada, hau da, ez guk ez ziberjazarleak administratzen ez dugun webgune batean egin bada, hirugarren horiengana jo beharko dugu, eta edukia ezaba dezatela eskatu, bai eta egilearen sarbidea blokea dezatela ere, baldin beharrezko bada.
- Webgune sozialetan –hala nola, foroak edo komunitate birtualak– Salaketa, Report, Denuncia eta antzeko izenburua duten botoiak izan ohi dira. Botoi horiek berariazkoak dira edukien edo erabiltzaileen gaineko kexak jakinarazteko. Adibidez: YouTubeko bideoen on-line sare soziala:
  - [http://www.youtube.com/safety\\_help](http://www.youtube.com/safety_help) webgunean, hainbat galde-erantzun ikus ditzakegu, eta horiek irakur ditzakegu gure arazoaren konponbidea aurkitu arte.
  - Hala ere, sistema horrek baditu oraingoz ebatzi gabeko zenbait arazo; adibidez, ezabatutako bideo bat ezabatu eta gero ere ikus daiteke bideoaren minikaptura batean denbora batez, edo denbora mugagabean.

- Bideo bakoitzak botoi bat dauka, edozein erabiltzailek salatze-ko aukera izan dezan. Erabiltzaile izanik bideoak argitara ditzakegu, baina beste ekintza batzuk ere egin ditzakegu: beste erabiltzaile batzuk blokeatu, gure bideoetan iruzkinik egiteko aukerarik ez eman, iruzkinak neurtu, eta abar.



*YouTubeko bideo batean “desegokitza jo” botoiaren xehetasuna.*

Adibidez: Tuenti on-line sare soziala:

- Komunitate horretan hiru motatako neurriak har ditzakegu erabiltzailearen baten aurka: Laguna ezabatu (baldin gure “laguna” bada), Erabiltzailea blokeatu eta Erabiltzailea salatu. Jarraian, Salatu botoian sakatuz gero agertuko den leihoa ikus daiteke:

**salatzen ari zara**

Pertsona horren laguna zara

Laguna ezabatu     Erabiltzailea blokeatu

Salaketarekin aurrera jarraitu nahi duzue?

Har ezazu kontuan zure salaketa Tuenti taldeak jasoko duela

Bakarrik gure Erabiltzaile bakoitzak betetzen ez dituen profila salatu behar dugu

Salatzeko aukera txarto erabiltzaileak zure kontuaren aurka neurri administratiboak hartzea eragin dezake

Erabiltzaile hori blokeatu egingo dugu eta nire salaketa legitimoa dela egiaztatzen dugu

*Tuenti sare sozialean “Erabiltzailea salatu” botoia sakatuz gero agertuko den mezua.*

- Laguntza-> Erabiltzaile bat gogait eragiten ari zait, zer egin behar dut? aukeran, aipatutako botoiek eskaintzen dituzten aukerak azaltzen dira.
- Erabiltzaile bakoitzaren izenaren azpian beti izango dira Aukera gehiago -> Blokeatu erabiltzailea botoiak. Laguntza-orrialdeetan azaldutakoaren arabera, azken botoi hori sakatzen badugu, Blokeatu dugun pertsonak ez du inolako mezu edo jakinarazpenik jasoko, eta ezingo zaitu berriz aurkitu Tuentin, ez zuri mezu gehiago bidali, ez eta zure profila ikusi ere.
- Nolanahi ere, soporte@tuenti.com helbidera ere mezua bidal daiteke, arazoa azaltzeko eta laguntza eskatzeko.
- Ziberbullyinga argazki batean etiketa iraingarria jarri delako gertatu bada, gure izena duen etiketa ezaba daiteke. Horri esker, ezingo da berriz etiketa erabili. Tuentin honako hau azaldu dute: argazkitik zure etiketa kentzeko aukera duzu, bai eta etiketa blokeatzeko ere; argazkian zure etiketa berriz jartzea ezinezko izango da, horrela. Halaber, argazkia igo duen erabiltzaileari eska diezaiokezu argazkia ezaba dezala. Tuentiko taldeak ez ditu ezabatzen erabiltzaileek igo dituzten argazkiak, baldin argazkiek eduki egokia badute, eduki arrazista edo pornografikorik ez badute, edo erabilera-baldintzak betetzen badituzte. Alegia, Tuentiko taldeak edukia desegokitzen jo delako jarri den salaketa jaso behar du horretarako, eta balioztatu egin behar du, argazkia ezabatu aurretik. Horretarako, argazki bakoitzaren ondoan botoi bat dago: Aukera gehiago -> Argazkia salatu. Hala ere, ez dago argi ziberbullyinga ekar dezaketenen argazkiak kentzen dituztenik: egingo duzun salaketaren kategoria aukeratu (...) behar duzu, eta, zure ustez, argazkia zergatik kendu behar dugun azaldu behar duzu. Gogoan izan: egokiak ez diren argazkiak baino ez ditugu kentzen, hala nola, eduki pornografikoa, iraingarria edo indarkeriazkoa dutenak, besteak beste. Ez duzu argazkirik salatu behar, soilik ez delako zure gustukoa. Gogoko ez duzun argazkiren batek zure etiketa badu, etiketa kentzeko aukera duzu; edo bestela, argazkia jarri duen pertsonarekin hitz egin dezakezu, eta argazkia ken dezala eskatu. Dena den, beti argudia dezakegu zibererasotzailea ez dela betetzen ari Tuenti erabiltzeko honako baldintza hau: Debekatutako erabilerak: (...) Zerbitzua erabiltzea iraintzeko, difamatzeko, beldurrarazteko, norberaren irudia urratzeko edo beste erabiltzaile batzuk jazartzeko. Nolanahi ere, horrek ez digu ziurtatzen erasotzailea komunitatetik kanporatuko dutenik

### Argazki hau salatu nahi duzu!

Bakarrik gure Erabilizko Kontuak betetzen ez dituen profilak salatu behar dituzu. Salatzeko aukera txarto erabiltzeak zure kontuaren aurka neurri administratiboak hartzea eragin dezake.

Erabilizko Kontuak irakurri ditut eta nire salaketa legitimoa dela egiaztatzen dut.

— 130143430 — Ederat

*Tuenti sare sozialean “Argazkia salatu” botoia sakatuz gero agertuko den mezua.*

- Eskuarki, on-line blog, foro edo sare sozialen administratzaileek ezagut dezakete iruzkin bat egin duenaren IP helbidea. Hori erabil liteke neurri teknikoak hartzeko, hala nola, zerbitzutik kanporatzea behin betiko edo aldi baterako (IP bidez blokeatzea), edo legezko neurriak hartzeko (IP helbidearen bitartez irits daiteke eraso egin duen pertsonarengana –alegia, haren izen-abizenak jakin daitezke- edo, gutxienez, haren ordenagailura).
- Nahiz eta jazarpena egin den webgunearen arduradunengana jo, kontuan izan behar dugu sareko beste leku batzuetan geratu ahal izan direla eduki horien arrastoak. Eduki-motaren arabera, leku batzuetan edo besteetan ikusteko moduan gera daitezke; baina aintzat hartu behar da, gutxienez, toki bat: Google bilatzailako cache fitxategiak. Berehala ezaba ditzatela eska dakieke, baina horretarako, lehendabizi jatorriko edukia ezabatu behar da: <http://www.google.com/support/webmasters/bin/answer.py?hl=en&answer=164734>
- Horrexek berak balioko du Archive.org guneko/aren WayBackMachine fitxategiaren bidez eskuragarri dauden edukiak ezabatzeko: vid. <http://www.archive.org/about/exclude.php>
- Zoritxarrez, sarea den modukoa izateak ia ezinezko egiten du eduki bat beste leku batzuetan ez dela erreproduzituko %100 ziurtatzea. Hain zuzen ere, zenbait mekanismok –RSS bidezko berremateek, adibidez– aukera ematen dute eduki bat sareko ehunka edo milaka lekutan zabal dadin.

## 12.3 Jazarpena txatean edo berehalako mezularitzan (BM)

Mota horretako datuak kapturatzea zaila izan daiteke.

### FROGAK ARTXIBATZEA

- Gertaerak larriak direnean (alegia, delitutzat ere jo daitezkeen), aholkatzen dugu ordenagailua piztuta izatea, berehalako mezularitza programa irekita, eta auzitegiko informatika-zerbitzuaren edo notarioaren premiazko laguntza eskatzea, edukiak jasota gera daitezzen eta, gainera, frogak eraginkor izan daitezzen.
- Hori da etxeko metodoen bitartez egiaztatzea zailena den bitartekoetako bat, mezuak iragankorrak direlako, eta ez direlako publikoak. Mezularitza programako log fitxategietara eta pantailaren kapturetara jo daiteke, baldin programak aukera ematen badigu eta artxibatuta baditugu. Windows Live Messenger zerbitzuan, adibidez, lagun jakin baten gainean jarri eta eskuineko botoia sakatu: -> Ikusi-> Mezuen historia (Ver -> Historial de mensajes).
- Halakoak eskuratzeko beste era bat da aurkitzea non gordetzen diren fitxategi horiek gure disko gogorrean, eta ikustea ea formatua irakur daitekeen, esate baterako, testu-prozesadore batekin edo bloc de notas programarekin. Programa eta sistema eragile bakoi-tzak leku desberdinean gordetzen du.
- Baldin txateatzeko erabiltzen dugun programak aukera ematen badu elkarrizketa gordetzeko (loga), aurrez horretarako konfiguratu beharko genuke. Normalean, aukera eman ohi dute gertatzen ari den elkarrizketa edozein unetan eskuz gordetzeko, nahiz eta automatikoki gordetzeko programa konfiguratuta ez izan.
- Bestela, beti izango dugu aukera pantailaren kaptura bat edo zenbait egiteko, edo kapturak automatizatzeke, X segundoro egin daitezzen. Berariazko programa bat erabil daiteke horretarako. Beraz, berehalako mezularitzako programaren leihoaren zenbait kaptura egingo ditugu, eta horrek aukera emango digu elkarrizketa edo, gutxienez, elkarrizketaren zatiak ikusteko. Zenbait programek aukera ematen dute pantailan ikusten dugun edozer bideo moduan kapturatzeke; hau da, pantailan agertzen ari denaren "filma" kapturatzen du.
- Baldin jaso eta bidaltzen ditugun berehalako mezularitzako mezuak automatikoki gordetzen dituen monitorizazio-programa edo

-zerbitzu bat badugu, egiazta dezakegu ziberabusua eragin duen mezua edo mezuak artxibatu direla.

- Baldin ziberbullyinga audio edo bideo bidez egin bada (berehalako mezularitzako zenbait programek duten bideokonferentzia-osagarriaren bitartez), zaila da frogak gordetzea, batez ere, baliabide horien bidez transmititutako audioa eta bideoa kapturatzeko aukera ematen duten programak izan badiren arren, iraina egin eta gero, ez dagoelako erarik emisioa atzera eramateko, graba dadin. Webcam- edo audio-programek (jolasetan, adibidez) izan ditzakete mekanismoak jasotzen ari direna grabatzeko baina, egia esan, zuzenean kapturatzeko zailagoa da, eta komeni da edukia jasota uztea eta hari buruzko informazioa jasotzea notario-akta batean.
- Dena dela, kanpo-programa bat ere erabil genezake, ikus-entzuzko datu-fluxu horiek kapturatzeko.

#### NEURRI TEKNIKOAK ETA ADMINISTRATIBOAK

- Foroek eta posta-zerbitzuek bezala, mezularitza-zerbitzuek ere helbide, botoi edo bestelako mekanismoren bat izan ohi dute, zerbitzuaren arduradunekin harremanetan jartzeko eta abusuak salatzeko.
- Adibidez, Windows Live Messenger zerbitzuak web-helbide bat ematen du, formulario batekin: <https://support.live.com/eform.aspx?productKey=wlmessengerabuse&ct=eformts&scrx=1>
- Yahoo! Messenger zerbitzuak, posta elektronikoko helbide bat ematen du: [es-messenger-abuse@cc.yahoo-inc.com](mailto:es-messenger-abuse@cc.yahoo-inc.com)
- Elkarrizketaren kopia moderatzaileei edo arduradunei bidali behar litzaieke, bai eta kapturak eta logak ere. Halaber, testua –kopia-tu eta testu-fitxategi batean itsatsita– edo bestelakorik –besterik badugu– ere bidali behar litzaieke. Beste datu batzuk ere ahaztu gabe eman behar ditugu, hala nola, txateko sala (sala zehatz batean gertatu bazen), ordua eta minutuak, zehatz-mehatz, tartean izan ziren erabiltzaileak eta abar, dagokionak egiaztapenak egin ditzan.
- Baliagarri izango litzateke, gainera, elkarrizketa ikusi zuten eta egiazta dezaketen lekukoak izatea, baldin halakorik bada.
- Ohartarazi beharrekoa da mota horretako kexak hartzen dituzten arduradunek denbora behar izaten dutela erantzuteko; beraz, ez espero berehala erantzungo dutenik.

## 12.4 Jazarpena telefono mugikorraren bidez (SMS edo MMS)

### FROGAK ARTXIBATZEA

- Ororen gainera, ez da ezabatu behar abusu-mezua.
- Abusuaren larritasunaren arabera, beharbada interesgarri izan daiteke auzitegiko teknikari edo notariotzaren batera jotzea, jasotako edukia jasota gera dadin.
- Salaketa ofiziala egin eta eginbide judizialak hasi eta gero, eska daiteke, halaber, idazkari judizialak edukiaren fede eman dezala, aurretiazko eginbideen esparruan.
- Nolanahi ere, komeni da mezua telefonoaren memorian edo SIM txartelaren memorian gordetzea.
- Erabilgarri izan daiteke SMSa hurbileko pertsoneri erakustea, edukiaren testigantza eman dezaten. Horren osagarri, mezua birbidal diezaiekezu, gorde dezaten eta segurtasun-kopia gehigarri izan dadin. Hala ere, gerta daiteke birbidalketak jatorrizko mezuak besteko frogagarritasunik ez izatea; beraz, soilik baliabide osagarri izan dadin birbidali behar da.

### NEURRI TEKNIKOAK ETA ADMINISTRATIBOAK

- Zigortzeko neurri teknikoek ez dute lekurik, igorlearen telefono-operadoreari ezin baitzaio eskatu zenbaki hori baliogabe dezan, zenbaki horretatik bidalitako eduki jakin bat dela-eta. Are gehiago, maiz, deiak edo mezuak zenbaki ezkutuarekin bidaltzen dira, eta horrek zailago egiten du igorlea identifikatzea. Hala ere, baldin nor izan daitekeen susmoa badugu, agintariek iker dezakete ea pertsona horren telefonotik bidali zaion sms/mms-rik edo deitu zaion eragina jasan duen pertsonari.

## 12.5 Jazarpena on-line bideojokoetan

### FROGAK ARTXIBATZEA

- Halakoetan, zaila izaten da frogak gordetzea, eta zaila izaten da, halaber, abusua gertatu den modua erregistratzea (ahots- edo txat-zerbitzariak, bideo-mezuak, jokoan izandako jokabideak eta abar).
- Zenbait kasutan (Xbox Live, adibidez) elkarri bidalitako mezuak gordeta geratzen dira zerbitzarian, eta gero eskura daitezke berri, abusua izan dela frogatzeko.
- Zenbait plataformatan, bada aukera pantaila inprimatzeko ere.
- Baldin beste jokalariek abusua nolabait ikusi badute, eska diezaiekegu abusuaren testigantza emateko abusuaren erantzuleen aurrian, gertatutakoa baieztatzeko.

### NEURRI TEKNIKOAK ETA ADMINISTRATIBOAK

- Normalean, on-line jokoetan ere izaten dira administratzaileak, eta jokabide-arauak betearazteaz eta jokoak behar bezala erabiltarazteaz arduratzen dira. Jokoren batek badu botoi edo esteka bat, jokalarien jokabide desegokiak salatzen. Baldin jokoak web-oinarria badu, orain arte azaldutakoa aplikatu dezakegu, web eta zerbitzarien arduradunekin harremanetan jartzeko.
- Baldin jokoak edo horiek eskaintzen dituzten enpresak Europako PEGI on-line jokabide-kodera (POSC) atxikita badaude, abusuak salatzen mekanismoak eskaintzen behar dituzte.
- Dena den, kodearen webgune ofizialak orrialde bat eman du, eta han sala daitezke kodea urratzen duten webguneak edo on-line jokoak. Hori baliagarria da baldin jokoko administratzaileek ez badie behar bezala erantzuten gure laguntza-eskaerari edo esku-hartzeari.



### 13.1 Biktimen eta lekukoek deklaratzen

Kontuan izan behar da tartean dauden adingabeen deklarazioa gako delakoa gertakariak ikertzeko orduan. Izan ere, txosten psikologikoekin eta prozesu osoan lortu ahal izan diren frogak materialekin batera, prozesatu behar diren jokabide-multzoari zentzu zehatza, espaziala eta kronologikoa emango diote. Auzitegi Gorenaren arabera, biktimen deklarazioak fidagarritasun osoa frogatzat jotzeko, epaitegiek honako irizpide hauek balioetsi behar dituzte:

1. Sinesgaiztasunik ez egotea; sinesgaiztasuna akusatuaren eta biktimaren arteko nolabaiteko harremanetik erator daiteke. Eta, hain zuzen ere, harreman horrek eragin dezake gorrotoa edo etsaitasuna sortzea bien artean. Baldin halakorik izango balitz, testigantza ez litzateke egokia izango, ziurtasun juridiko orok eskatzen duen bezalako ziurtasuna izateko.
2. Egindako egozteen sinesgarritasuna, arrazoiz sinesgarri izan dadila.
3. Bertsioak berrestea, kontatutako gertakizunak indartuko dituzten kanpoko elementu objektiboen bidez.
4. Leporatzeak irautea, hau da, akusazioak iraun dezala denboran, bertsioak ez daitezela aldatu une batetik bestera (bertsioan ez da anbigutasunik egon behar, ez eta kontraesanik ere). Izan ere, akusatuaren ustezko errugabetasunaren kontrako frogak bakarrik deklarazio bat izango denez, akusatuari aukera eman behar zaio modu eraginkorrean zalantzan jar dezan akusazioa, eta bere ustez akusazioa sinestezin egiten duten kontraesanak nabarmendu behar ditu.

Halaber, Auzitegi Gorenak adierazi duenez, edozein seinale ez da nahikoa "errugabetasun-presuntzioa" printzipio konstituzionala sustatzeko. Jazarlearen kontra azaldutakoak "arrazoizkoa" izan behar du, hau da, ez du arbitrarioa, zentzugabea edo oinarririk gabea izan behar; baina, gainera, logikaren eta esperientziaren arauak guztiz bete behar ditu, frogatutako oinarriko gertakarietatik aterata dadin egiaztatu beharreko datua, ondorio natural gisa. Bien artean «lotura zehatza eta zuzena izan behar da, giza irizpidearen arauen arabera». Hau da, (...) delitu bat egin dela erakusten duten egozketa-froga nahiko serioak daudenean, akusatuak ez badu azalpen alternatiborik ematen —azalpen hori «eskatuko» da egozketa-frogaren kontra egiteko, eta soilik akusatuak eman dezake—, ondoriozta daiteke ez dagoela azalpen alternatiborik, zentzuzko arrazoiketa soilagatik.

Bestalde, kontuan izan behar da lekukoek gertakarien gainean egingo dituzten deklarazioetan ez direla beti agertuko espero diren xehetasunak. Ohikoa izaten da nerabeek gogoko ez izatea helduei zenbait arazoren berri ematea, beren ustez, beren zeregina delako arazoa konpontzea. Eta, beraz, ikusle pasibo bihurtzen dira. Egoera horiei “isiltasunaren konspirazio” deritze, eta nolabaiteko kutsatze soziala dakarte, tratu txarren egoeran laguntzaile izatea, nahiz eta, batzuetan, jazarrien multzoan sartuko duten beldur delako soilik egiten duen hori adingabeak. “Txibatzea” kontzeptuak lankidetzan jardutea eragozten du.

Arrazoi horiek direla-eta, lankidetzak faltarik izan ez dadin eta ahalik eta lekukotasun benetakoena lortzeko, 19/1994 Legeak (abenduarien 23koa, auzi kriminaletan lekukoak eta perituak babesteari buruzkoa) xedatutako neurriak aplikatu daitezke, eta zenbait datu babes daitezke, hala nola, nortasuna eta helbidea.

### **13.2 Ebidentzia elektronikoen auzibidezko eraginkortasuna**

Ikusi dugun bezala, ziberbullying-kasuetan frogak lortzeko orduan, erabiltzen diren bitarteko teknikoek berezko zailtasunak izaten dira; besteak beste, erasotzailearen nortasuna ezkutatzeko aukerak eta eduki digitalak manipulatzeko aukerak.

Alde horretatik, garrantzitsua da gertakariak aurkezten ditugunean aurkitzen ditugun mugak ezagutzea, ebidentzia elektronikokoak frogan indargarri gisa erabil ditzagun, frogatzat hartu gabe.

Zenbait gertakari jazo direla eta ondorio kaltegarriak izan dituztela frogatzeko, kasua azaltzeko abiapuntutzat hartu behar dugu “gertaerak berregitea”. Horretarako, lehenik eta behin edukiak biltzeko bitartekoak identifikatu behar dira; edukiak kapturatu eta osorik lortzeko metodo eraginkorrak abian jartzen saiatu behar da. Eta, azkenik, ahalegindu behar gara jarduera horiek gauza daitezen, legezko moduan eta tartean diren pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatuz. Halaber, balizko prozesu judizial batean frogagarritasunik gal ez dezaten lortu behar dugu.


Gogoan izan behar dugu, behin poliziak salaketarekin batera jaso dituen frogak dokumentatu eta ikerketa egin duenean, epaileari aurkeztu behar zaizkiola. Epaileak izango du ardura frogak onartu eta interpretatzeko, eta baztertu egingo ditu oinarrizko eskubideen urratze

edo manipulazio guztiak (hala nola, jakinarazpenen isilpekotasuna, datu pertsonalak babestea eta adierazpen-askatasuna).

Hain zuzen, une horretan nabarmentzen dira ebidentzia elektronikoen izaten dituzten zailtasunak frogagarritasun osoa agertzeko, dela frogak lortzeko metodoa eta frogei buruzko informazio-bilketa eskasa delako, dela epaileak ezagutza teknikorik ez duelako edo frogak aztertzea teknikoki ezinezkoa delako, egoitza judizialean horretarako baliabide material nahikorik ez izatearen ondorioz.

Nolanahi ere, egia esan, praktikan onartzen ari dira, oro har, frogak "analogikoak" indartzeko aurkezten diren frogak elektronikoenak; hala nola, biktimaren edo lekukoen deklarazioa, perituen txosten psikologikoak edo ikastetxeko bizikidetzari buruzkoak, telefono mugikor bateko zirkulazio-datuak eta abar. Hori bai, halako frogak onartuko dira, baldin salatutako aurka egiten ez badie. Adibidez, epailearentzat erabilgarri eta nahiko baino gehiago izan daitezke aipatutakoa eta, horrekin batera, paperean inprimatutako zenbait mezu elektronikoen soil, salatutako gertaerak egiazkoak direla ziurtatzeko.





## VII. KAPITULUA

# Lege-erantzuna

Adingabeen hezkuntzaren helburu nagusia da gizartean bizitzeko aukera emango dieten balioak helaraztea, bizikidetzarako ohiturak eta elkarren oinarrizko eskubide eta betebeharren errespetua sortzeko. Eta horrek hala izan behar du, bai eskola-ingurunean, bai familian. Babestu behar da nortasuna eta etorkizunean izango duten gizarte-estimazioa era librean gara ditzatela. Horretarako, gaur egun, adingabeek elkarrekin bizitzeko duten moduaren zatitza hartu behar dira teknologiak, eta eragina dute eskolako baina ez den horretatik haratagokoak izan daitezkeen beren arteko harremanen alderdietan.

Ziberbullying-kasuetan, honako hauek jotzen dira zuzenean erantzule, eta ordena honetan: jazarpen-ekintzak egin dituzten adingabeak, gurasoak, tutoreak, edo adingabe jazarlearen legezko edo egitezko zainzaileak (ikastetxea, edo ziberbullying-kasuan tartean diren adingabeek harremanak izaten dituzten bizikidetzazentrotan, hala nola, musika, karate eta ingeles ikastaroak; udalekuetako bizikidetzazentrotan; eta abar). Helduek eta erakundeek ordaindu beharko dute jazarle izan diren adingabeek ezarriko zaizkien kalte-ordainen zenbatekoa, eta, horrez gain, beren gain hartu beharko dituzte, kasuan kasu, jaso ditzaizkien administrazioko diziiplina-zigorrak.

Adingabeen erantzukizunari dagokionez, aintzat hartu behar da adingabeak gutxienez 14 urte izan behar dituela sistema penalak esku har dezan. Adin horretatik aurrera zigor daitezke, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Lege Organikoan xedatutako neurrien bidez (5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Espainian gazteen justizia-sistemaren erantzukizuna arautzen duena). Aurrerago aipatuko dira neurri horiek. Tartean diren 14 urtetik beherakoei adingabeak babesteari buruz Kode Zibilean ezarritako arauetan xedatua aplikatuko zaie eta, normalean, zigor horiek hezkuntza-neurriak ekarriko dituzte berekin.

Bestelako erantzukizunei dagokienez, arauz, lehendabizi balioztatu beharko litzateke gurasoek seme-alaben zaintzan eta haiez arduratzean duten prestasuna. Hala ere, kontuan izan behar da adingabeek denbora gehiago ematen dutela ikastetxeetako hezkuntza-esparruan, familian baina, eta hain zuzen hezkuntza-eremu horretan izango dira normalean ziberbullyingaren elementu gehienak, presentziazko bestelako jazarpen-ekintzetatik eratorritakoak.

Alde horretatik, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzkoak, ikasleen eskubide eta betebeharrak eta ikastetxeetan elkarrekin bizitzeko arauak ezarri zituen (de-

kretu horrek garatu zuen, halaber, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea, otsailaren 19koa). Dekretuak 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, ikasleek eskubidea dute beren osotasun fisikoa eta morala, bai eta nortasuna eta duintasuna ere, errespetatuak izan daitezten, eta ezingo zaie tratu umiliagarri edo iraingarririk eman.

Era berean, eskubidea dute zeinahi eraso fisiko edo moralen aurrean babesa jasotzeko. 36. artikulua, bestalde, ikastetxeko bizikidetza larriki kaltetzen duten jokabideak zuzentzeari buruzkoa da. Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, zuzendariak zuzenduko ditu ikastetxeko bizikidetza larriki kaltetzen duten jokabideak, aurreko artikuluan jasotako neurri bat edo zenbait aplikatuz.

Are gehiago, kontuan hartu behar da aipatutako arauko 33. artikulua, ikastetxetik kanpo egindako ekintza edo jokabideen gaineko erantzukizunari buruzkoak, honako hau xedatzen duela: Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

Hala ulertu du jurisprudentiak, nahiz eta gure Kode Zibilean honako hau ezarri den: goi-mailako irakaskuntzako ez den ikastetxe baten titular diren pertsona edo erakundeek beren gain hartu beharko dute adingabeko ikasleek ikastetxeko irakasleen kontrolpean edo zaintza-pean eskolako edo eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiten dauden denboran eragingo dituzten kalteen erantzukizuna. Artikulu honetan aipatutako erantzukizuna baliogabetuko da aipatutako pertsonak frogatzen dutenean kaltea prebenitzeko familiako guraso on bati dagokion arreta osoa erabili zutela (1104 CC art.: Betebeharrak ez badu adierazten zein arreta izan behar den hura betetzean, familiako guraso on batek izango lukeena galdatuko da).

Bi kasuetan, "kontratuz kanpoko" erantzukizuna eskatzen da. Kaltea eragin duen gertaera gertatu eta egiaztatzen bada, ikastetxeak frogatu beharko du beharrezko arreta guztia jarri zuela jazarpena gerta ez zedin. Oro har, ez da beharrezko izango gurasoek egiaztatzea ikastetxeak arreta falta izan duela (1903 CC art.).

Erantzukizun zibil solidarioa edo subsidiarioa, dela gurasoei leporatu zaiena, dela gertaerekin lotura zuzena duen ikastetxeari egotzi zaiona (ezar dakioken administrazioko diziplina-zigorraz gain), azke-

nean, kalte-ordain ekonomikoa izango da, eragindako kaltearen araberakoa.

Puntu horretan, nabarmendu beharrekoa da teknologia berriek indar handia dutela, eta baliagarri direla alderdi positiboetarako; baina eragin txarrak ere izan ditzakete, baldin arretarik eta kontrolik gabe erabiltzen badira.

Zaila da zehaztea zenbateko sufrimendua izango duen haur batek ziberbulliing-egoera batean bere aurkako erasoak jasaten dituenean, babesgabe izanik babesa eman behar diotenek eman ez diotelako, eta nortasuna behar bezala garatzeko hiru gauza hauek behar-beharrezko dituen adinean: norberaren estimua, ikastetxeko ikaskide eta lagunekiko harremanek ematen dioten segurtasuna, eta bere hezkuntzaren zuzendaritza beren gain hartzen dutenen tutoretza. Hala ere, kontuan izan behar da egindako kalte moralarengatik kalte-ordaina emateak baduela nolabaiteko funtzio konpontzailea, nahiz eta zigortutako gertaeren larritasunarekiko gaitzespena adierazteko baino ez izan.

Hori guztia gorabehera, auzi penala saihesteko aukera ere badago, baldin bestelako neurri hezitzaileak ezartzen badira. Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak, adingabeen erantzukizun penala arautzen duenak, 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, aukera dago bide juridiko penala gelditzeko, salatutako gertaerak ez direnean hain delitu larriak, indarkeriarik, beldurrarazterik edo faltarik izan ez bada (Zigor Kodean edo lege penal berezietan tipifikatuak), eta bideragarri denean hain astunak ez diren baina eraginkorrak izango diren bestelako neurriak aplikatzea, hezkuntza- eta/edo familia-eremuaren barruan bertan.

Aukera hori aipatzen du, berariaz, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak (75. art.). Dekretu horretan xedatutakoaren arabera, Fiskaltzari gertatzen ari denaren berri eman behar zaionean, baldin ikaslea adingabea bada, bestelako inguruabarrak ere jakinarazi beharko zaizkio, kasuan kasu; esate baterako, hezkuntza-esparruan neurri zuzentzaileak ezarri zaiykiola, jazarriarekin adiskidetu dela, edo eragindako kaltea konpondu duela, edo horretarako konpromisoa hartu duela.

Nolanahi ere, adingabeentzat onuragarrien izango diren neurriak biltzea da kontua, gertaeren egile adingabeak direnean eta zuzendu beharra dagoenean.



Ziberbullyingaren erakusgarri izan daitezkeen ekintzak, haiek baka-rrik edo multzoan, modu irmoan zigortuko dira gure sistema penalean, eta auzitaratu egingo dira Espainiako legedian xedatutakoari jarraikiz, tartean direnen adinaren arabera. Esan bezala, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak, adingabeen erantzukizun penala arautzen duenak, zigor-arloan sartzeko gutxieneko adintzat 14 urte jo du.

Itxuraz gertaera puntual edo bakana badugu aztergai, arreta berezia jarri beharko da gertatu diren ondorioak balioztatzen: ea egindakoa egiteko estrategiarik izan den ala ez, ea erasoaren berri jendaurrean eman den, ea elektronikoki egin den testu/irudi/ahots bidez, ea egilea nor den ezkututzen saiatu den, eta abar. Alderdi horien guztien eraginez, ekintza bakar batek ondorio larriak izan ditzake jazarpena jasan duen biktimarengan (umilazioa eta gizartean bakartzea, besteak beste) eta, beraz, ekintza bakarra izan ordez hainbat ekintza edo “delitu-pilaketa” izango balira bezala jokatu behar du sistema penalak.

Adingabeko baten aurkako jazarpena dela-eta auzitaratu diren kausetan, ohiko ekintzak izaten dira irainak, kalumniak, mehatxuak, derrigortzeak, bere buruaz beste eginaraztea eta isekak (horiek eduki sexuala dutenean, berariazko beste jokabide bat izango dugu aurrean, eta sistema penalean bestelako zigorra dute halakoek).

Espainiako Zigor Kodean hiru jokaera horietako bakoitza era batean tipifikatu da:

1. **Bere buruaz beste eginaraztea.** Zigor Kodeko 143.1 art.: Norbaitek inori bere buruaz beste eginarazten badio, lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.
2. **Lesioak.** Zigor Kodeko 147.1 art.: Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, beste bati lesioa eragiten badio, gorputz-osotasunean, osasun fisikoan edo buru-osasunean kalte eginez, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, lesio-delituaren errudun gisa, baldin eta lesio hori objektiboki sendatzeko medikuntza-sendabidea edo sendabide kirurgikoa behar badu, adituen laguntzaz gainera. Adituak lesioaren inguruan egiten duen zaintza edo jarraipen hutsa ez da mediku-sendabidetzat hartuko. 2. Dena den, aurreko paragrafoan azaldutako egitatea zazpi asteburutik hogeita lau asteburu arteko atzipenaldiarekin edo hiru hilabetetik hamabi hilabete arteko isunarekin zigortuko da, baldin eta larritasun txikiagokoa bada, erabilitako bidea edo sorturiko emaitza kontuan izanik. Zigor Kodeko 148. art.: Aurre-

ko artikuluko 1. paragrafoan aipatutako lesioak bi urtetik bost urte arteko espetxealdi-zigorrekin zigor daitezke, izan duten emaitzaren edo sortu duten arriskuaren arabera: 1. Lesionatuaren bizitzarako edo bere osasun fisiko edo psikikorako zehazki arriskutsuak diren arma, tresna, gauza, bide, metodo edo erak erabili badira erasoan. 2. Ankerkeria badago.

3. **Mehatxuak.** Zigor Kodeko 169. art.: Norbaitek beste bati mehatxu egiten badio berari, beraren familiari edo berari estu loturik dauden beste pertsona batzuei kalte egingo diela, eta kalte hori bada giza hilketa, lesio- edo abortu-delitua, askatasunaren aurkako delitua, tortura-delitua nahiz osotasun moralaren, sexu-askatasunaren, bizitza pribatuaren, ohorearen, ondarearen, eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delitua, orduan, mehatxatzailea zigortu egingo da.
4. **Derrigortzeak.** Zigor Kodeko 172. art.: Norbaitek, bidezko baimenik gabe, beste bati, indarkeriaren bidez, legeak debekatzen ez duena egitea eragozten badio edo egin nahi ez duena egitera behartzen badu, zuzena izan zein ez, orduan, pertsona horri sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, derrigortzearen edo erabilitako bideen larritasunaren arabera.
5. **Tortura edo osotasun moralaren aurkako delitua.** Zigor Kodeko 173. art.: Norbaitek beste pertsona bati, beraren osotasun moralari kalte larria eginez, tratu apalesgarria ematen badio, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.
6. **Intimitatearen, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxaezintasunaren aurkako delituak;**
  - a) **Iraina.** Zigor Kodeko 208. art.: Iraina da beste pertsona baten duintasuna hausten duen ekintza edo adierazpena, pertsona horren ospeari kalte egiten diona edo haren estimazioaren aurka atentatu egiten duena. Irainak delitu izango dira, bakar-bakarrik, euren izaera, ondore eta inguruabarren arabera jendeak larritzat hartzen dituenean. Irainak ez dira larritzat hartuko gertaerak egozte hutsak badira, irainok gertaeren faltsutasuna jakinda edota egia ausartegi mespretxatuz gauzatu direnean izan ezik. 209. artikulua. Irain larriak sei hilabetetik hamalau arteko isunarekin zigortuko dira, publizitatearen bidez egiten badira, eta, bestela, hiru hilabetetik zazpi artekoarekin.
  - b) **Kalumnia.** Zigor Kodeko 205. art.: Kalumnia dago pertsona batek beste bati delitu bat egotzen dionean faltsua dela jakinda

edota egia ausartegi mespretxatuz. Zigor Kodeko 206. art.: Kalamniak sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorrarekin edo sei hilabetetik hogeita lau arteko isunarekin zigortuko dira, publizitatearen bidez zabaltzen badira eta, bestela, lau hilabetetik hamar arteko isunarekin.

- c) **Sekretuak agerraraztea.** Zigor Kodeko 197.1 art.: Norbaitek, beste baten sekretuak agerrarazteko edo beste horren bizitza pribatuaren aurka joateko, berorren adostasunik gabe, papearak, gutunak, posta elektronikoko mezuak edo beste edozein agiri nahiz efektu pertsonal harrapatzen badizkio, telekomunikazioen artean esku sartzen badio, edo trikimailu teknikoak erabiltzen baditu, soinua, irudia edo beste edozein komunikazio-seinale entzun, igorri, grabatu edo kopiatzeko, orduan, horri urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ere.

Paragrafo horretan sartuko litzateke datu pertsonalen tratamendua, bereziki, adingabeen irudiaren tratamendua (zigor daiteke hori): Zigor Kodeko 197.5 art.: Era berean, aurreko paragrafoetan azaldutako gertaerek izaera pertsonaleko datuak ukitzen badituzte, ideologia, erlijioa, sinesmenak, osasuna, arraza-jatorria edo sexu-bizimodua ezagutarazten dituztenak, edota biktima adingabea edo ezgaia bada, zigor horiek goiko erdian ezarriko dira.

7. **Inoren nortasuna erabiltzea.** Zigor Kodeko 401. art.: Norbaitek beste baten egoera zibila erabiltzen badu, sei hilabetetik hiru urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Auzitegi Gorenak honela definitu du jokabide hori: pertsona baten egoera zibila erabiltzea pertsona hura delako itxurak egitea da, haren eskubideak erabiltzeko; pertsona haren datuak, haren gurasotasuna eta ezkontza-eskubideak erabiltzea da; faltsukeria, pertsona bati aplikatua eta benetako eta egiazko beste pertsona baten lekua hartzea (...) delitua izan dadin, ez da nahikoa beste pertsona baten nortasuna beretzat hartzea, alegia, ekintza jakin baterako beste baten izena hartzea (1986ko maiatzaren 23ko Epaia).
8. **Kalte informatikoak.** Zigor Kodeko 264.2 art.: (...) Zigor bera ezarriko zaio edozein bide erabilita beste baten datu, programa edo agiri elektronikoak suntsitu, aldatu, deuseztatu edo beste edozein modutan horiei kalte egiten dienari, baldin eta horiek sare, euskari edo sistema informatikoetara bilduta badaude.

**9. Iritzi-delituak.** Zigor Kodeko 510. art.: 1. Norbaitzuek talde edo elkarteen aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragiten badute arrazakeria nahiz zio antisemitengatik, edo talde nahiz elkarte horietako kideen ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunarengatik, orduan, halakoei urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi arteko isuna ere. 2. *Zigor bera ezarriko zaie talde edo elkarteen inguruan, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mesprextatuz, informazio iraingarriak hedatzen dituztenei, baldin eta informazioa pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, edota beren kideen etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoa bada.*

Oro har, 1/1982 Legeak, maiatzaren 5ekoak, ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea eta norberaren irudia zaintzeari buruzkoak, erantzun zibila ezarri zuen adingabeen irudirako eskubideen urratzeetarako. Horien ondorio penalak, baina, irudi bat irudiaren titularrak barregarri uzteko aldatzeagatik soilik etor daitezke; izan ere, tartean sartuko lirateke “irainak” eta “sekretuak agerraraztea” motako elementuak, eta tartean adingabe bat izateak gertaerak larriagotuko lituzke. Hasiera batean, adingabeek, 14 urtetik aurrera, baimena eman dezakete beren datu pertsonalak tratatzeko, irudia barne. Hala ere, adingabearen intimitatean, ohorean edo ospean legez kontrako esku-sartzeren edo lesioren bat egiten denean, Fiskaltzak esku hartu behar du adingabearen adin zehatza gorabehera, eta gurasoak edo tutoreak horrekin ados izan zein ez.

Orobat, garrantzitsua da aipatzea helduen delituak zigortzeko indarrean den legedia, eta, bereziki, inguruabar astungarriak (Zigor Kodeko 22. artikulua). Izan ere, Adingabeen Epaitegiek ere aintzat har ditzakete inguruabar horiek, zigorrak ezartzeko. Eta are arrazoi handiagoarekin, kontuan izanik ziberbullyingean baliabide elektronikoak erabiltzean, gehienetan, ondoko inguruabarren bat edo zenbait agertu ohi direla, nahiz eta jazarleak, egiazki, jakin ez bere jokabidearen larritasuna handiago egiten dutela:

- Egindakoa maltzurkeriaz egitea. Maltzurkeria dago errudunak, pertsonen aurkako delituetatik edozeinetan, horiek zuzenean edo beren beregi ziurtatzeko asmatutako bideak, moduak edo erak erabiltzen baditu, beretzat arriskurik sor ez dadin ofendituak egiten duen defentsatik.
- Egindakoa mozorroa erabiliz nahiz nagusitasun-abusuz egitea; edo

leku- zein denbora-inguruabarrak edota beste pertsona batzuen laguntza aprobetxatuz egitea, halakoek ofendituaren defentsa ahuldu edo delitugilearen zigorgabetasuna errazten badute.

- Prezio, sari edo hitzmatearen bidez egitea egindakoa.
- Egindakoa publizitatea eginez egitea.
- Delitua egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo beste bereizkeria-mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu zein sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoa bada.
- Nahita eta bihotz-gogorrez handitzea biktimaren sufrimendua, delitua egiteko behar ez diren pairamenak eraginez.
- Konfiantza-abusuz aritzea.
- Berrerorlea izatea.

### 16.1. Kautelazko neurriak egoitza judizialean

Normalean, erakunde edo agintari eskudunek jazarpen-kasuetan kautelazko neurriak hartzea ez da justifikatu behar gizartean alarmerik ez sortze hutsarekin; oso helburu zehatzek bideratu behar dute ekin-tza hori:

- a) Biktima eta, kasuan kasu, erasotzailea babestea.
- b) Frogak lortzea.
- c) Jazarpena errotik kentzea berehala.
- d) Erasotzaileari hezkuntza-zigorra ezartzea, bere inguruabar psiko-soziofamiliarren eta egin dituen ekintzen larritasunaren arabera modulatua.
- e) Kalteak konponduko direla ziurtatzea.

Zehazki, neurriak har daitezke honako hauetarako:

#### A) BIKTIMA ETA LEKUKOAK BABESTEKO

Honako hauek izango dira 19/1994 Lege Organikoan ezarritako babes-neurriak aplikatzeko oinarriak, helduen prozesuetan bezala:

- 1) Arrazoiz arrisku larria ikustea pertsonarentzat, pertsona horren azpian babesteko asmoa duenaren ondasun edo askatasunarentzat, pertsona horren ezkontidearentzat edo pertsona horrekin antzeko afektibitate-harremana duenarentzat edo haren asabentzat, ondorengoentzat edo neba-arrebentzat.
- 2) Neurri beharrezko eta proportzionalak erabakitzea zergatia arrazoituta, dela ofizioz, dela alderdietako batek eskatuta, eta arrisku-maila kontuan hartuta; besteak beste, honako hauek:
  - a) Jarduerak isilpean mantentzea.
  - b) Egingo diren eginbideetan ez daitezela jasota gera izen-abizenak, helbidea, lantokia eta lanbidea, ez eta tartean direnak identifikatzeko balio dezakeen bestelako daturik ere. Tartean direnak identifikatzeko, zenbakiak edo bestelako gakoak erabil daitezke.
  - c) Edozein eginbide egiteko, ager daitezela modu bisual arruntean identifikatzeko aukera emango duen edozein prozedura erabiliz.
  - d) Zitazio eta jakinarazpenak bidaltzeko, jar dadila haien helbide gisa esku hartzen duen organo judizialaren egoitzaren helbidea; kasuan kasuko organo judizialak isilpean helaraziko dizkio hartzaileari.

e) Perituak biktima aztertzea.

f) Urruntze-agindua, zaintzapeko askatasuna edo barnealdia.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da aipatutakoetatik bat ere ez dela baliagarri izango baldin modu arin eta eraginkorrean jarduten ez bada, eraginpean dagoen adingabearen eskura bera babesteko era guztietako baliabide teknologiko eta juridikoak jar daitezzen. Adingabea bat polizia-etxera edo Fiskaltzako adingabeen sailera joaten denean, horrekin adierazten du ikerketan eta erantzun penalean konfiantza duela. Eta baldin ez bada erantzun azkarrik ematen adingabea modu eraginkorrean babesteko (izan daitezkeen mehatxuetatik, esate baterako), erasotzaileak egindako kaltea larriagotu daiteke, eta are gehiago ziberbullying-kasuetan, halakoetan ez baita beharrezko hurbileko harreman fisikorik, kaltea eragiten jarraitzeko (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 10/2005 Instrukzioa).

## **B) ERASOTZAILEA BABESTEKO:**

Gogoan izan behar da ziberbullyingaren egilea ere, normalean, adingabea izaten dela eta, hortaz, hark ere izango ditu eskubide konstituzionalak; zehazki, babes judizial eragingarria izateko, askatasunerako eta segurtasunerako, osotasun fisikorako eta moralerako eta hezkuntza jasotzeko eskubideak.

Baldin beharrezkoa bada erasotzailea babesteko kautelazko neurriak hartzea, jar dakizkiokeen hezkuntza-neurri zuzentzaileek bezala, kautelazkoek ere proportzionatuak eta ikusiko diren arau-hauste edo delituen izaeraren eta kopuruaren arabera izan behar dute. Gainera, erreferentziatzat hartu behar da arau-hauste edo delituetako larriena eta adingabearen interesa. Edonola ere, neurriek bateragarri izan behar dute haurren giza duintasunarekin. Ez da ezarriko soilik kaltea bueltatzeko den neurririk eta/edo errepresio-neurririk; adingabearen heziketa eraginkorraren alde egingo duten neurriak ezarriko dira, etorkizunean berriz gizartera dadin, jarraian azaldutako zentzuan (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 10/2005 Instrukzioa)..

## **16.2 Zigor penalak**

Adingabeen jurisdikzioan erasotzaileari emango zaion erantzunak buru-buruan izan behar du Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen Lege Organikoan aipatutako hezkuntza- eta sozializatzeko filosofia, eta ez zaie eraginpean dauden adingabeei bizi guztirako etike-

tarik jarri behar edo ez dira estigmatizatu behar. Konponbide indibidualizatuak, kasuaren araberrakoak eta kasu bakoitzeko inguruabar zehatzekin bat datozenak bilatzen saiatu behar da (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 10/2005 Instrukzioa). Gutxieneako esku-hartze penalaren printzipioa bete behar da; lehendabizi beheko instantziei utzi behar zaie jardun dezaten, eta hezkuntza-neurri zuzentzaileak ezarriko dituzte.

Hala ere, hori ez denean nahikoa, jurisdikzio penalak zenbait neurri ezartzen ditu, nagusiki hezkuntzakoak, eta neurri horiek balio behar dute adingabe inputatuek izan duten jokabidea barnera eta baliozta dezaten. Izan duten jokabideak biktimarengan zer-nolako ondorioak eragiten dituen ulertu behar dute, eta beren trebetasun sozialak areagotu behar dituzte neurriok. Honako neurri hauek ezar daitezke:

1. **Asteburuetakoko egonaldiak.** Neurri askatasun-gabetzailea da, jazarlearen bizilekuan gauzatzen da eskola-orduetatik kanpo eta, horri esker, ez da nahasten jazarleak etiketatua ez izateko duen eskubidea; gainera, neurria betetzen duen denbora-tartean lan soziohezitzaileak egin behar ditu eta, beraz, ez da jotzen neurri soilik errepresiozkotzat.
2. **Lan soziohezitzaileak egitea.** Zigor hau ezartzeko ez denez behar adingabearen onespenerik, gizartearentzat egiten diren lanen alternatibatzat erabiltzen da, antzeko funtzioa duelako, alegia, gogoeta eraginarazteko funtzioa. Adingabearen eskolako jarduera oztopatuko ez duen orduetan jarri ohi dira, ikastetxean bertan “jazarletzat” jo ez dezaten. Lan horietako batzuk honako hauek izan ohi dira: lantegi okupazionaletara joatea, lanerako hezkuntza jasotzeko gelara joatea, eta animazio soziokulturaleko jarduerak egitea.
3. **Gizartearentzat lan egiteko zerbitzuak.** Neurri hau, gauza dadin, adingabeak onetsi behar du. Funtsean, eskolarik gabeko egun eta orduetan egiten dira. Neurri honek helburu du adingabeek ulertzea tolerantzia-balioa, besteen ondasunak errespetatzea eta gizabide-balioak.
4. **Zaintzapeko askatasuna.** Gizarte-lan jakin batzuk egin behar izaten dituzte, jokabide-arauak ezartzeari loturikoak. Lan horiek lagunduko diete beren ekintzek izan dituzten ondorioak ulertzen, eta erantzukizuna beren gain hartzen. Prozesuan leku handia hartzen du gogoetak. Askotariko lanak izan daitezke, besteak beste: idazlanak egitea, biktimen tokian jarrita; eta beren inguruabar




pertsonalak direla-eta, bereziki zaugarri diren adingabeei lagun egitea, eguneroko zereginetan.

- 5. Urruntze-agindua.** Agindu hori kautelazko neurri gisa zein zigor gisa ezartzea beharrezkotzat jotzen bada, biktimaren eta eraso-tzailearen artean urruntze fisiko handi edo txikia ezarriko da eta, edozelan ere, debekatuta izango dute elkarrekin harremana izatea (zeharka eraginpean dauden hirugarrenekin ere bai), idatziz, hitzez zein era bisualean, inolako komunikabide, bitarteko informatico edo telematico erabiliz.

Oro har, ziberbullying-kasuetan, egitate beragatik aipatutako neurrietako bat baino gehiago ezartzeko aukeraz gainera, aginduak ezarri beharko lirateke teknologiaren erabilera egokiari buruzko hezkuntza arduratsurako ikastaroak egiteko, bai eta Internetera sartzeko eta telefono mugikorra erabiltzeko murrizketa zorrotzak ere.





# Eranskinak

## A1.1 Nola jarri harremanetan webgune baten arduradunekin

Webgune baten arduradunekin harremanetan jartzeko premia izan dezakegu; esaterako, ziberbullyng-kasuren bat gertatu bada webgune horretan argitaratutako komentarioengatik edo e-postaz egindako adierazpenengatik. Halakorik gertatuz gero, mezuak zabaltzeko erabili den zerbitzariaren arduradunekin hitz egin nahiko dugu. Hona hemen zenbait argibide erabilgarri:

- Webguneetako arduradun teknikoen e-postako helbidea webmaster@... izan ohi da.
- Posta-zerbitzariak postmaster@... moduko helbideren bat izan beharko lukete haren administratzailearengana jotzeko. Horrez gain, abuse@... moduko helbideak izaten dituzte, erabiltzaileei buruzko kexak hartzeko. Beste aukera bat da support@... helbidearekin proba egitea.
- Espainiako legediak (LSSICE siglarekin ezagutzen da) derrigortu egiten die web komertzialei beren arduradunak argitasunez eta erraz aurkitzeko moduan identifikatzera. Harremanetarako posta elektronikoen helbidea aurki dezakezu, eta, zenbaitetan posta-helbidea eta harremanetarako telefono-zenbakia, Lege-oharra (Aviso legal) edo antzeko testua duten esteketan. Ohar horiek egitea derrigorrezkoa da datu pertsonalak eskatzen badituzte (hala agintzen du izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko legeak).
- Hauek izaten dira harremanetarako informazioa ematen duten beste atal batzuk: Contacta, Contacto, Quiénes somos, About, Acerca de, etab. Harremanetarako formulario bat edo harremanetarako e-posta bat edo batzuk topa ditzakegu atal horietan. Oro har, web-orrien beheko aldean izaten dira, eta, zenbaitetan, bertan jartzen dute harremanetarako posta-helbidea.
- Webguneren batek ez badu legez agintzen den informazio guztia ematen edo ez badu lege-eskakizunik bete behar, kanpo-iturrietara jo beharko dugu, domeinuaren izenetik abiatuta. Domeinuak jabe batekin lotzen dira publikoki, eta haien datuan Whols (nor da?) motako zerbitzuen bidez izaten dira eskuragarri, domeinuak erregistratzen dituzten enpresetan eta domeinuak administratzeaz arduratzen diren erakundeetan (ikus eranskin honen amaieran).
- Blogen kasu zehatzean, bi aukera hauek eman daitezke:
  - Bloga domeinu independente batean egotea; esaterako, <http://www.pantallasamigas.com>. Kasu horretan, aurrez adierazi duguna egin behar da webmasterrarekin harremanetan jartzeko.

- Bloga hosting zerbitzu batean badago (oro har, doako zerbitzua izaten da, eta horren adibide da, esaterako, <http://ciberbullying.wordpress.com>), bi erantzule izango ditugu: bata hosting zerbitzuko kudeatzailea, eta bestea blogaren eta haren edukia-  
ren arduraduna (hau da, egilea). Egilea identifikatzeko aukera izaten da “Acerca de” botoietan eta antzeko esteketan edo blogaren zutaberen batean, datu, izen, esteka edo posta-helbidea adierazten den lekuan (horretarako, blogak ematen dituen datuak aztertu behar ditugu, aintzat hartuta normalean eskuineko zutabearen goiko aldean jarri ohi dela informazio hori). Hala ere, blog batzuek ez dute inon adierazten nor den beren egilea. Edonola ere, beti jo behar dugu blog-zerbitzua ematen duen enpresarengana. Esaterako, Blogspot moduko blogetan, goiko aldean beti dugu Informar sobre mal uso aukera, erabilera okerrak jakinarazteko aukera ematen diguna. Wordpress-en kasuan, hau da posta elektronikoa: [support@wordpress.com](mailto:support@wordpress.com). Arazoaren datu guztiak eman behar ditugu (zer arazo den, zer URL-tan gertatu den, pantaila-kapturak, etab.), eta erabilera-baldintzak aztertu behar ditugu, ikusteko egileek non urratu dituzten haiek; izan ere, urrapen horiek egiaztatzen badira, bloga itxi daiteke. Gure asmoa ez bada bloga itxiaraztea, arazoa zein den adierazi behar diegu eta zer neurri hartzea nahi dugun; esaterako, eduki jakinen bat erretiratzea. Webgunea edo enpresa ez badira espainiarrak, gure kexa ingelesez bidaltzea komeni da; izan ere, beste hizkuntza batzuk eskaini baditzakete ere, gerta liteke bestelako hizkuntzak ulertzeko langilerik ez izatea edo, izatekotan, erantzuna berandutzea, berriro bidali, itzulpenak egin, erantzun, erantzuna itzuli eta gainerako urratsak egiten dituzten bitartean.

## A1.2 Nola egin pantailen kapturak

Or ohar, pantailak dakarren irudia hartzeko hiru modu daude: irudiak editatzeko programak erabiltzea (adb. Gimp edo Paint Shop Pro), berariaz lan hori egiteko prestatutako programak erabiltzea (adb. Snagit) edo sistema eragileak eskaintzen dituen tresnak erabiltzea. Adibide batzuk emango ditugu jarraian.

- Gimp (Windows eta Linux): Archivo -> Crear -> Captura de pantalla...
- Paint Shop Pro (Windows): Archivo -> Importar -> Iniciar -> Captura de pantalla

- Argazkia (Mac): Captura menua.
- Windows: Impr Pant edo Print Scr teklari sakatu eta, ondoren, dokumenturen bat ireki (adb. Paint, Photoshop, MS Word, etab.) eta han itsatsi.
- Linux: Impr Pant edo Print Scr tekla sakatu; edo bide hau egin Accesorios -> Capturar Pantalla (Ubuntun).
- Leihoen eta pantailen kapturak egiteko programa berariazkoak:
  - Windows: Winsnap, MWSnap, Faststone Capture, Jing, Easy-Capture, SnagIt...
  - Linux: Gnome-screenshot, Compiz, Ksnapshot, Webkut...
  - Macintosh: Jing...
  - Beste batzuk: Screengrab edo Webshots pluginak Firefox nabigatzailearentzat.

### A1.3 Nola egin pantailaren-kapturak bideo formatuan

Programa batzuk bideoz grabatzen dute pantailan gertatzen dena: irekitzen diren leihoak, kurtsoaren mugimenduak, teklatzen ditugun hitzak, pantailan agertzen diren mezuak, etab. Web-kamera baten emisioaren kapturak egin nahi izanez gero, bada pantailan gertatzen den guztiaren kapturak egiten dituen programarik. Badira beste programa batzuk web-kamera baten irudi estatikoen kapturak tarteka egiteko, baina ez dira aurrekoak bezain baliagarriak. Horien adibide dira:

- *Webcam Video Capture*
- *Stoik (freeware)*

### A1.4 Nola ikusi posta elektronikoko mezu baten goiburuak osorik

Jarraibide hauek baliagarriak dira postaren aplikazio askotarako eta webmail-eko zerbitzu batzuetarako:

- Seamonkey: *View -> Headers -> All*
- Thunderbird: *View -> Headers -> All*
- Outlook (bertsioaren arabera):
  - Options -> More options -> Internet headers
  - Message details -> Internet mail headers

- Options -> Internet headers
- Properties -> Details -> Internet headers for this message
- Message source
- Eudora (bertsioaren arabera):
  - Klik bi aldiz -> *Blah blah blah*
  - View -> *Message source*
- Gmail:
  - Show original
- Yahoo! mail (bertsioaren arabera):
  - Complete headers
  - Standard header -> Full
- Windows Live Hotmail: *View message source*

### A1.5 Nola gorde e-postako mezuak aparteko fitxategietan

Jaso eta bidaltzen ditugun posta elektronikoko mezuak posta-programa edo webmail zerbitzu batean soilik izaten ditugu zuzenean eskuragarri. Hori horrela izanda, akaso komeniko zaigu mezuak aparte gordetzea formatu estandarren batean, beste edozein programak erraz irakur dezan. Hala jokatzuz gero, ez dugu gure postan sartu beharrik izango, ez baitugu webmail zerbitzuko log-in aukera baliatu beharko. Aparteko fitxategiak sortzeko, EML edo TXT luzapeneko fitxategiak sortu behar ditugu mezuak gordetzean. Programa gehienek ematen dute hori egiteko aukera, modu berdintsuan:

- *Thunderbird, Seamonkey, Outlook: mezuan klik egin ondoren -> Archivo -> Guardar como bidea egin behar dugu...*

### A1.6 Nola aktibatu elkarrizketak artxibatzeke aukera berehalako mezularitzako programa edo zerbitzuetan

- MSN Messenger / Windows Live Messenger:
  - Bidea da Archivo edo Herramientas -> Preferencias -> Mensajes -> Guardar automáticamente las conversaciones / Guardar automáticamente un historial
- Yahoo! Messenger:
  - Messenger -> Preferencias -> Archivo.

- Google Talk:
  - *Configuraciones -> Chat -> Mi histórico de chat*
  - Elkarrizketak modu automatikoan gordeko dira Gmail zerbitzuak, eta eskuragarri izango dira helbide honetan: <https://mail.google.com/mail/?ui=1#chats>
- Skype:
  - Opciones -> Privacidad -> Guardar historial de chat...

### **A1.7 Ordenagailuan gertatzen dena etengabe erregistratzeko softwarea**

- Norbaitek gure ordenagailuan egiten duenari buruzko frogak eskuratu nahi baditugu, keylogger bat instala dezakegu, baina kontuz ibili behar dugu legerik ez urratzeko (esaterako, pribatutasuna bortxatzeagatik). Espioitzarako beste programa batzuk erabil ditzakegu gure burua espiatzeko, hau da, gure ordenagailuan gertatzen den guztia erregistratzeko: pantailen kapturak, txatak, Interneteko orrietara egindako bisitak, etab. Horien adibide dira Spector Pro, e-Surveiller, Activity Monitor edo eBlaster programak. OHARRA: programa horiek ordenagailutik irteten dena soilik erregistratzen dute, eta ez sartzen dena.
- Jaso eta bidaltzen den informazio guztia erregistratu eta monitorizatzeko aukera ematen dute gurasoen kontrol-lana errazteko pentsatutako zenbait programek. Beharrezkoa izanez gero, horietako bat erabil dezakegu, proba moduan.

Hauek dira eremu anglosaxoian ezagunak direnetako batzuk:

- NetNanny.
- Safe Eyes.
- PC Pandora.
- KidZui.

### **A1.8 Notario-akten alternatibak Interneteko edukiak modu fede-emailean jasotzeko**

Aukera merkeago bat dago, baina haren lege-balioa ez da notario-aktarena bezain handia: AUI-ren testigantza-akta ([http://www.aui.es/index.php?body=serv\\_v1acta](http://www.aui.es/index.php?body=serv_v1acta))



## A1.9 Zer eraman behar dugu salaketak egiteko poliziari

- Komeni da, eraman ditzakegun kapturez eta inprimatutako orrialdeez gain, testu bat eranstea, kalte egiten duen testua edo irudia deskribatzeko eta salatzen diren gertakarien azalpen kronologikoa egiteko. Bereziki gomendagarria da testua eranstea bideo eta audioen kasuan, haien transkripzioa izango baita kapturen edo inprimatutako kopien ordezkoko (gogoratu kasu horietan zaila edo ezinezkoa izaten dela kapturak edo kopiak egitea).
- Aurrekoen osagarri, gaiari buruz eskuragarri ditugun fitxategien kopia bat eman dezakegu USB memoria batean, CD batean edo CD-ROM batean: esaterako, e-postako mezuen EML luzapendun kopiak, txateko log-en kopiak, etab.
- Gertaeran parte hartzen duten URL guztiak zehaztu behar ditugu.
- Espainian, pertsona batek joan behar du salaketa jartzera; beraz, ezin da salaketa telematikorik egin.

## A1.10 Domeinuen jabe diren pertsonen edo entitateen izenak jakiteko webguneak

- <http://www.nic.es> helbidea baliatu behar da Espainiako domeinuetarako.
- [www.whois.com](http://www.whois.com)
- <http://www.iana.org/domains/root/db/> Hortik iristen da herrialde bakoitzeko domeinuak kudeatzen dituzten webetara, tokiko domeinuak (ccTLD pean).
- <http://www.nominalia.com> edo <http://www.interdomain.org> zerbitzuen bidez, domeinuak erregistra daitezke eta jabeen datuak eskuratu.

Zenbaitetan, lortutako datuak orientagarriak izaten dira, baldin eta ez badira pertsona bera ordainketa egiten duena eta titularra.

## **A2.1 Personas que se hacen pasar por otras**

Alde batera utzita anonimotasuna (identifikazio eza) eta faltsutasuna (egiazkoa ez den identifikazioa baliatzea), ziberbullyngaren egoera ohikoenetakoa da identitatea ordezte, hau da, beste pertsona baten identitatea hartzea eta haren izenean jardutea.

Testuinguru digitalean, pertsona baten identitatea ordezteko nahikoa izaten da haren sarbide-parametroen berri izatea (oro har, sarbidegako sekretu bat izaten da, izenarekin edo posta elektronikoaren helbidearekin batera), identitate hori aktibo dagoen zerbitzuan sartzeko. Horrekin batera, beste pertsona baten sarbide-parametroak jakin daitezke, bai pertsona horrek edo beste batek eman dituelako, bai ware gaiztoak (software espioiak, harrak, etab.) darabiltzaten informatika-prozeduren bidez lapurtuak izan direlako.

Nahiko ohikoa da horien erabilera Interneten, batik bat sare sozialetan. Maiz, erasotzaileen gatzigu-estrategietako bat izan ohi da. Gatzigu hori hainbat modutan zehazten da, eta, zuzenean edo zeharka, kalteak eragiten dizkie erasoak jasaten dituzten pertsonari. Erasotzaileak biktimaren edo hirugarren pertsonen identitatea har dezake, eta, azken horien kasuan, beren borondatearen aurka eta bortizki sartu ohi dira egoera gatazkatsuetan.

Erasotzaileak biktimaren lekua hartzen duenean, hauek gerta daitezke sare sozialetan:

- Adierazpen gogorrak egin ditzake beste pertsona ezagun edo ezezagunen aurka, eta horiek, oro har, haserre erantzuten dute Internetez edo, kasuan kasu, Internetetik kanpo eta aurrez aurre.
- Biktimarekin konpartitzen den hirugarren pertsonari buruzko informazio sentikorra argitara dezake, eta haserrea eragin haiengan.
- Gizartean irudi txarra izatea edo biktimaren harreman-sarean gaitzespena eragiten duten rolak hartu edo ekintzak egin ditzake.
- Biktimaren informazio konfidentziala, pribatua edo sentikorra eskura dezake, artxibatuta zegoelako edo haren lagunekiko harreman telematikotik eskuratu duelako. Informazio hori eskuratuta, jazarpena egiteko balia dezake erasotzaileak.

Erasotzaileak hirugarren pertsona baten lekua hartzen duenean, hauek gerta daitezke sare sozialetan:

- Biktimaren irudia kaltetu dezaketen ekintzak; esaterako, esamesak zabaltzea.
- Biktimarekin harremanetan jar daiteke, eta hirugarren pertsonetikiko arazoak edo jendaurreko lotsaraztea dakarten ekintzak egitera bultzatu.
- Biktimarengandik gai konfidentzialak, konprometituak, intimitateari dagozkionak eta antzerakoak atera ditzake, eta biktima egoera ahulagoan utzi.

## A2.2 Identitatea lapurtzea

Beste pertsona baten identitate digitala erabiltzen bada, ez da, beti, identitate hori erabiltzeko aukeraz gabetzen biktima; hala ere, zenbaitetan, biktimaren lekua hartzen duen pertsonak sarbide-gakoak aldatzen ditu, eta ez dio uzten biktimari bere identitate digitala erabiltzen.

Horrelakoak gertatzen badira, eten egiten da biktimaren eta online-zerbitzuaren (esaterako, sare sozialaren) arteko komunikazio-bide bakarra, eta horrek zaildu egiten ditu jazarpena utzarazteko eskaerak egiteko aukerak eta administratzaileari identitatearen lapurreta salatzeakoak.

## A2.3 Identitatea berreskuratzea

Nabarmentzekoa da identitatea ordeztzen duten pertsonak bi lege-urrapen egiten dituztela:

- Legea urratzen dute beste pertsona batzuen identitatea hartzen dutelako eta ekintza kaltegarriak egiten dituztelako. Eremu penalean zigortzeko moduko ekintzak dira, baldin eta biktimaren egoera zibilaz edo haren eskubideez baliatu nahi badu erasotzaileak. Horrez gain, kalte informatikoak izango dira, baldin eta informazioa suntsitu edo aldatzen bada, jabe legitimoari sarbidea eragozten bazaio, intimitatea bortxatzen bada, etab.
- Kasu gehienetan, zerbitzuaren erabilera-baldintzak urratzen dira, eta zerbitzutik kaleratzeko arrazoi izan daiteke.

## KOMUNITATETIK KANPORATZEA

Kontuan izan behar dugu zaila edo ezinezkoa izan daitekeela erasotzailea kanporatzea, baldin eta arau-urratzaileak ez badu bestelako sarbide-konturik eta lapurtutakoa soilik erabili badu: kasu horietan, ezingo litzateke erasotzailea kanporatu, sare sozialean izan duen partaidetza lapurtutako profiletik soilik egin baita. Hala ere, administratzaileek haren IP helbidea blokea dezakete, hura erabiltzeko edo profil bat sortzeko aukerarik izan ez dezan. Ezin da halako neurririk hartu, baldin eta erabiltzailea beste IP helbide batetik konektatzen bada edo finkoa ez den IP helbide bat badu. Azken kasu horretan, ezingo litzateke bere IP helbidea modu automatiko eta iraunkorrean blokeatu.

## SARE SOZIALEKO SARBIDEA (ONLINE IDENTITATEA) BERRESKURATZEA

Sare sozialeko administratzaileei eman behar zaie egoeraren berri.

Sare bakoitzak jarduera-protokolo bat izango du egoera horietarako. Oro har, erreklamatutako profilaren edukitza legitimoa frogatzeko bermeak eskatzen dituzte, pasahitz berriak sortu eta profilaren e-postara bidaltzeko.

Laguntza-atalean, arazo horiei buruzko argibideak ematen dituzte Tuenti eta Facebook sareek, eta sarbidea berreskuratzen lagun diezazukete.

Sare sozialetarako Gazte Netiketaren helburua da nerabe eta gazteek sozializazio intentsiboko eremu berri horietan dituzten online-bizipenak hobetzea. Horren bidez, bizikidetzaz zibernetikoa hobetzen da, gatazkak saihesten dira, komunitateko kideztza-sentimendua eta erantzukidetasuna indartzen dira, eta, finean, herritartasun digital arduratsua eta bizia eraikitzen eta erabiltzen laguntzen da, banakoen eta taldeen eskubide eta betebeharren bermatzaile bakarra den aldetik.

Guztira, 16 adierazpen biltzen ditu, hiru ardatzetan antolatuta:

- Pertsonetikiko arreta eta errespetua izatea.
- Pertsonen pribatutasuna zaintzea.
- Giro ona sustatzea sarean.

#### **Begirunea eta errespetua izan pertsonekin:**

- 1 **Baimena eskatu** beste pertsona batzuk igotako argazkiak etiketatutako baino lehen.  
Online publikatuta izan arren, agian norbaiti ez zaio komeni argazkiren bat etiketatzea.
- 2 **Erabili etiketak onerako**, ez jendea iraindu, lotsarazi edo kalte-zeko.  
Lagundu giro ona eta konfiantzazkoa sortzen, guztiontzat gustagarria izan dadin.
- 3 **Ondo neurtu argitaratzen dituzun kritikak**. Pertsoneri buruz duzun iritzia kaleratzea edo haiei iseka egitea legez kontrakoa izan daiteke eta haien eskubideak urra ditzake.  
Gainerako pertsonen eskubideak hastearekin batera amaitzen da adierazpen-askatasunaren eremua. Irainak, kalumnia eta ohorearen eta intimitatearen aurkako ekintzak delitu dira.
- 4 **Arazorik gabe bazter** daitezke laguntasun-eskaerak, ekitaldiarako eta taldeetan sartzeko gonbidapenak, etab.  
Zurekin ere horrela jokatzeko badute, ez saiatu behin eta berriz eta ez eskatu azalpenik.
- 5 **Saiatu ez egiten SPAM salaketa bidegabeak**, komentario egokiak egin dituzten pertsonak ez kaltetzeko.  
Altxor handia da informazio ugari, interesgarri eta egiazkoa izatea.
- 6 **Erabili salaketak jartzeko aukerak**, baldin eta arrazoirik badago zerbait salatzeke.  
Salaketa doakoak eta bidegabeak eginez gero, mesfidantza eta haserrea sustatzen da.

### Zaindu pertsonen pribatutasuna:

- 7 Aztertu beste pertsona batzuei buruzko zer informazio ematen duzun eta ziurtatu ez zaiela axola informazio hori ematea.**

Batzuetan, beste pertsona batzuekin bizi dugun bizitzaren edo beste pertsona batzuen bizitzaren gauza batzuk kontatzen ditugu, kontuan hartu gabe zer eragin izan dezakeen informazio hori zabalteak. Errespetatu pertsonen pribatutasuna, zurea errespetatua ikusi nahi duzun moduan.

- 8 Pertsonak etiketatzeko, ez jokatu faltsutasunez, eta ziurtatu ez zaiela axola hori egitea.**

Norbait etiketatzean, hari buruzko informazio ugari ematen duzu eta, sarritan, ustekabeko propaganda deserosoa izan daiteke pertsona horrentzat.

- 9 Ezin da pertsononen argazki edo bideorik argitaratu, baldin eta haien baimenik ez baduzu.** Hori da arau orokorra.

Norberaren irudia (argazkiak, bideoak...) datu pertsonala da, eta pertsona horri dagokio, modu eskusiboan, hura erabiltzeko modua erabakitzea.

- 10 Informaziorik argitaratu baino lehen, galdetu argitara dezakezun, baldin eta modu pribatuan jaso baduzu informazio hori.** Sare sozialetan, informazioa oso azkar zabaltzen da, eta pribatua dena sekretu ozena bihur daiteke.

### Sustatu giro ona sarean:

- 11 Lagundu zure pribatutasuna eta intimitatea zaintzen. Jakinarazi zure kontaktuei, eta, batik bat, kontaktu berriei, nola nahi duzun horiek erabiltzea.**

Utzi garbi zure irizpideak, haiek betetzeko aukera izan dezaten. Esaterako, adierazi ez duzula nahi zure album pribatuetako argazkiak berrerabiltzerik, baimenik gabe etiketatzerik edo zuri buruzko datuak jendearen bistan dauden orrietan jartzerik.

- 12 Dena maiuskulaz idazten baduzu, oihuka ari zarela pentsa dezake jendeak.**

Hitzarmen bat da, idatzi gabeko arau bat, eta jende askok betetzen du. Erraza da hori kontuan hartzea, eta elkar ulertzen laguntzen du.

**13 Erabili eskura dituzun baliabideak (marrazkiak, ikurrak, emotikonoak...), argitasunez adierazteko eta gaizkiulertuak saihesteko.**

Norberaren aldarreak, kultura- eta gizarte-diferentziek, aurretiazko bizipenek eta antzerako alderdiek zaildu egin dezakete bi pertsonen arteko harremanak; are gehiago aurrez aurre ez badaude. Laguntza-ikurrak ulertu eta erabiltzea lagungarria da interpretazio okerrekin ekar ditzaketen arazoak saihesteko.

**14 Zerbaitek molestatzen bazaitu, saiatu lasai eta indarkeriarik gabe erantzuten. Ez ekin, inoiz, berehalakotasunez edo bortxaz.**

Batzuetan, gauzak ez dira izaten diruditen bezalakoak. Gerta liteke jendea probokazio bila edo engainatzeko asmoz jardutea, eta, erantzun txarrak ematen baditugu, haien helburua lortuko dute. Beste batzuetan, akatsak edo nahi gabeko ekintzak izan daitezke.

**15 Begirunez tratatu jendea, batik bat, hirugarren pertsonak begira badaude.**

Norbaitek akats edo arduragabekeriaren bat egiten badu edo molestatzen bazaitu, adeitasunez ikusaraz iezaiozu. Ahal baduzu, egin hori modu pribatuan.

**16 Irakurri eta bete sare sozialeko erabilera-arauak.**

Erabilera arauak aldatu egin daitezke saretik sarera (Tuenti, Facebook, Hi5, Bebo, Orkut...). Hala ere, guztiek derrigorrean bete beharreko joko-arauak dira.

**Oharra:** PantallasAmigas-ek garatutako netiketa. Informazio gehiago: [www.netiquetate.com](http://www.netiquetate.com)

Sare sozial batetik irtetea ezinbestekoa edo komenigarria izan daiteke batzuetan. Tuenti da adingabekoek gehien erabiltzen duten sare soziala, eta, batzuetan, konpainiak berak baimendutako adina baino gazteagoak diren pertsonak erabiltzen dute. Jarraian, Tuenti blokeatu edo uzteko jarraibideak emango ditugu, konpainiak berak 2010eko uztailean indarrean dituen prozeduren arabera.

### **A4.1 Norberaren kontua desaktibatzea Tuentin**

Erraza da kontu bat desaktibatzea. Sare sozialean baja eman aurretik edo baja ematearen ordezk egin daiteke, eta, batzuetan, baliagarria izan dakiguke.

*Klik egiten baduzu "Desactivar cuenta" aukeran, desaktibatu egingo da zure kontua eta erabiltzaileek ezingo dute zure profileko edukia ikusi.*

Gogoratu kontua berriro aktibatu nahi baduzu, nahikoa duzula zure erabiltzaile izena eta pasahitza baliatzea ordenagailu batean.

"Desactivar cuenta" botoia "Mi cuenta" --> "Preferencias de mi cuenta" menuan dago, orri horren beheko aldean.

Hori eginez gero, zure profila eta hark ematen zuen informazioa ikusezina izango da gainerako erabiltzaileentzat, baina denbora mugagabean jarraituko du Tuentin. Dena den, lagunen zerrendetan eta bilaketetan azalduko da zure izen/nicka.

Kontua desaktibatuz gero:

- 1 Zure profila ezkutaturik izango da
- 2 Ez dira erakutsiko zure argazkien etiketak
- 3 Zure lagunak ezingo zaituzte argazkitan etiketatu
- 4 Ez duzu mezu edo jakinarazpenik jasoko

Etenaldi hori amaitzeko aukera dugu; hala, e-posta eta pasahitza baliatuta, kontua berriro aktibatu eta informazioa berreskura dezakegu.



## A4.2 Norberaren kontuari baja ematea Tuentin

Kontuari baja eman nahi badiogu behin betiko, hiru aukera ditugu:

1. Egin "Ayuda" --> "Preferencias de mi cuenta" --> "¿Cómo puedo dar de baja mi cuenta?" bidea. Esteka bat azalduko zaigu, "aquí" testua idatzirik daramala. Hor klik eginda, baja tramitzeko orria azalduko da.
2. Lehen adierazitako "Desactivar cuenta" aukera baliatzen badugu, testu hau azalduko zaigu:

*También puedes eliminar tu cuenta, pero sólo deberías hacerlo si deseas que tu perfil, tus fotos, mensajes y contenidos compartidos se eliminen definitivamente sin posibilidad de recuperación (Kontua ezabatzeko aukera duzu, baina kontuan izan, hori egiten baduzu, behin betiko ezabatuko direla zure profila, argazkiak, mezuak eta konpartitutako edukiak, eta ezingo dituzula berreskuratu). Pincha aquí para borrar tu cuenta (Klikatu hemen zure kontua ezabatzeko).*

Esteka horretan klik egiten badugu, beste orri batera joango gara eta hau irakurriko dugu:

*Puedes utilizar este formulario para eliminar tu cuenta de forma definitiva (formulario hau erabil dezakezu zure kontua behin betiko ezabatzeko). La eliminación de la cuenta supone que tu perfil, fotos, mensajes y contenidos compartidos se eliminarán por completo (kontua ezabatuz gero, zure profila, argazkiak, mezuak eta konpartitutako edukiak guztiz ezabatuko dira). Ni tú ni tus amigos podréis volver a ver estos contenidos de nuevo y no será posible recuperarlos (Zuk eta zure lagunek ezingo dituzue berriro ikusi eduki horiek eta ezingo dira berreskuratu). Antes de decidir si quieres eliminar tu cuenta, piensa tu decisión ya que cuando el proceso se complete se perderán todos tus contenidos (kontua ezabatzea erabaki baino lehen, ondo pentsatu; izan ere, ezabatze-prozesua amaitzean, galdu egingo dira eduki guztiak).*

Hor azalpen bat emateko eskatuko digute, baina, "Otros" aukera hautatzen badugu, bete gabe utz dezakegu testurako koadroa.

Horrez gain, aukerak markatzeko eskatuko digute, banan-banan:

*Confirmación de baja definitiva de mi cuenta (nire kontuaren behin betiko bajaren konfirmazioa)*

*Sé que tras eliminar mi cuenta de forma definitiva, no se podrá recuperar el siguiente contenido (badakit nire kontuan behin be-*

tiko ezabatu ondoren ezingo direla eduki hauek berreskuratu:

*Contenido perdido (galdutako edukia)*

*(Todos requeridos) (Guztiak derrigorrezkoak)*

- *Todos mis amigos en Tuenti (Tuentiko nire lagun guztiak)*
- *Fotos que haya subido y todas mis etiquetas (igo ditudan argazki guztiak eta nire etiketa guztiak)*
- *Toda la información sobre eventos e invitaciones (ekitaldi eta gonbidapenei buruzko informazio guztia)*
- *Notificaciones de cumpleaños de amigos (lagunen urtebetetze-egunen jakinarazpenak)*
- *Mensajes que he enviado o recibido (bidali eta jaso ditudan mezuak)*
- *Todos mis comentarios en tablonos o en fotos (taula eta argazkietan egin ditudan komentario guztiak)*
- *Todas las entradas de mi espacio personal y actualizaciones de mi estado (nire espazio pertsonaleko sarrera guztiak eta egoera-eguneratze guztiak)*
- *Cualquier otra información asociada a mi cuenta (nire kontuari buruzko gainerako informazioa)*

Horren ondoren, “Enviar petición de baja” botoiari sakatu behar diogu.

3. Beste modu bat da zuzenean eskatzea Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoak arautzen dituen eskubideak erabiltzea. Halaxe dio Tuentik bere “*Condiciones de uso*” (*erabilera-baldintzak*) atalean...

*Como Usuario de TUENTI tienes derecho a poder acceder a tus datos personales para saber cómo los tratamos y con que finalidad y decirnos si te opones a que usemos tus datos para una actividad concreta (TUENTI sareko erabiltzaile zaren aldetik, zure datu pertsonalak ikus ditzakezu, eta, horren bidez, datuak nola eta zertarako erabiltzen ditugun jakin dezakezu, eta zure datuen erabilera jakinak eragotz ditzakezu). Además, podrás rectificar tus datos si ves que no son correctos e incluso podrás pedirnos que los cancelemos si no quieres ser Usuario de TUENTI (Horrez gain, akatsen bat ikusten baduzu, datuak zuzen ditzakezu eta haiek ezerezteko eskaera ere egin dezakezu, TUENTI sareko Erabiltzaile izateari utzi nahi badiozu).*

*Para todo ello tendrás que contactar con nosotros enviándonos un correo electrónico a soporte@tuenti.com (Horretarako, posta elektronikoko mezu bat bidali behar diguzu soporte@tuenti.com helbidera). Te informamos que para poder hacer cualquiera de las acciones que te hemos señalado te pediremos el DNI u otro documento que te identifique para asegurarnos y comprobar que eres tú quien se ha puesto en contacto con nosotros (Adierazi dizkizugun ekintza egiteko, NAN agiria edo identifikazio-agiriren bat eskatuko dizugu, gurekin harremanetan jarri dena zeu zarela ziurtatu eta egiaztatzeko).*

Horrenbestez, soporte@tuenti.com helbidera idatzita, datu guztiak ezeztatzeko eska dezakegu, baina, prozedura hori erabiliz gero, NAN agiriaren bidez identifikatzeko eskatuko digute.

Enpresak ez du gehienezko eperik adierazten, baina beste webgune batzuetan publikatu diren informazioen arabera, ordu batzuk eta bi egun artekoa izaten da epe ohikoena. Hala ere, baja eskatzearekin batera, ikusi da baja berehala desaktibatzen dela, goian adierazitako ondorioekin.

Hau dio Tuenti sareak bere laguntzako atalean: Baja hartu ondoren, erabat ezabatuko dira zure argazki, mezu eta informazio pertsonalak, eta Tuentiko zure lagunek ez dute zure profila ikusiko. Ondo pentsatu erabakia, ezingo baituzu ezabatutakoa berreskuratu.

### **A4.3 Guraso edo legezko tutoreek adingabeko baten kontuaren baja eskatzea**

Adingabeko baten ama, aita edo legezko tutore batek haren kontuaren baja eskatu nahi badu, bide hauek ditu hori egiteko:

- Helbide honetara idatzita: privacidad@tuenti.com
- Helbide honetara idatzita: soporte@tuenti.com
- Erabiltzaile moduan sartu eta seme edo alabaren orrira joan ondoren, "Denunciar usuario" botoia sakatuta. Hori egiteko aukera izango da, baldin eta, esaterako, 14 urte baino gutxiago baditu eta hori adierazten badugu salaketan edo beste erabilera-baldintza batzuk urratu badira: [http://www.tuenti.com/#m=Terms&func=view\\_terms\\_of\\_use](http://www.tuenti.com/#m=Terms&func=view_terms_of_use)

*Si somos informados de que un menor de 14 años está registrado como Usuario en TUENTI, adoptaremos las medidas necesarias y po-*

*dremos eliminar o bloquear el perfil de Usuario (Jakiten badugu 14 urtetik beherako pertsonaren bat erabiltzaile gisa erregistratuta dagoela TUENTI sarean, neurriak hartuko ditugu eta haren erabiltzaile profila ezabatu edo blokeatuko dugu).*

Hori egitea erabakitzen baduzu, eman ahal duzun informazio guztia.

Komeni da adingabekoarekiko harremanaren frogak ematea (esaterako, harreman hori adierazten duen familia-liburuko orria bidal dezakezu, eskaneatuta).

Kontuari baja emateko azken modua da adingabekoaren laguntzarekin egitea; hala, saioari bere kontutik ekinda, handik bertatik bete daiteke baja-prozedura.

Erabiltzailea salatzeko formularioa

Erabiltzailearen salaketa

Erabiltzailearen izena: \_\_\_\_\_

Erabiltzailearen telefonoa: \_\_\_\_\_

Erabiltzailearen helbidea: \_\_\_\_\_

Erabiltzailearen jarduera: \_\_\_\_\_

Erabiltzailearen beste informazioa: \_\_\_\_\_

Argazkia salatzeko formularioa

Argazki baten salaketa

Argazkiaren izena: \_\_\_\_\_

Argazkiaren telefonoa: \_\_\_\_\_

Argazkiaren helbidea: \_\_\_\_\_

Argazkiaren jarduera: \_\_\_\_\_

Argazkiaren beste informazioa: \_\_\_\_\_

Elkarrizketak banaka egin behar dira, konfidentziasuna eta anonimotasuna bermatzeko, eta izaera horretako arazoetan izaten den isiltasun-legea hausten saiatzeko. Horrekin batera, datu pertsonalak babesteko legedia aintzat hartu eta bete behar dugu.

## A5.1 Elkarrizketa ustez jazarria izan den ikaslearekin

Ikaslearen izen-abizenak: .....  
 .....

Maila: ..... Tutorea: .....

Kontu handiz egin behar dugu elkarrizketa ustez ziberbullyngaren biktima izaten ari den ikaslearekin. Elkarrizketan zehar, elkarrizketa-egilearen (ahal bada, tutorearen) lana izango da susmoa egia izan daitekeen egiaztatzea eta, aldi berean, ikasleari entzun eta babesa ematea. Inportantea da ikasleak ez sentitzea haren esanak zalantzan jartzen ari garela.

Hasteko, galdera orokor eta irekiak egin ditzakegu (nola zaude? Zer moduz zabilta ikastetxean?), ikaslea lasai dadin eta giro atsegina sortzeko.

Ondoren, gertakariak arakatu behar ditu elkarrizketak, galdera erraz eta orokorretatik abiatu eta, pixkanaka, galdera gero eta zehatza-goak eta zailagoak egiteko. Kasu bakoitzaren ezaugarrietara moldatu behar da elkarrizketa. Are gehiago ikasleak edo haren familiak jakinarazi badizkiote gertakariak tutoreari. Hori horrela izan bada, ez dago denbora gehiegi eman beharrik hasierako galderekin. Hau izan daiteke elkarrizketaren gidoi bat:

- Jakin dut ikasle batzuk beste batzuekin sartzen ari direla eskuko telefonoen bidez eta Internet bidez. Ba al dakizu zerbait?
- Zer iritzi duzu horri buruz? Zergatik egiten ote dute?
- Zer egiten du irainak eta isekak jasotzen dituen ikasleak? Zer egin dezake?
- Ezagutzen al duzu tratu hori jasotzen ari den norbait? Ezagutzen al duzu burlarik egiten edo halakorik jasotzen duen norbait?
- Badakizu ikastetxean zuei laguntzeko gaudela eta ezin dugula horrelako gauzak gertatzerik onartu. Gertatu al zaizu zuri horrelako zerbait?

- Azal iezadazu zer une txar pasarazi dizuten eskuko telefonoa edo Internet erabiltzean.
  - Noiztik gertatzen zaizkizu horrelakoak? Inoizka gertatzen diren gauzak dira ala behin eta berriz errepikatzen dira?
  - Non sortzen da arazoa, Internetekin ala eskuko telefonoarekin? Non dago arazoa, sare sozialetan, Messenger-ean, txatean, e-postan, SMS-etan, MMS zerbitzuan, youtuben?
  - Ba al dakizu nor ari den hori egiten? Nola dakizu? Zaila izaten da gauza horiek jakitea, ezta?
  - Zer egiten duzu hori gertatzen zaizunean?
  - Ba al du beste norbaitek horren berri? Kontatu al diozu?
  - Laguntzarik ematen al dizu norbaitek?
  - Gertatu al zaizu halakorik bitarteko horiek erabili gabe?
  - Zer?
  - Etab.

Elkarrizketa amaitzeko, laguntza eskaini behar diogu ikasleari eta, beharrezkoa bada orientazioa emango diogu (ikus 7. atala “Biktima-ekin hartu behar diren neurriak” eta 8. atala “Zer egin behar du familiak?”) eta bere kasuaren jarraipena egingo dela adieraziko diogu. Prozesu horren berri emango zaiola adierazi behar zaio.

## A5.2 Elkarrizketa jazarpen-egoera ikusi baina parte hartzen ez duten pertsonekin

Ikaslearen izen-abizenak: .....

Maila: ..... Tutorea: .....

Ustez jazarria den ikaslearekin duen harremana: .....

Ustez jazarlea den ikaslearekin duen harremana: .....

\*Elkarrizketan zehar bildu informazio hau

Hasteko, galdera orokor eta irekiak egin ditzakegu (Nola zaude? Zer moduz zabilta ikastetxean? Zer harreman duzu ikaskideekin?), ikaslea lasai dadin eta giro atsegina sortzeko.

Ondoren, gertakariak arakatu behar ditu elkarrizketak, galdera erraz eta orokorretatik abiatu eta, pixkanaka, galdera gero eta zehatza-goak eta zailagoak egiteko. Hau izan daiteke elkarrizketaren gidoi bat:

- Ikastetxean edo kalean elkarrekin izateaz gain, harremanik ba al duzue Internetez edo eskuko telefonoaren bidez?
- Jakin dut ikasle batzuk beste batzuekin sartzen ari direla eskuko telefonoen bidez eta Internet bidez. Ba al dakizu zer-bait?
- Zer iritzi duzu horri buruz? Zergatik egiten ote dute?
- Zer egiten du irainak eta isekak jasotzen dituen ikasleak? Zer egin dezake?
- Ezagutzen al duzu tratu hori jasotzen ari den norbait? Ezagutzen al duzu burlarik egiten edo burlak jasotzen duen norbait?
- Horrelako egoerarik ikusi baduzu, ba al dakizu zergatik hasi den eta zer bide erabili diren lagun/ikaskide/ezagun hori jartzeko (sare sozialak, Messenger-a, txatak, e-posta, SMS-ak, MMS zerbitzua, sarean jarritako bideoak, blogak...)?
- Zergatik uste duzu eman direla egoera horiek, txantxak hutsak dira? Harekin sartu nahi zuten? Merezi zituelako egin al dizkiote halakoak?



- Halakoak ikustean, parterik hartu al duzu?
- Nola sentitzen zara egoera horiek ikusten dituzunean?
- Kontatu al diozu norbaiti gertatzen ari zena? Komentatu al dituzue gertatutakoak ikaskideen artean edo Interneten dituzun lagunen artean?
- Badakizu ikastetxean zuei laguntzeko gaudela eta ezin dugula horrelako gauzak gertatzerik onartu. Zure ustez, nola konpon dezakegu arazo hau?

### A5.3 Elkarrizketa ustez jazarlea den ikaslearekin

Ikaslearen izen-abizenak: .....  
 .....

Maila: ..... Tutorea: .....

Normalean, ikasle bat baino gehiagok parte hartu ohi dute ziberbullyng kasuetan. Horrelako kasuren batean bagaude, banaka egin behar ditugu elkarrizketak, eta saiatu behar dugu ustezko jazarleak elkarrekin ez komunikatzea, harik eta ustezko jazarle guztiekin banakako elkarrizketak egin arte.

Horrez gain, inportantea da aurretiaz egin izana elkarrizketa ustezko biktimari eta gertaerak ikusi dituzten pertsoneri, gertaerei buruzko ahalik eta informazio gehien izateko.

Kontu handiz egin behar dugu elkarrizketa ustez ziberbullynga egiten ari den ikaslearekin. Elkarrizketan zehar, elkarrizketa-egilearen (ahal bada, tutorearen) lana izango da argi uztea susmoa egia den ala ez egiaztatzen ari dela, eta, horrekin batera, pertsona guztiei entzuteko eta babesa emateko asmoa dugula. Inportantea da ikasleak ez sentitzea haren esanak zalantzan jartzen ari garela.

Hasteko, galdera orokor eta irekiak egin ditzakegu (Nola zaude? Zer moduz zabilta ikastetxean? Zer harreman duzu ikaskideekin? Ondo konpontzen al zara guztiekin?), ikaslea lasai dadin eta giro atsegina sortzeko.

Ondoren, gertakariak arakatu behar ditu elkarrizketak, galdera erraz eta orokorretatik abiatu eta, pixkanaka, galdera gero eta zehatza-goak eta zailagoak egiteko. Kasu bakoitzaren ezaugarrietara moldatu behar da elkarrizketa. Are gehiago ikasleak aurretiaz elkarrizketa zertarako den baldin badaki. Hori horrela izan bada, ez dago denbora gehiegi eman beharrik hasierako galderekin. Hau izan daiteke elkarriketaren gidoi bat:

- Jakin dut ikasle batzuk beste batzuekin sartzten ari direla eskuko telefonoen bidez eta Internet bidez. Ba al dakizu zerbait?
- Zer iritzi duzu horri buruz? Zergatik egiten ote dute?
- Zer egiten du irainak eta isekak jasotzen dituen ikasleak? Zer egin dezake?
- Ezagutzen al duzu tratu hori jasotzen ari den norbait? Ezagutzen al duzu burlarik egiten edo halakorik jasotzen duen norbait?

- Dirudienez, Internet bidez eta eskuko telefonoaren bidez egindako jazarpen-egoera bat gertatu da azken egun hauetan. Ba al dakizu zerbait horri buruz?
- Badakizu ikastetxean zuei laguntzeko gaudela eta ezin dugula onartu gure ikasleei horrelako gauzak gertatzerik...
- Azal iezazkidazu eskuko telefonoarekin edo Internet bidez egin dituzun gauzak, ikaskideentzat kaltegarriak izan zitezkeenak.
  - Inoizka gertatzen diren gauzak dira ala behin eta berriz errepikatzen dira?
  - Zer tresna erabiltzen duzu, Internet ala eskuko telefonoa? Sare sozialak, Messenger-a, txata, e-posta, SMS-ak, MMS zerbitzua, youtube, etab.?- Zergatik uste duzu ez dutela gustuko egiten diezuna? Nola dakizu? Ba al daki pertsona horrek zeu nor zaren?
  - Zer egiten dute hori egiten diezunean?
  - Norbaiti kontatzen al diote gertatutakoa?
  - Egiten al dute zerbait gainerako ikaskideek hari laguntzeko?
  - Eta zuri laguntzeko?
  - Egiten al duzu hori bera eskolan edo kalean, aurrez aurre?

Elkarrizketa amaitzeko, berriro azpimarratu behar da gertaera horiek onartezinak direla (ikus 9. ataleko informazioa "Erasotzailea identifikatzean hartu behar diren neurriak") eta kasuaren jarraipena egingo dela.

## A5.4 Elkarrizketa ustez jazarria izan den ikaslearen familiarekin (Aita, ama, lege-tutorea)

Izen-abizenak: .....

Harremanetarako telefono-zenbakia: .....

E-posta: .....

Ustez jazarria izan den ikaslearen izen-abizenak: .....

.....

Maila: ..... Tutorea: .....

Kontu handiz egin behar dugu elkarrizketa ustez ziberbullyngaren biktima izaten ari den ikaslearen familiarekin. Elkarrizketan zehar, elkarrizketa-egilearen (ahal bada, tutorearen) lana izango da susmoa egia izan daitekeen egiaztatzea eta, aldi berean, familiari entzun eta babesa ematea. Inportantea da familiak ez sentitzea haien esanak zalantzan jartzen ari garela. Ikasleari buruz ikastetxean eskuragarri dagoen informazio guztia biltzea komeni da, eta, horretarako, oso baliagarria da irakasle-taldeak eman dezakeen informazioa.

Hasteko, galdera orokor eta irekiak egin ditzakegu (nola zaudete? edo zer moduz dabil zuen seme edo alaba ikastetxean?), familia lasai dadin eta giro atsegina sortzeko.

Ondoren, ziberbullyngaren gaiari heldu behar dio elkarrizketak, galdera erraz eta orokorretatik abiatu eta, pixkanaka, galdera gero eta zehatzagoak eta zailagoak egiteko. Kasu bakoitzaren ezaugarrietara moldatu behar da elkarrizketa. Are gehiago familiak gertakarien berri badu aldez aurretik. Hori horrela izan bada, ez dago denbora gehiegi eman beharrik hasierako galderekin. Hau izan daiteke elkarrizketaren gidoi bat:

- Harreman ona al du ikaskideekin?
- Harremanik izaten al dute eskuko telefonoaren bidez edo Internet bidez?
- Askotan erabiltzen al du Internet edo eskuko telefonoa?
- Internetera sar al daiteke bere eskuko telefonotik?
- Zuen semeak/alabak Internetekin eta/edo eskuko telefonoarekin arazoren bat izan dezakeela eman digute aditzera, ba al dakizue zer bait horri buruz?
- Aldaketarik igarri al diozue seme/alabari? Zer aldaketa?

- Kontatu al dizue zerbait horri buruz?
- Zuen ustez, horrelako zerbait gertatzen ari al zaio? Zer izan daiteke?
- Hitz egin al duzue harekin? Zer esan dizue?
- Zuen ustez, zer egin dezakegu hari laguntzeko?

Familia lasaitzen ahalegindu behar dugu uneoro, eta adierazi behar zaie gertakariak ikertzen ari garela. Horrez gain, ikastetxeak kasuaren berri izan bezain laster hartu dituen neurrien berri eman behar zaie.

Azkenik, aintzat hartuko ditugu 8. atalean “Zer egin behar du familiak?” ematen diren aholkuak, eta eskura dezakegun laguntza guztia eskatzen saiatuko gara prozesuan zehar.

## A5.5 Elkarrizketa ustez jazarlea den ikaslearen familiarekin (Aita, ama, lege-tutorea)

Izen-abizenak: .....

Harremanetarako telefono-zenbakia: .....

E-posta: .....

Ustez jazarlea den ikaslearen izen-abizenak: .....

.....

Maila: ..... Tutorea: .....

Kontu handiz egin behar dugu elkarrizketa ustez ziberbullynga egi-ten ari den ikaslearen familiarekin. Elkarrizketan zehar, elkarrizketa-egilearen (ahal bada, tutorearen) lana izango da susmoa egia izan daitekeen egiaztatzea eta, aldi berean, familiari entzun eta babesa ematea.

Inportantea da familiak ez sentitzea haien esanak zalantzan jartzen ari garela, eta ikusi behar dute onena nahi dugula bere seme edo alabarentzat. Ikasleari buruz ikastetxean eskuragarri dagoen informazio guztia biltzea komeni da.

Hasteko, galdera orokor eta irekiak egin ditzakegu (nola zaudete? Zer moduz dabil zuen seme edo alaba ikastetxean?), familia lasai dadin eta giro atsegina sortzeko.

Ondoren, ziberbullyngaren gaiari heldu behar dio elkarrizketak, galdera erraz eta orokorretatik abiatu eta, pixkanaka, galdera gero eta zehatzagoak eta zailagoak egiteko. Kasu bakoitzaren ezaugarrietara moldatu behar da elkarrizketa. Are gehiago familiak gertakarien berri badu alde zuzenetatik. Hori horrela izan bada, ez dago denbora gehiegi eman beharrik hasierako galderekin. Hau izan daiteke elkarrizketaren gidoi bat:

- Harreman ona al du ikaskideekin?
- Harremanik izaten al dute eskuko telefonoaren bidez edo Internet bidez?
- Askotan erabiltzen al du Internet edo eskuko telefonoa?
- Internetera sar al daiteke bere eskuko telefonotik?
- Zuen semeak/alabak Internet eta/edo eskuko telefonoa modu okerrean erabiltzen ari ote denaren susmoa helarazi digute, ba al dakizue zerbait horri buruz?

- Aldaketarik igarri al diozue seme/alabari? Zer aldaketa?
- Kontatu al dizue zerbait horri buruz?
- Eta beste norbaitek esan al dizue zerbait horri buruz?
- Zuen ustez, zer egin dezakegu hari laguntzeko?
- Zuen ustez, zer egin dezakegu horrelakoak berriro gerta ez daitezen?

Familia lasaitzen ahalegindu behar dugu uneoro, eta adierazi behar zaie gertakariak ikertzen ari garela. Horrez gain, ahaleginak egingo ditugu errudun senti ez daitezen eta ustez biktima den ikaslea auzitan jar ez dezaten. Irrotasunez adieraziko dugu ezin direla horrelako gertakariak onartu, eta ikastetxeak egoki irizten dituen ekintzak abiaraziko dituela beren seme edo alaben eta gainerako ikaskideen onerako. Komeni da familiari ikusaraztea Internet eta eskuko telefonoa, indar handiko tresnak direnez, kalte larriak eragin ditzaketela, eta familia kalte horien erantzule izango litzatekeela, egilearekin batera.

Azkenik, aintzat hartuko ditugu 8. atalean “Zer egin behar du familiak?” ematen diren aholkuak, eta eskura dezakegun laguntza guztia eskatzen saiatuko gara prozesuan zehar.

## **A5.6 Ikuskaritzari jakinaraztea, balorazio-prozesua egin ondoren (zuzendaritza-taldea)**

### **IKASTETXEAREN DATUAK**

Ikastetxearen izena: .....

Helbidea: .....

.....

Telefono-zenbakia: .....

E-posta: .....

### **NORK EGIN DU SALAKETA-ESKAERA**

Jazarria izan den ikaslearen familiak

Ikastetxeko irakasleek

Ikaskideek

Tutoreak

Irakasleak ez diren ikastetxeko langileek

Orientatzaileak

Beste pertsona batzuek

### **SALAKETA JARTZEA ESKATZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK**

Izen-abizenak: .....

Ustez jazarria izan den ikaslearekin duen harremana:

.....

.....

### **USTEZ JAZARRIA IZAN DEN IKASLEAREN DATUAK**

Izen-abizenak: .....

.....

Maila: ..... Tutorea: .....



**SALATZAILEAK ADIERAZI DITUEN GERTAKARIEN DESKRIBAPEN LABURRA**

Komeni da alderdi hauek jasotzea txostenean:

1. Gertakariak denboran zehar egin eta errepikatu diren. Gertakariak izaera publikoa (jende askori eginak izan diren) edo pribatua duten.
2. Jazarpena zer tresnaren bidez egin den (eskuko telefonoa, Internet)
3. Jazarpena egiteko baliatu den aplikazioa edo testuingurua azaldu, eta, ahal bada, haien izen konkretua adierazi (sare soziala, berehalako mezularitza, txata, e-posta, ikus-entzunezko edukiak dituzten web-orriak, bideojokoak, SMS, MMS, beste batzuk)

**SALAKETA-JARTZAILEAK KASUAREN BERRI IZAN BEZAIN LASTER EGIN DITUENAK****KASUAREN BERRI IZAN BEZAIN LASTER IKASTETXEAK EGIN DITUENAK**

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (e)(a)n

Izpta.:

(Salaketaren jasotzailea: ikuskatzailea)

### **A5.7 Ziberbullying-egoerari buruzko txostena (zuzendaria, irakasle-taldea...)**

Txosten hau konfidentziala da, eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeari entregatu behar zaio

#### **TXOSTENAREN EGILEA**

Izen-abizenak: .....

Betetzen duen kargua: .....

Jazarria izan den ikaslearekin duen harremana: .....

#### **PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK**

##### **USTEZ JAZARRIA IZAN DEN IKASLEAREN DATUAK**

Izen-abizenak: .....

Maila: .....

Tutorea: .....

##### **USTEZKO ERASOTZAILEAK DIREN IKASLEEN DATUAK**

Izen-abizenak: .....

Maila: .....

Tutorea: .....

#### **GERTAKARIEN DESKRIBAPENA**

Adierazi erasoak zer egunetan hasi zen eta hura egiteko erabili diren aplikazioak azaldu (messenger-a, sare sozialak, argazkiak eta bideoak jartzeko aukera ematen duten web-orriak, etab.). Ahal den neurrian, zehaztu tresna bakoitzaren izen konkretua eta erasoaren tamaina eta ondorioak. Erasoak pribatuan ala publikoan egin den argitu, eta erasoak jende askok ikusteko moduan egin diren ala soilik pertsonakopuru mugatu batek ikusteko moduan.

#### **ERASOAK EGITEKO ERABILI DIREN BITARTEKOAK (INTERNET, TELEFONIA ERAMANGARRIA...)**

DESKRIBATU JAZARTZEKO BIDALI DIREN MEZUEN EDUKIA, JAZARPENA IDATZIEN BIDEZ, IRUDIEN BIDEZ EDO BESTELAKO MODUREN BATEAN EGIN DEN ADIERAZIZ.

DESKRIBATU, JASOTAKO INFORMAZIOAREN ARABERA, JAZARPEN-EGOERA HORREN ARRAZOTIAK ETA LORTU NAHI ZIREN HELBURUAK, ETA AZALDU ZIBERBULLYNG-EGOERA HORREK IZAN DITUEN ONDORIOAK (JARRIA IZAN DEN PERTSONARENTZAT, JAZARPENA EGIN DUENARENTZAT ETA BI ALDE HORIEN IKASKIDE ETA FAMILIENTZAT)

ADIERAZI BIKTIMAK ETA ERASOTZAILEEK AURRETIK EDO ALDI BEREAN JAZARPENIK EDO BULLYNG-EGOERARIK BIZI IZAN DUTEN

EGINDAKO BILEREN LABURPENA

- Bilerak zer egunetan egin diren
- Zeinekin egin diren bilerak
- Bildutako pertsonen jarrerak
- Bileretan adostu diren erabakiak

MEDIDAS QUE SE HAN TOMADO (JAZARRIA IZAN DENAREKIN, JAZARLEAREKIN ETA BI HORIEN IKASKIDE ETA FAMILIEKIN)

ADIERAZI ERABAKI DIREN NEURRIAK (JAZARRIA IZAN DENAREKIN, JAZARLEAREKIN ETA BI HORIEN IKASKIDE ETA FAMILIEKIN)

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (e)(a)n

**Izpta.:**

## A5.8 Ikastetxeko zuzendaritzak ziberbullynari buruz egindako txostena, ikuskaritza-zerbitzuarentzat

Txosten hau konfidentziala da

Ikastetxeko zuzendariaren izen-abizenak: .....

Ikastetxea: .....

Herria: .....

### JAZARRIA IZAN DEN IKASLEAREN DATUAK

Izen-abizenak: .....

Maila: .....

Tutorea: .....

### JAZARPENA EGIN DUTEN IKASLEEN DATUAK

Izen-abizenak: .....

Maila: .....

Tutorea: .....

### ZIBERBULLYNG KASUA IKUSI DUTEN PERTSONAK (IKASLEAK, IRAKASLEAK, ETAB.)

#### SALAKETA JARRI DUEN PERTSONA:

#### GERTAKARIEN DESKRIBAPENA

Adierazi eraso zer egunetan hasi zen eta hura egiteko erabili diren aplikazioak azaldu (messenger-a, sare sozialak, argazkiak eta bideoak jartzeko aukera ematen duten web-orriak, etab.). Ahal den neurrian, zehaztu tresna bakoitzaren izen konkretua eta erasoaren tamaina eta ondorioak. Eraso pribatua ala publikoan egin den argitu, eta erasoak jende askok ikusteko moduan egin diren ala soilik pertsonakopuru mugatu batek ikusteko moduan

#### ERASOAK EGITEKO ERABILI DIREN BITARTEKOAK (INTERNET, TELEFONIA ERAMANGARRIA...)

DESKRIBATU JAZARTZEKO BIDALI DIREN MEZUEN EDUKIA, JAZARPENA IDATZIEN BIDEZ, IRUDIEN BIDEZ EDO BESTELAKO MODUREN BATEAN EGIN DEN ADIERAZIZ.

DESKRIBATU, JASOTAKO INFORMAZIOAREN ARABERA, JAZARPEN-EGOERA HORREN ARRAZOIAK ETA LORTU NAHI ZIREN HELBURUAK, ETA AZALDU ZIBERBULLYNG-EGOERA HORREK IZAN DITUEN ONDORIOAK (JARRIA IZAN DEN PERTSONARENTZAT, JAZARPENA EGIN DUENARENTZAT ETA BI ALDE HORIEN IKASKIDE ETA FAMILIENTZAT)

ADIERAZI BIKTIMAK ETA ERASOTZAILEEK AURRETIK EDO ALDI BEREAN JAZARPENIK EDO BULLYNG-EGOERARIK BIZI IZAN DUTEN

EGINDAKO BILEREN LABURPENA

- Bilerak zer egunetan egin diren
- Zeinekin egin diren bilerak
- Bildutako pertsonen jarrerak
- Bileretan adostu diren erabakiak

HARTU DIREN NEURRIAK

1. Biktimarekin
2. Jazarritako ikaslearekin eta jazarpena egin dutenekin
3. Biktimaren familiarekin
4. Jazarpena egin duten ikasleen familiekin
5. Ikaskideekin
6. Ikastetxean bertan
7. Irakasle-taldearekin

\* Zehaztu nola bete diren pertsona horientzat guztientzat hartutako neurriak, zergatik hartu diren eta zer helburu lortu nahi diren, baita zer pertsona edo pertsonak bete dituzten edo beteko dituzten neurri horiek.

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (e)(a)n

Zuzendaria

jauna/andrea

Sinadura








# Glosarioa

ccTLD	Herrialdeentzako goi-mailako domeinua. Adibidez, Sexting.es webgunearen ccTLD .es da, Espainiari dagokion ccTLD. Frantziari, berriz, .fr dagokio; Portugal, .pt; etab.
Sinadura elektronikoa edo digitala	Formatu digitaleko dokumentu bat (hala nola testu-artxibo bat, Internet bidezko eragiketa bat edo mezu elektronikoa bat) sinatzeko mekanismoa, legezko balioa duena. Objektu fisiko baten barnean egon daiteke mekanismo hori (adibidez, NA elektronikoko txipa), edo digitala (esaterako, gure ordenagailuko fitxategi berezi bat) baino ez izan.
IP	Interneten erabiltzaile zein Interneteko zerbitzari bakoitza unean-unean identifikatzeko helbidea. 0 eta 255 arteko lau zenbakik osatzen dute, eta puntuak bereizten dituzte zenbakiak. Adibidez, 134.56.6.208.
Log	Sistema edo programa baten barnean gertatzen den oro erregistratzeko artxibategia. Besteak beste, zerbitzari batean sartzen direnen logak eta txat bidezko solasaldien logak daude.
Log-in	Zerbitzu, webgune, programa edo ordenagailu batean sartzeko prozedura edo ekintza. Oro har, erabiltzailearen izena eta pasahitza idatziz egiten da. Bestalde, sartzeko erabiltzen dugun izenari ere esaten diogu "log-in". Adibidez, atari batean sartzeko log-ina marcos76 izan daiteke.
IPDBLO	Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko Lege Organikoa.
IGMEZEL	Informazio-gizarteko eta merkataritza elektronikoko Espainiako zerbitzuen Legea.
Berehalako mezularitza (BM)	Aldi berean talde baten barnean konektatuta dauden erabiltzaileen artean txatean jarduteko edo mezuak bidaltzeko zerbitzua. IRC txat tradizionalen bertsio modernoa da. Espainian, "txat" esaten zaio besterik gabe, eta ez da bereizten IRC sistemetatik.



<p>Moderatzea</p>	<p>Interneteko zenbait ingurunetan (hala nola foroetan, blogetan eta sare sozialetan) beste erabiltzaile batzuek argitaratzen dituzten eduki jakin batzuk (adibidez, blog bateko iruzkinak) baimentzeko prozesua. Bi aukera daude: batetik, moderatzaileak aurrez eta berariaz eman behar izatea eduki horiek argitaratzeko baimena eta, bestetik, edukia bidali bezain laster argitaratzea baina moderatzaileak a posteriori hura ezabatu ahal izatea desegokia iruditzen bazaio.</p>
<p>Nickname</p>	<p>Interneten erabiltzen dugun izen asmatua edo goitizena. Erabiltzaile bakoitzak bat edo zenbait izan ditzake. Oro har, erabiltzen dugun webgune edo zerbitzu bakoitzeko bat izaten dugu.</p>
<p>PEGI</p> 	<p>Online bideojokoen industriako egileek beren jokoak erregulatzeko Europako kodea. Atxikitzen zaizkion enpresek konpromiso bat hartzen dute: arau jakin batzuk betetzea [ikusi <a href="http://www.pegionline.eu">http://www.pegionline.eu</a>]. Atxikitzen zaizkion webguneek eta bideojokoek logo-tipo hau izan behar dute agerian:</p>
<p>POP</p>	<p>Posta elektronikoko programek mezuak hartzeko erabiltzen duten protokoloa (hizkuntza informatikoa).</p>
<p>Programa cliente</p>	<p>Abian jartzeko zerbitzari batekin konektatuta egon behar duen programa informatikoa. Adibidez, Interneteko nabigatzaileak eta posta-programak.</p>
<p>RSS</p> 	<p>Eduki jakin batzuk edo haien zati bat webgune batetik bestera igortzeko sistema. RSS siglak edo "iturri" edo "feed" hitzak erabiltzen dira izendatzeko, edo honen antzeko ikonoen bidez adierazten da:</p>

Web zerbitzua	Webgune batean sartuz erabiltzen dugun zerbitzua, gure ordenagailuan instalatutako programen bidez erabiltzen ditugun zerbitzuen aurrez aurre adibidez.
Sistema eragilea	Ordenagailua erabiltzeko programen oinarriko multzoa. Adibidez, GNU-Linux, Windows Vista eta Mac OS X.
Monitorizazio-softwarea	Gure ordenagailuan gertatzen dena, sartzen dena eta handik irteten dena kontrolatzeko instalatutako programak. Adibidez, gurasoentzako kontrol-programak.
URL	Interneteko orrialde baten helbidea. http:// edo https:// darama hasieran. Ez du zerikusirik webgune baten helbidearekin; izan ere, hainbat orrialdek eraten dituzte webguneak, eta bakoitzak bere URLa du. Nabigatzailearen goiko barran ageri da URLa.
Wayback Machine	Web-orrialdeak artxibatzeko zerbitzu historikoa. Archive.org ekimena osatzen du. Interneteko edukiak denboran gordetzea du helburu.
Webmail	Posta irakurtzeko eta bidaltzeko web-zerbitzua. Mezuak ez daude erabiltzailearen ordenagailuan, zerbitzarian baizik. Posta erabiltzeko modurik ohikoenetako bat da egun, posta gure ordenagailuan gorde, hartu eta handik bidali behar ez izateko balio baitu. Adibidez, Gmail, Hotmail eta Yahoo! Mail.
Webgunea	Pertsona edo erakunde bakarrak domeinu-izen bakarren pean argitaratzen dituen web-orrialdeen multzoa. Oro har, "web" edo "web-orrialde" ere esaten diogu, hori okerra izan arren. Web edo World Wide Web delakoa munduko webgune guztien multzoa da.



# Dokumentu-iturriak

- Aftab, Parry: *Cyberbullying. Guía práctica para madres, padres y personal docente*, EDEX-PantallasAmigas, 2006.
- Agatston, P.W.; Kowalski, R.; Limber, S.: "Students' perspectives on cyber bullying", in *Journal of Adolescent Health*, 41 (2007), S59-S60.
- Bauman, S.: "Cyberbullying: a virtual menace" (Melbournen, Australian, azaroaren 2 eta 4 artean National Coalition Against Bullying erakundearen Biltzar Nazionalean aurkeztutako txostena), 2007.
- Belsey, B.: "Cyberbullying: an emerging threat to the 'always on' generation", in *Retrieve*, 2006ko urriak 14 (<http://www.cyberbullying.ca>).
- Beranuy, M. et al.: "Validación de dos escalas breves para evaluar la adicción a Internet y el abuso del móvil", in *Psicothema*, 21 (3) (2009), 480-485.
- Block, J.: "Issues for DSM-V: Internet addiction", in *The American Journal of Psychiatry*, 165 (3) (2008), 306-307.
- Calmaestra, J.; Ortega, R.; Mora-Merchán, J.A.: "Las TIC y la convivencia. Un estudio sobre formas de acoso en el ciberespacio", in *Investigación en la Escuela*, 64 (2008), 93-103.
- Campbell, M.A.; Butler, D.A.; Kift, S.M.: "A school's duty to provide a safe learning environment: Does this include cyberbullying?", in *Australia and New Zealand Journal of Law and Education*, 13 (2) (2008), 21-32.
- Casas, J.A.: "Adicción a Internet, de la quimera a la intervención terapéutica" (Córdoban, Córdobako Unibertsitatearen Intervención e Investigación Psicológica en Justicia, Salud y Bienestar Social masterrean aurkeztutako lana), 2010.
- Chibbaro, J.S.: "School counselors and the cyberbully: interventions and implications", in *Professional School Counseling*, 11 (1) (2007), 65-68.
- Childnet International: *Cyberbullying. A whole-school community issue*, Department for Children, Schools and Families, Nottingham, 2007.
- Childnet International: *Safe from Bullying. Guidance for local authorities and other strategic leaders on reducing bullying in the community*, Department for Children, Schools and Families, Nottingham, 2009.
- Kantabriako Gobernuak Hezkuntza Saila: *Protocolo de actuación para los centros educativos en casos de acoso entre compañeros*, 2006.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntzako Ikuskaritza: *Ikastetxeetan berdinen arteko tratatu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida*, 2007.
- Kantabriako Gobernuak Hezkuntza Saila: *Protocolo de actuación para los centros educativos en casos de acoso entre compañeros*, 2009.
- Asturiasko Printzerriko Hezkuntza eta Zientzia Saila: *Maltrato cero. Orientaciones sobre el acoso escolar*, 2006.

- De Haan, Jos; Livingstone, Sonia: Policy and research recommendations, EU Kids Online, Londres, 2009.
- Diamanduros, T.; Downs, E.; Jenkins, S.J.: "The role of school psychologists in the assessment, prevention, and intervention of cyberbullying", in *Psychology in the Schools*, 45 (8) (2008), 693-704.
- Echeburúa, E.: ¿Adicciones... sin drogas? Las nuevas adicciones: juego, sexo, comida, compras, trabajo, Internet, Desclée de Brower, Bilbo, 2000.
- Asturiasko Printzerriko Hezkuntza eta Zientzia Saileko Antolakuntza Akademikoko Zuzendaritza Nagusiko lan-talde teknikoa: Maltrato cero. Orientaciones sobre el acoso escolar, 2006.
- Hasebrink, Uwe; Livingstone, Sonia; Haddon, Leslie; Ólafsson, Kjartan: Comparing children's on-line opportunities and risks across Europe: cross-national comparisons for EU Kids On-line, 2nd edition, EU Kids Online, Londres, 2009.
- Hinduja, S.; Patchin, J.W.: "Cyberbullying: an exploratory analysis of factors related to offending and victimization", in *Deviant Behavior*, 29 (2) (2008), 129-156.
- Hoff, D.L.; Mitchell, S.N.: "Cyberbullying: causes, effects, and remedies", in *Journal of Educational Administration*, 47 (5) (2009), 652-665.
- Jones, L.; Henderson, J.; Frasee, S.: Cyberbullying guidance, The Highland Council, Highland, 2009.
- Li, Q.: "New bottle but old wine: a research of cyberbullying in schools", in *Computers in Human Behavior*, 23 (4) (2007), 1777-1791.
- Livingstone, Sonia: Children and the Internet: great expectations, challenging realities, Policy Press, Oxford, 2009 (ISBN 9780745631943).
- Livingstone, Sonia; Hasebrink, Uwe; Garitaonandia, Carmelo; Garmendia, Maialen: "Comparing on-line risks faced by European children: reflections on youthful Internet use in Britain, Germany and Spain", in *Quaderns del CAC*, 31-32 (2008), 95-105 (ISSN 1138-9761).
- Livingstone, Sonia; Haddon, Leslie (argit.): Kids on line: opportunities and risks for children, Policy Press, Bristol, 2009 (ISBN 9781847424389).
- Mascheroni, G.; Ponte, C.; Garmendia, M.; Garitaonandia, C.; Murru, M.F.: "Comparing on-line risks for children in south-western European countries: Italy, Portugal and Spain", in *International Journal of Media and Cultural Politics*, 6 (1) (2010), 25-44.
- Mason, K.L.: "Cyberbullying: a preliminary assessment for school personnel", in *Psychology in the Schools*, 45 (4) (2008), 323-348.
- Meerkerk, G.J. et al: Is compulsive Internet use related to sensitivity to reward and punishment, and impulsivity? *Computers in human behavior*.

- Ortega, R.; Mora-Merchán, J.: *Violencia escolar. Mito o realidad*, Mergablum, Sevilla, 2000.
- Ortega, R.; Elipe, P.; Mora-Merchán, J.A.; Calmaestra, J.; Vega, E.: "The emotional impact on victims of traditional bullying and cyberbullying. A study of Spanish adolescents", in *Zeitschrift für Psychologie / Journal of Psychology*, 217 (4) (2009).
- Ortega, R.; Calmaestra, J.; Mora-Merchán, J.A.: "Estrategias de afrontamiento y sentimientos ante el ciberbullying", in *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 2 (2008), 123-132.
- Raskauskas, J.; Stoltz, A.D.: "Involvement in traditional and electronic bullying among adolescents", in *Developmental Psychology*, 43 (3) (2007), 564-575.
- Smith, P.K.; Mahdavi, J.; Carvalho, C.; Tippett, N.: *An investigation into cyberbullying, its forms, awareness and impact, and the relationship between age and gender in cyberbullying (Anti-Bullying Alliance erakundearentzako txostena)*, 2006.
- Tejerina, O.; Flores J.: *e-legales. Guía para la gente "legal" de Internet*, EDEX-PantallasAmigas, 2008.
- Williams, K.R.; Guerra, N.G.: "Prevalence and predictors of Internet bullying", in *Journal of Adolescent Health*, 41 (2007), S14-S21.
- Wolak, J.; Mitchell, K.J.; Finkelhor, D.: "Does online harassment constitute bullying? An exploration of on-line harassment by known peers and online-only contacts", in *Journal of Adolescent Health*, 41 (2007), S51-S58.
- Ybarra, M.L.; Diener-West, M.; Leaf, P.J.: "Examining the overlap in Internet harassment and school bullying: implications for school intervention", in *Journal of Adolescent Health*, 41 (2007), S42-S50.

#### AZTERTUTAKO JURISPRUDENTZIA

- 120/2005 Epaia, 2005eko maiatzaren 27koa, Madrilgo Probintzia Auzitegiarena.
- 737/2008 Epaia, 2008ko urriaren 21ekoa, Madrilgo Probintzia Auzitegiarena.
- 17/2007 Epaia, 2007ko urtarrilaren 22koa, Almeriako Probintzia Auzitegiarena.
- 7/2010 Epaia, 2010eko urtarrilaren 29koa, Murtziako Probintzia Auzitegiarena.
- 422/2009 Epaia, 2009ko uztailaren 15ekoa, Valentziako Probintzia Auzitegiarena.
- 313/2009 Epaia, 2008ko maiatzaren 12koa, Zaragozako Probintzia Auzitegiarena.

164/2007 Epaia, 2007ko azaroaren 7koa, Alcobendaseko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1. zenbakiko Epaitegiarena.

#### AIPATUTAKO LEGEZKO XEDAPENAK

8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako eskubidea arautzekoa, eta 732/1995 Errege Dekretua, maiatzaren 5koa, 8/1985 Lege Organikoa garatzekoa.

5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen erantzukizun penala arautzekoa.

1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabeak juridikoki babesteko eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati bat aldatzekoa.

3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.

3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea aldatzekoa.

10/2005 Jarraibidea, urriaren 6koa, Estatuko Fiskaltza Nagusiarena, Gazteentzako justizia-sistemak eskolako jazarpena tratatzeko moduari buruzkoa.

2/2006 Jarraibidea, martxoaren 15koa, Estatuko Fiskaltza Nagusiarena, Fiskalari eta adingabeen ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako eskubidea babesteari buruzkoa.

1/2007 Zirkularra, azaroaren 26koa, Adingabeen zigor-legedia erreformatu ondoko interpretazio-irizpideei buruzkoa.

12/2001 Legea, uztailaren 2koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko haurrei eta nerabeei buruzkoa (AAO).

246/1991 Dekretua, abenduaren 23koa, Valentziako Generalitateko Kontseiluarena, Valentziako Erkidegoko unibertsitatekanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa (EAO).

292/1995 Dekretua, urriaren 3koa, Kanarietako Autonomia Erkidegoko unibertsitatekanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzekoa (EAO).

279/2006 Dekretua, uztailaren 4koa, Kataluniako unibertsitatekanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa eta bizikidetza arautzekoa (EAO).

17/2006 Lege Integrala, azaroaren 13koa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoarena, Balear Uharteetako haurren eta nerabeen laguntzari eta eskubideei buruzkoa (EAO).

249/2007 Dekretua, irailaren 26koa, funts publikoek finantzatutako Asturiasko Printzerriko unibertsitatekanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta bizikidetza-arauak ezartzekoa (EAO).

- 50/2007 Dekretua, martxoaren 20koa, funts publikoek finantzatutako Extremadurako Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta bizikidetza-arauak ezartzekoa (EAO).
- Dekretua, maiatzaren 17koa, ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta familiek hezkuntza-prozesuan dituzten parte-hartzea eta konpromisoak arautzekoa eta Gaztela eta Leongo ikastetxeetako bizikidetza- eta diziplina arauak ezartzekoa (EAO).
- 4/2009 Dekretua, urtarrilaren 23koa, Errioxako Autonomia Erkidegoarena, ikastetxeetako bizikidetza arautzekoa eta ikastetxeetako kideen eskubideak eta betebeharrak ezartzekoa (EAO).
- 53/2009 Dekretua, ekainaren 25ekoa, Kantabriako Autonomia Erkidegoan eskolako bizikidetza eta hezkuntza-erkidegoaren eskubideak eta betebeharrak arautzekoa (EAO).
- Dekretua, apirilaren 6koa, Andaluziako Juntarena, Unibertsitate kanpoko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatu etako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzekoa eta dagozkion bizikidetza-arauak ezartzekoa (AJAO).
- Ebazpena, 2007ko irailaren 26koa, Andaluziako Juntako Hezkuntzako Partaidetza eta Solidaritate Zuzendaritza Nagusiarena, Eskolako jazarpen-egoeretan, irakasleen edo administrazioko eta zerbitzuetako langileen aurkako erasoak jazotzen direnean edo haurren kontrako tratu txarrak daudenean ikastetxeek jarraitu beharreko protokoloari publikitate ematea onartzekoa (AJAO).
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa (EHAA).
- Ebazpena, 2006ko apirilaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura Saileko Antolakuntza Akademikoko Zuzendaritza Nagusiarena, funts publikoek finantzatzen dituzten eta eskolako irakaskuntza ematen duten ikastetxei eskolako jazarpen-egoeretarako jarraibideak ematekoa (MEAO).
- Ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeko Plana ezartzen duena (NAO).
- Ebazpena, Hezkuntza eta Zientzia Sailarena, Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoko unibertsitate kanpoko ikastetxe publikoetan kideen arteko tratu txarrak daudenean esku hartzeko protokoloari publikitate ematea onartzekoa (GMAO).
- Agindua, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailarena, Valentziako Erkidegoko ikastetxeetan indarkeriari aurrea hartzeko eta bizikidetza sustatzeko planaren esparruan eskolako bizikidetza nahasten duten gorabeheren jakinarazpena arautzekoa (VGAO).



## ARTIKULUEN XEDAPENAK

Kode Zibileko 1104. artikulua, erru edo zabarkeriari buruzkoa.

Zordunaren erru edo zabarkeria da betebeharraren izaeraren arabera arreta beharrezkoa izan, eta pertsona, denbora eta lekuaren inguruko inguruabarrei egokitzen zaien arreta hori ez izatea. Betebeharrak adierazten ez duenean zein arreta izan behar den hura betetzean, familiako guraso on batek izango lukeena da eskatzeko modukoa.

Kode Zibileko 1903. artikulua, tutoreen eta adingabeen ordezkarien erantzukizunari buruzkoa.

Aurreko artikulua ezartzen duen betebeharra eska daiteke, norberaren egite edo ez-egitearen ondorioz ez ezik, beste pertsona batzuenaren ondorioz ere bai, pertsona horien gaineko erantzukizuna norberari badagokio.

Gurasoek erantzukizuna dute, euren zaintzapeko seme-alabek eragindako kalteen gain. Tutoreek erantzukizuna dute, adingabeek nahiz ezgaituek eragindako kalteen gain, horiek haien agintepean badaude eta haiekin bizi badira.

Era berean, establezimendu nahiz enpresa bateko ugazaba edo zuzendariak erantzukizuna dute, euren menpekoek eragindako kalteen gain, kalteok gertatu badira euren lan-arloetan zerbitzuak egitean edo euren eginkizunetan aritzean.

Pertsona edo erakundeak goi mailakoaz besteko irakaskuntza-zentroen titularrak badira, erantzukizuna dute, euren ikasle adingabeek eragiten dituzten kalte-galeren gain, horiek gertatu badira ikasleok zentroko irakasleen kontrol edo zaintzapean dauden bitartean, eta eskolako nahiz eskolatik kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien ondorioz.

Artikulu honek arautzen duen erantzukizuna amaituko da, bertan aipaturiko pertsonak frogatzen dutenean familiako guraso on batek izango lukeen arreta osoa jarri dutela, kaltea saihesteko.





Ziberbullyinga garrantzi handiko fenomenoa da, bere hedadura, ondorioen larritasuna eta arazoari aurrea hartzeko eta heltzeko zailtasunak direla eta. Hori dela eta, munduko eta, bereziki, Europako herrialde askotako erakundeek lehentasun nagusietako bat da ziberbullyinga tratatzea. Haurren eta nerabeen artean jazotzen bada, ondorioak lazgarriak izan daitezke, ahalmen handiko eguneroko zenbait teknologia (Internet eta telefono mugikorra) kalte egiteko asmoz erabiltzearen emaitza baitira.

Eskolan jazotzen den ala ez gorabehera, hezkuntza-erkidegoak jakinbehardu zein modurik onenaz ziberbullyinga aintzemateko, hari aurre egiteko eta hura errotik desagerrarazteko. Hartara, Internet egokiro erabiltzen lagunduko du, eta ikasleen ahalik eta garapen onenari bide emango dio. Hala ere, hori ez da erraza, teknologia berrien bidezko jazarpenak oso ezaugarri bereziak baititu, hala nola anonimotasuna, berehalakotasuna, kate-efektua eta bitartekoen eta prozeduren eskuragarritasun eta aniztasun handia.

EMICIk prestatu du protokolo hau. Pedagogian, soziologian, psikologian, teknologia berrietan eta zuzenbidean adituen diziplinarteko talde bat da EMICI, eta ikastetxeek horrelako egoeretan esku hartzeko gidaliburu bat osatu du, bizikidetzaz zibernetikoko arazoak ulertzen lagundu nahian.

Egilea:

Argitaratzailea:

**emici**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA